



Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).  
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazOndoiltzen.htm>

## **ONDO ILTZEN IKASTEKO, TA ONDO ILTZEN LAGUNTZEKO EJERZIZIOAK**

**Agustin Kardaberaz**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**ONDO ILTZEN IKASTEKO,  
TA ONDO ILTZEN LAGUNTZEKO  
EJERZIZIOAK**

ETA BIDEZ ERIARI ONDO ITZEGITEKO MODUA: AZKENIK  
GURE NEKAZARIAK ONDO BIZI, TA ONDO ILTZEKO  
BIDEA, BEARREN DIRAN DOTRINA, TA EJENPLOETAN

*Ejertzizioen Irugarren Partea*

**Agustin Kardaberaz**



## IRAKURLEA EUSKALDUNARI PAKEA, ETA ERIOTZA ONA

Zori onekoa zu izateko, zure izate, ta egiteko guzia dago, Jainkoaren Fedeko, ta Legeko gauzak ondo ikasi, ta sinistu, ta orietan, eta oriekin ondo bizi, ta ondo iltzean. Ezta asko ondo jakitea, ta ez ondo asitzea. Eskritura Sagraduak, ta beste Libruak diotenez, asko ondo asi, ta gaizki akabatu, edo asakatu ziran. Orregatik, bada ondo asitzeko ondo prestatzeko, ta ondo iltzeko Ejerzizio au orañ eman nai dizut.

## Ien. EGITEKO AU ZER DAN

Kristabak, lurrean bizi dan artean, egiteko andiagorik ez du, pakean Jainkoaren grazian iltzea baño. Zure, ta nere egitekorik bearrena au da. Jesu Kristok Ebanjelioan dion gauza bakarra, ta bearra au da. Au da Jainaren miseriakordia guzien andiena, doai guzien doaia, grazia guzien grazia. Au da zeruko Atearen giltza, mesede guzien sillua, meritu guzien saria, ta fabore guzien koroa.

Argatik ondo iltzen ikastea da zeruko leziorik egokiena: ta ondo iltzen laguntzea da Aingeruen ofiziorik onena. Naizu, bada, ondo ill, edo ondo iltzen ikasi? Jakizu, bada, Jainkoak S. Pabloren aotik diona: bat bizi dan bezala geienean iltzen dala. Bizitza nolakoa, eriotza alakoa. Naizu ondo ill? Jakizu, bada, Jainkoak Dabiden aotik diona: KENDUpekatari, edo injustia eriotzan gaitzak arrapatzen dutela: gaitz guzien gaitza eriotza gaiztoa da. Naizu ondo ill? Jakizu, bada, Jainkoak beraren aotik diona: pekatarien eriotza aren begietan nazkagarria dala. Naizu ondo ill, edo ondo iltzen ikasi? Jakizu, bada, Espiritu Santuak diola biotz gogorra azkeneko egunean txit gaizki arkituko dala.

Orrela ondo iltzen ikastea zer da? Da eriotza baño len, edo zure bizitzan iltzea. Ondo iltzen ikastea da, eriotzan naiko dezuna, orañ, ta beti egitea. Ondo iltzen ikastea da, demonio, mundu, ta aragiarenzat zu bereala iltzea. Ondo iltzea bera da, pekatu gabe, Jainkoaren grazian irautea. Iraute onek lenago grazian egotea, Jainkoaren adiskide izatea, berez eskatzen du, edo esan nai du.

Ill gaitean, bada, Kristaba, zu, ta ni gure bizitzan bizi gaitean gure eriotzan. Eriotza beti begien aurrean badakargu, eriotzan zer egiñik izango ez degu. Onela bizitzan illagatik, munduko eroak baño tristeago biziko ez gera; baizik aiek baño alegereago. Aien alegria akabatuko da, ta gurea betiko izango da. Aien alegria azaletik, ta kanpotikakoa da; baña gurea mamitik, ta barrendikakoa da. Aien alegria mundu gezurrian, gure Jainko egiazkoan beti dago.

Jesu Kristo zeruko Maisuak, Aita amorosoak bezala esaten diguna da: *Estote parati: Vigilate: estote parati*. Ez beñ, ezpada biarretan, ta iru aldiz dio: kontuan maniatu, eta prest gaudela, zeren, gutxien uste degunean, ill bear degun: eta egun, ta ordu segururik ez degula. Kristok ez dio: prestatu, maneatu, edo prepara gaitela; ezpada maneatu, paratu, ta prestatu beti gaudela. Mandatu au zuk, eta nik bertatik ar dezagun. Artzen bade-



gu; puntu ditxoso orretatik zorionekoak izango gerade. Ta egia esatera, deskansuzko bizi gozoagorik munduan inork ez zuen, beti eriotza gogoan daukanak baño. Orregatik Jesus maiteak ainbeste nai degunak bezela, gozoro bizi gaitezana, konseju ori ematen digu.

Galde, bada, egia au: ondo ikasi, ta ikusi, ta zekitenai galde. Galde Jainkoaren beste sierbo fieleri, zeñak illtzeko zorian zegoela, esan zuen: Jainkoari graziak: ogei, eta ainbeste urtean, illtzeko bezela, egunoro konfesatu izan naz: eta orañ atzo bezala konfesatzea beste zer eginik ez daukat. Au esan ta sosegu, eta pake gozoan illtzan. O ditxa pare gabea! O gloria bizia.

Santu, ta Jainkoaren adiskideai galde. O zure zori oneko, ta bienabenturadua, San Arseniok eriotzan bere buruari esaten zion! O zure ditxosoa, Arsenio, bada zure bizian izan ezdezu instanterik, eriotza begien aurrean, ta memorian iduki ezdezunik! Arsenio au Korteko gizon aberats, estimatu, ta Enperadoreen adiskide, ta Maisu andi, onratu, ta erregalatu len, ta gero berrogei ta amabost urtean Monje izan zan, ta eriotzan beti pentsatuak jainkozko izaten lagundu zion, ta ala Santu andi egin, ta ill tzan.

Galde San Pablori berari, zeñak dion egunoro illtzen zala, ta Kristorekin egoteagatik, egunoro, ta beti ill nai zuela, ta arenzat eriotza irabazia zala zeren ill, ta gloria bizia irabazten zuen. Galde gure auzoetako, ta munduaren bazter oietako nekazaritxo garbi, beren izerdiakin jaten ematen diguten askori. Oien artean asko, ta nereko txit asko, Jainkoaren miseriakordiaz salbatzen dira: ala eriotzari, datorrenean, arpegi ona egiten diote, Jaunaren borondateaz batean, soseguz, ta aberatsandi asko baño pake obeaz, alakorik ezbaliz bezela, edo gela batetik bestera aldatzea bezala, oiek illtzen dirade. O zorioneko pobreak.

## BIRJIÑA SANTA JETRUDIEN EJERZIZIOA

Jesusen Esposa erregalatu onek ondo illtzen ikasteko egiten zuenaz, guk zer egin bear degun erakusten digu. bere atzeneko gaitzak artu balu bezala, oiean sartzen da. Barrendik, edo bere espirituaren esaten bazioten bezala, ill berria aditzen zuen, ta illtzeko presta zedilla. Orduan bere biotzean sartu, animari begiratu, ta bere konzienzia esaminatzen zuen; Jesu Kristoren onetan amoriozko damu, ta negar andiakin bereala konfesatzen

zan. Bidezkoaz bezala Biatiko santua, ta azken oliazioa bere espirituaren, Eleizaren orazioak debozioz esanaz, artzen zituen.

Jaunari esker onak, edo graziak eman, ta bere Erlijosetatik, ta munduagandik, Eternidadeko biajea egiteko despeditzen zan. Illtzeko zorian bere burua konsejatu, Santo Kristo bat eskuetan artu, ta bere biotza gozoro urtu, ta desegina, Jainkoari bere saborea ordu artarako txit estu eskatzen zion: SANTA MARIA Birjiña Amari, S. Josef, ta bere deboziozko Santuai, pauso artan laguntzeko, deitzen zine: ta ya illtzen zegoela izen guziz gozo, JESUS ta MARIA esanaz, Jaunari bere espiritua enkomendatzen, ta entregatzen zion.

Santa Jertudis andiak ondo illtzeko beti egiten zuen Ejerzizioa onela zan, ta ori bere debozio, ta amorio guziaz egin arren, ez penaz, edo triste, ezpada konsueloz, ta zeruko faborez beterik bizi izan zan, ta txit luzaro. Berrogei urtean bere Konbentuko Abadesa, ta orietan Aingeru baten gisa Monjak gobernatu, ta Aingeruen artean Ama Birjiña, ta Ebanjelista San Juan berekin zituela, bere Esposo Jesus maitearen Biotzean bere anima eman zuen. Ori bera gau oro bestre askok egiten du, Ejerzizio au zuk ere beti egizu, ta nere kontu txit poz andiaz eriotzari begira obeto biziko zera, ta Jaunaren pake gozoan, oitua bezala, edo oitu nola, illko zera.

Baña eriotzako ordu au etorri baño len, Jainkoak leku, ta era ona ematen badizu ere, ondo prestatzeko, ta ondo illtzeko, lau gauza andi, edo lau pauso, lenago eman bearrak dituzu, ta zure biotzean orañ ondo sartu, ta josi bear dituzu. Ia, da zure atzeneko borondatearen agiria, edo Testamentua egitea. IIa, zure atzeneko Konfesioa, edo Penitenziako Sakramentua. IIIa, zure atzeneko Komunio: ta oni Eternidadarako Bidezkoari ematen zaiona bezala Biatiko Santua deritza. IVa, atzeneko Oleazio santua artzea.



## TESTAMENTUA EGITEA

Gauza arrigarria da, juiziozko Kristauak, kontuak zer zuzendu, ta azienda zer utzi duela, denboraz, ta ondo, Jainkoak eman dion borondate libreaz ez usatzea, edo bere Testamentua egin gabe asko bezala soseguz bizitzea. Bosteun ta geiago ate, Medikiak diotenez, sosteko eriotzak, edo derrepente sartzeko ditu: ta bosteun baño ere askoz geiago bide gorputzetan sartzeko izango dira: ta mirari andia da, uste gabeko, edo bat batean eriotza geiago mundua egunoro ez ikustea.

Orregatik Jainkoaren Ministro Zelosoak, eri bategana deitzen dutenean, lenengo eman bear duen pausoa da, Testamentua denboraz, ta soseguz eragitea. al duen modurik suabeenaz, eria txit beregan dagoen artean, San Agustinen zeruko konsejua ondo adierazo bear dio: Animaren kontuaren gañeko Sermoi batean Santuak dio modu onetan: *Fac, quod faciendum est: fac testamentum, dum, tuus es: nam, si expectaveris infirmitatem, omnino minis, et blandimentis, duceris, quo non vis.* Esan nai du: «Egin bear dezun egitekoa egizu. Osasuna dezun artean, zure jabe zeran artean, Testamentua egizu; zergatik atzeneko gaitzerako uzten badezu, etxekoen, edo aideen bildur, edo palaguakin, naizuna eragotzi, edo nai ezdezuna eragingo dizute».

Santuaren konsejauk guziakin du, ta zurekin, ta nerekin ere bai: ta nik bezala, marabedi bat ez idukiarren zuk, alere munduko aberatsenak bezala, guk ere zer utzi badegu: ez azienda, ta ondasunak, baña bai gorputza, ta anima, geiago diranak: ala zuk, eta nik Testamentu baioso bat modu onetan egin bear degu.

## KRISTAUAREN TESTAMENTUA

«Trinidad guziz Santu, Aita, ta Semea, ta Espiritu Santu, iru Persona distinto, ta Jainko egiazko bakar baten Izenean: Nik N. beste mundurako biajean nagoela, nere atzeneko borondate, ta Testamentua modu onetan egiten det. Lenena, nere Anima bere potentzia, ta alegin guziakin, Jesu Kristori bere Biotzean, bere amorioaz eresia bezala, agintzen, ta biurtzen diot. nere gorputza lurrari, berea bezala, agintzen diot: ta onekin batean nere animaren ar gaizto izan diran deseo eragabe guziak, aren janari izan ditean, lurpean betiko ondatza nai det.

»Nere Animaren Imajiña Jainkoari, berak bere antzera egiña bezela, agintzen, ta biurtzen diot; baña lotsa, ta damu andiaz, zeren pekatuakin itsutu, ta desegin dedan. Nigan diran obra onak, Jaunaren graziari, bereak bezala agintzen diozkat; ta gaiztoak nere desdixari, zeñaren erremedioa jaunaren miseriakorian uste dedan.

»Nere azkeneko borondate au kunpli-erazotzeko Testamentaria, borondate santu guzien egille ona, Birjiña Maria, Jesu Kristok Gurutzeko bere Testamentuan Amatzat urtzi ziguna izentatzen det: ta Ama gozo onen anparo, ta piedadean esperanza daukat, guzia nik deseaten dedan baño ere obeto eragingo duela. Nere eskuan dauden irabazi on libre guzien heredero, edo jabetzat Purgatorioko Anima santak izentatzen ditut, ta Jainkoaren aurrean nere bitarteko onak izan ditezela, erregutzen diet.

»Geroenean nai det, nere borondate au beti firmea, ta denbora guzian baliokoa izan dedilla. Ta orañdaño pensametz, itzez, ta obraz orren kontra egin dedan guzia, betiko desegiten det: ta nere borondate onetan firme nago, ta biotz guztiko negarrak firmatzen det: ta nere eriotzaraño onetan irauteko propositu sendo batez sellatzen det. Testigu dirala San Josef maitea, nere Aingeru Goardakoa, nere izeneko Santua, San Migel, san Gabriel, ta San Rafael, nere borondate, ta Testamentu onetan presente arkitzen diranak».

Ona Testamentu balioso, ta merito andiko bat, zuk, eta nik, ta edozeñek inoren kalte, ta ofensa gabe, erraz edozeñ denboraz, edozeñ lekutan, ta mundu guziaren aurrean egin dezakeguna.

Baña munduko gauzetan sarturik daudenakin, ta zer utzi; edo disponitu dutenakin, Jainkoaren Ministroak bere zela erakutsi bear du, ta arrazoi suabeakin eria denboraz, ta juizioaz Testamentua egitera mobitu bear du: era ta grazia onetan esanaz, Espiritu Santuak diola: ERIOTZARA BAÑO LEN JUSTIZIA EGIZU. Eccli. 14. Jainkoari anima, ta bakoi-tzari berea emateko, bere zor, ta artzekoen kontuak, argiro, ta garbiri ajustatu, ta agirian ifiñi ditzala: Juizio kabala, ta borondate librea daukan artean, bere azienda datorkionari eman diozala. Bere atzeneko borondate au ondo egitean, Jainkoaren borondate egiten duela.

Askori deabruak buruan sartzan, edo paratzen die, Testamentua egiten badute, edo Sakramentuak artzen, illko dirala: ta on bera aideak, eta eriarekin dabilzanan askotan esaten dute, ta Jainkoak daki, zer intenzioarekin. Ta deabruaren gezur oiekin, Testamentu, ta Sakramentu gabe illtzeko, peligro andi, ta jakiña da. Ai zer kalteak, zer ondorengo desdixak emendik datozen! Ondo adierazo bear zaie deabruen engañu ori, ta orre-



lakorik ezdezetela sinistu, ta ere gutxiago esan. Jainkoak bakarrik gure urte, egun, ta orduan dauzka kontaturik, ta aren borondate santua dan artean, Testamentua egiñ, ta Sakramentuak artuarren, iñork ere, ta ezerk ere zu eziñ illko zaitu, ta ez eriotza aurreratuko dizu.

Testamentua egiñaz karga andi bat zure konzienziatik botako dezu: ta ori kendu, ta sosegu geiagorekin egongo zera. Jainkoari, ta zure anima bakarrari ondo begiratu, ta gauzak klaro agindu bear dituzu, gero zu ill ezkeru, aideen artean auzi, ta deabruen aterreak utzi ezditzatzen, ta biziak beren animak, zure interes puska bategatik, sekulako galdu ezditzaten, ta auzitan zure ondasunak ondatu ezditezten. Auzia deabrua da askorentzat: ta auziari ematen zaiona, geienean deabruari ematen zaio: zuk nekez biritillatuak, deabruak erraz banatzen, ta laster ondatzen ditu.

Konfessore zelodunak konseju onak onela eman bear ditu, ta eriarri esan, edozeñez fiatu ezdedilla, ezpada Jainkozko gizon andi jakintsu batean, dudetan aren konsejua aziertorako artuaz: eria libre, ta soseguz Konfessoreak utzi bear du, ta andik irten, edo bera aren Testamentu, ta gauzetan ez sartu.

Ejenploak obeto esango dizute: Ungriako Erregiña Sta Isabel, beti santa bezala bizi, ta eriotzarako prestaturik bizi bazan ere, arako Jainkoaren abisoa izan zuenean, obeto prestatu zan; bere Testamentua era onean egin zuen, ta zuena Jesu Kristoren pobretxoai utzi zien, ta beretzat ill janzi pobre bakar bat gorde zuen, ta Sakramentuak fede, ta amorio andiaz artu, ta zerura joan zan.

S. Carlos Borromeo, bere Milango errira izurria etorri zanean, bereala Testamentuaz prestatu zan, ta pobreai, zuen guzia, berena bezala utzi, ta munduko karga etatik arindu, ta Aingeru bat, edo asko bezala, izurriak jo ta illzer zeudenai Sakramentuak ematera, ta ill zen laguntzerako, Jaunaren zeloaz armatu, edo maneatu, ta mirariak egin zituen. Ah Jaungoikoaren Ministro estimatuak! Ta zeñ ejemplo ederra au! Santuak, munduko ondasunez betea ta aberatsa izan bazan ere, karga ori arindu, ta Jainkoaren espirituaz bete, ta animen zeloaz irazaki, ta erioptzaren zeñ bildur gutxi zeukan.

Eskritura Sagraduak Ezequias Erregearen ejemploa kontatzen digu. Beñ batean au gaizkitu, ta oiean txit estuan arkitzen zan: ta orra non Jainkoak Isaias santua mandatu triste batekin bialdu zion: ta denpora aietako lisuraz, ta oraño solape, ta edergarri gabe, Jainkoaren partez, klaro sententzia au esan zion: *Dispone domui tuae, quia morieris tu, eta non vives*. Ea, Erregea: zureak egin du: manea, manean zaitte: Testamentua egizu, zeren

ill bear dezun. Au esan, ta Profeta joan zan. Sententzia onen golpeaz txitez antsiatu zan: beste aldera jiratu, ta negarrari, bereala eman zion.

Bere negar andien artean, justua bezala, Jainkoagana bereala biurtu zan, ta biotz humill batez bere bizitzagatik orazio egin zion. Onetan Isaias Mandatari santuari, bere bidean zijoala, Jainkoak agindu zion: zoaz, ta Errege tristeari esaiozu: aren orazioa aditu dedala: ta amabost urteko bizia luzatzen diodala. ala milagrozkko señaile ziertoaz ikusi zuen: ta gero ondo bizi, ta ondo ill tzan.

Orañ zure kontua: Errege au Jainkotia, ta santua zan; Jaunaren gusto ta borondatea biotz onaz egin zuen, ta miserikordiazko obra on andi asko egin zituen. Ta orrez guztiaz ere, erioptzaren berri illunak kolpe batean arritu zuen; zeren edadearen lorean, ogei ta emeretzi urteko Zalduna, Jainkoaren Erreinoko Koroarekin, bere burua, zeruko fabore andien artean, Errege ikusten zuen. Ta Jaunaren mandatu, edo ill bearraren sententziak beregandik atera zuen.

Zer sustoa, bada, erioptzaren berri tristeaz, zer golpea artuko du, ez ura bezala justu, ezpada zu bezala bekatari danak? Ez ura bezala Jainkoaren bidean zuzen, ezpada zu bezala oker dabillanak? Argatik, nere Kristaia, orañ, susto gabe, denboraz ta Jainkoaren pakean, Testamentuaren eginkizun ori geroko bereala egizu. Ez arren zuzaz, ta ez edozeñez, gauza oietarako fiatu; ta ez zure jakin uste, edo prudenzian, dio Espiritu santuak geiegi estribatu, bada geren gauzetan, Juez zuzenak ezgera: mundua barbullez, edo nezioz beterik dago: *Stultorum infinitus est numerus*: ta zenbat arrotuago, edo presumituago, anbat Jainkoagandik, ta aziertotik urrutia-go. Konsejari ona billezazu, zure azienda, Jainkoarekiko, ta munduarekiko galdu nai ezbedezu.



## AZKENEKO KONFESIOA

Ondo illtzeko, Penitenziako Sakramentua, bear bezala artzea, da bigarren Bidezko Pausoa, Kontuzko Jaun, edo Persona batek jornada luze bat zer egin duenean, bere etxeko gauzak zuzenduaz gañera, biderako neurriak ere ondo artu bear ditu. Etxeko gauzak Testamentua mugonez egiñaz zuzentzen dira: Biderakoak Penitenziako Sakramentu, edo Konfesioaz. Jainkoaren Ministroa deitzen dutenean, eriaen aldera joango da, ta al duen ondoena esango dio:.

Ea, Kristaua, edo N. zure Jainkoaren Tribunalerako bidean sartzen zera. Eriotzaren saltoaz beste mundura igaro, eta dan pensamenturik txikieneraño zure bizi guztiko kontu eman bear dezu. Baña badakizu, Jaunak bere Juizioan barkatzen duela, emen aren ordeko Ministroak barkatzen duen guzia. Orretako, bada, Jaunaren izenean nator ni, zure pekatuen karga pisua kendu, ta ariñago, ta errazago beragana joan zaitean. Aktu Kontrizioko andi bat egiazko damu, ta proposituaz, biotz guztitik egin bear dezu: eta gero zure kulpak ondo konfesatzeko, nik pozik argi eman, ta lagunduko dizut.

Zeruko Mediku, edo konfesoreak bere regla seguru, ta jakiñak ditu emen, noiz, ta nola lengo Konfesioal berritotu, edo konfesio jenerala eragin bear dan. Erregla oriezaz baliatu: ta pazienza, ta prudenziaz armaturik lagunduko dio gaxoari. Eta onek orretako ezdagoela, edo gero egiteko aitzakiak emanarren; Konfesoreak badaki, orrela fiatu, ta Konfesioa utzi bear eztala; baizik, al dan bezala, bereala eragiñ.

Beste Erregearen Sekretarioa, orrela eriotzak estuturik, arkitzen zan. Ai, ene ditzagabea! zion tristeak: Anbeste erresma paper, Errege serbitzen eskribitu, ta nere konzienzia garbitzeko, pliego bat eskribitu ezdet! Ainbeste zeru urte oietan erraz irabazi nezakeala, orañ salbazioaren peligronean nago! Dakuskuna da, len txit ondo konfesatuak, ta prestatuak ere, tranze artan bildur oi dirala.

Ezequias, len esan degun Erregea justua, ta kontu onekoa zan: alere eriotzaren ispilluan bere burua ikusi, ta txit beregan sartu, ta Jainkoagana biurtu zan. Ala, eriotzatik eskapatu, ta bere Kantikoan negarrez, ta pozez esan zion: *Recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animae meae.* Isai. 28. Zure aurrean ustez, Jauna, zuzen ibilli izan naiz; baña alere orañ abiso onekin, nere biziko urre guziaz, animako damuaz errepasso bat eman bear diet, azturik, edo besela, penitenzia gabe ezer utzi ote dedan. Ah Kristaua!

errege gazte Santu batek, bere eriotzaren peligronean, ta bildurraz au egin zuen! Zuk, pekatari galdua izanik, zer naiko dezu ordu artan? Orañ egizu, ejemplo jakin onek erakusten duen bezela.

Korteko Jaun andi bat Erlijosio baten gelara joan, ta esan zion: Aita, nere bizi guztiko kulpak soseguz, ta ondo konfesatu nai ditut, kezka, edo eskrupulo guzietatik libratzeko, Galdetu zion orduan: Ta Konfesio jeneral ori zergatik egin nai dezu? Aita: illkorra ez naz, edo ez tet ill bear? Bai. Bada ordu segururik ezdet, ta geroenean ill bear det. Azkeneko gaitzean, g auza onik egingo ezdet. Negarrez andrea batetik, umeak bestetik: gaitzaren erremedioak, burua zorotua, ta ordu artarako utzi nuelako biotzeko damu, ta arra. Ez orixe: asko balio duen anima bat det: ta orañ Konfesio jeneral on bat pakean egin, ta seguratu nai det: ta Jainkoak nai duenean eriotza betor.

Onek bai San Agustinen consejua ondo artu zuela. *Diabolus chyrographum infirleant, fidem tribuit: caro non dericere ad huc sperat: parentes applaudunt: medici, ut lucentu, conforant: eta sic divites moriuntur in inferno. Ser. 58. ad Frat. Apud Castejon tom. 1. Mifs. 3.* Santuak dio: aberatsak illtzeko aizkitzean, penitenziarik ez dagiten, deabrua bere seguridadeakin batetik sartzen da, bestetik berak bizi nai. Aideak animatzen dituzte: Medikuak desengañatzen ez dituzte: ta ala aberats tristeak infernuan illzen dira, zeren ill baño ere len infernuo tranze, edo infernu bizian sartzen diran.

Ah Kristaua! Denboraz zure begiak argi itzatzu, ta orduko kontuak orañ ondo ateritzatzu. Osasunean guztia erraz da. penitenziako Sakramentu au pekatu guzien erremedio seguru, ta erraza da. Zenbat eta orañ geiagotan, ta obeto konfesatzen zeran, orduan ariñago, ta obeto. Alkan-dora, edo erropa zuri lisibara askotan dijoana, errazago, ta obeto garbitzen da. Konfesioa zeruko lisiba, edo Jesu Kristoren odol preziosoaren baño sagradu bat da: askotan or sartzen bazera, Jainkoaren Bildots, edo Agnus Dei orrek zure animako loiak kendu, ta egunoro garbiago gordeko zaitu.



## ILLTZEKO KOMUNIO, EDO BIATIKO SANTUA

Eternidadeko biaje onetan ondo prestatu, ta ibiltzeko, Bidezkoak bezala, janaria artu bear dezu, Jainkoaren zeruko erregaloen artean duen bakadurik ederrena, gozoena, ta onena da Jesu Kristoren Gorputza: zerutik etorri zan Ogi bizia, ta berez zerurako autetsi, edo eskogituen janari, edo Ogia: *Quid bonum, eta pulchrum eius? Frumentum electorum. Panis vivus, qui de coelo descendit.* Zac, 9. Ioan. 6. Bidezkoai bezela, bidean goseak ill ezgindezen Jesu Kristok janari au prestatu zigun. Au bear bezala jateko, eria ondo paratzen da Konfesioaz pekatuak garbitu, ta Jaunaren grazian dagoela, Fede, Esperanza, ta Karidadeko aktuakin. Orrez gañera bere Lagun urkoaren amorioa bear du, iñork ezertan ofenditu badu, biotzetik ari barkatuaz: ta berak iñor ezertan ofenditu badu, ari jainkoaren izenean barkazioa eskatu, ta guziak pake, ta amorioan gertuaz.

Irugarren pauso onetan, txit barrendik pensatu, tapisatu bear dezu, nola Errege guzien Errege Soberanoak, zeruetan daukan Majestade aundi guzia txikitu, edo estalirik, bere miseriakordiazko entrañakgatik zu bisitatzera etorri nai duen: ta nola eskutatua kortinapean bezala, ta akzidenteen estalkiarekin badator ere, munduaren argia bera dan, argiak aurrean etorriko diran, ta Jaunaren Ministroa zuriz janzirik, zure anima garbia zeruko eztaietara konbidatzera.

Onek zeruko gloriaren Jabea, ta ango ondasun, taprenda segurua, bere eskuetan gorderik, ta erreberenzia andiaz ekarriko dizu: esan nai det, Jesu Kristo Gure Jainko, ta Gizon egiazkoa, bere amoriozko Sakramentuan, bokadu gozo bakar artan, zure anima grazian badago, bere amorez sekulako berekin bat egiteko. Zure gelan orrela Jainkoarne Minsitroa sartzen danean, zer esan, ta zer egin bear dan, gero esango degu, ta bitartean Santuen ejenploak obeto erakutsiko dizute.

Jesu Sakramentatu onen amorezko San Agustin illtzeko gaitzaz zegoela, Biatiko Sagradua, esan dan bezela, eraman zioten: ta arako bere biotzeko Jabe guztizko maitea ikusi zuenean, añ ta onen poz andia artu zuen, non bere lekuan biotza ezin kabitu zitzaion, ta amorioz irazaki, urtu, ta egaka irten bear ziola zirudien. Orduan Agustinen biotz amorioa, beti ezta baño gozoagoa, ta orañ bere biziko gozoena, zeruko fenix baten gisa, bere espiritu guziarekin asi zan modu onetan: Ongi etorria zerala, nere Kriadore ta Redentorea. Ongi etorri, gure Pakegillea. Ongi

etorri, gure gaitzen erremedioa. Ongi etorri, gure Bideko Biatikoa. Ongi etorri, gure nekeen atsedena. Ongi etorri, gure penen konsueloa. Ongi etorri, gure esperanzen saria. Onela Biatikoa debozioz artu, ta amorez bere anima santa Jainkoari eman zion.

Santo Tomas Dotore Aingeruaren Bizitzan kontantzen da, gaizkitu, ta zerurako abisoa izandu zuenean, konfesatu, ta Biatiko santua eskatu zuela: au ekarri ziotenean, gorputzean argala bazegoen ere, bere espiritu Aingeruzkoak indarrak emanik, lurrean etzin, edo belauniko jarri zan, ta guzizko erreberenzia miragarriaz Jaun Soberanoa artu zuen: ta zekienak bezala, humildade paregabeaz, Jaunari erregutu zion, beraren gañean, ta aren Majestadeagatik eskribitu zuena, onzat beraren gloriarako artu ziozala, ta bere jakinenez, edo ignoranzia barka ziozala, zeren bere obretan Jaunaren borondatea beti billatu zuen. Jesu Kristo bere Maisuari au esan, ta Biatikoa artu, ta Aingerua bezala, Aingeruakin zerura joan zan.

Anima justu, edo grazian daudentzat Sakramentu au zeruko bizitza bada, gaizto, ta pekatuko eriotzan daudentzat, eriotzan, bizitzan bezela, animaren eriotza da. Aita Recupito, ondo iltzeko Libru baten egilleak kontatzen du, gizon bat gaizkitu, nai bezala konfesatu, Biatikoa artu, ta salbazioaren seña andikin il tzala, ta Konbentu batean enterratu zutela. Arrats artan Sakristaua Eliza ikustera joan, ta gorputz ori topatu zuen aterarik, ta aren ondoan jigante itsusi izugarri bat Lasterka iges Preladua-gana joan zan: au bere Erljiosio guziakin Prozesioan Eleizara jatxi zan, ta Sakristauak esan zuena arriturik begiz ikusi zuen.

Jigante ikaragarri an zegoenari, Jainkoaren partez gadegu zion: nor zan, edo zer nai zuen? Demonioa naz ni, ta Jaunaren lizenzia det, gorputz au, anima dagoen lekura, infenuetara eramateko. Baña Biatikoan artu zuen Ostia orañdik emen dauka: atera zaiozu, bear dan lekuan gordetzeko. Forma sagradua atera zion. Orduan katea ots arrigarri bat aditu zan, ta puntu batean demonioa bere gorputz orrekin sekulako ondatu zan. Sakristaua sustotik ill zan, ta beste asko gaizkitu ziran. Italian au ikusi, ta aditu zuten guziak arritu ziran, ta geroke utzi gabe, bereala bizimodu berrian sartu ziran, Jaun Sakramentatua, bear dan bezala beren biotzetan artzeko, ta obeto serbitzeko.

Aita Agustin Castejon, gure Misionero, ta Erregeren Predikadore afamatuak kontatzen du, Misio batean, ta Jubilioko Komunioan, gizon galdu bat ondo konfesatzera atrebitu gabe, besteen artean sartu, ta gaizki komulgatu zala. Emazteak, aren bizi txarraren berri zekienak bezala zaitu, ta zelatan egon, ta ikusi zuen ikara, ta pena andiaz, nola gizona, Judas bat egiñik Eleizatik etxera biurtu zan. Arratsaldean biak atzeneko Sermoiera,





Jaunaren bendizioa artzera joan ziran. Gizon ori txit illun, ta sustoz igo-roa etxera zan: ta bere ustez errelikiaz beterik oiera joan zan. Baña ai! Zer lo pisua, ta infernurañokoa izan zan! Biaramonean emazteak ill otza bere ondoan arkitu zuen: eta aren anima erretzen betiko infernuan.

Gizon bata, ta bestea komulgatu, ta ill ziran: baña bizitzan gaizki konfesatzera, ta komulgatzera oiturik dagoena, iñoiz ere, eriotzako orduan baño, gaizkiago komulgatu ez oi da. Oien kaltean, zuk ondo bizi-tzen, ta ondo illtzen ikasiezazu.

## OLEAZIOA, EDO AZKENUNZIOA

Eriotza kordelak estutuaz dijoa; ta erioa postaka dator. Kristauaren atzeneko Pausoa au da. Zure barrenean enzuten dezu Jaungoikoaren Pre-goia, diona: DENBORA GEIAGO IZANGO EZTA. Ai! Bereala ill bearra: Juizioaren bildurra: ta betiko zer izango dan, laster ikusi bearra! Eriaren bildur oien artean, an daudenak diote: badijoa au: iltzer da: laster betor Oleazioa. Au da atzeneko Sakramentua, ta animare sendagarria. Anziñako gauza jakiña da, Peleara, edo agoniara (guztia da bat) gizonak irteteko, lenago olioiz egiñ, edo eman oi zirala, gorputza sendoago egote-ko, ta etsaien lazoai burla egiteko.

Ori bera Eliz Ama santak iltzer, edo agonian sartzen dagoenaz, Oliazioan egiten du, aren anima, ta gorputza etsaien kontra sendoago armatzeko: oiek, eta beste birtuteak ditu Sakramnetu onek. Sazerdotea, lutoz bezala, moraduz janzirik, gelan sartzen da: Olio santua, ta mullo molso batzuen artu, ta argi batekin Orazio deboziozko bat esango dizu, ta an daudenai ere bai, Jainkoari zugatik, ta konbeni bada, zure osasuna-gatik erregu diozatela Zuri, Sakramentu au ondo artzeko, onen birtuteak esango dizkitzu, ta Jaunaren eskuetan osoro zure burua utzi dezazula, eta Oliazioa emango dizu.

Ejenploak. Eriari Extrema Unzioa ematean, Jainkoak Santa Maria Oñacense bere sierbari erakusten zion, anima ondo prestatuak txit indar andia artzen zutela, ta len illak bezala, erori, triste zeuden sentiduak, Santak ikusten zituen, txit garbi, alai, ta eder gelditzen zirala. Ta Santa au berau, iltzer zegoela, Jesu Kristo, Aingeru, ta Santuakin, bere ondoan ikusi zuen, beste gaxoak bezala, bera konsolatzen, ta animari indarra ematen: ta San Pedro zeruko giltza eskuan zuela, arako konbidatzen.

Santa Libudina, Paskoa egunean, illtzen zegoela, ta Oliazioa mai batean prest zeukala, Jesus ona, ama Birjiña, Aingeru, ta Santu askorekin etorri, konsolatu, ta azken Unzioa Kristok berak eman zion, berak iltze-ko kandela Santari eskuan ifiñi zion, berak iltzen lagundu, ta berak anima gloriarako bere biotzean artu zion.

Ruperto Erromako Erregea iltzeko zorian zegoen, baña, asko beze-la, Oleazioa artzeko gogo gutxirekin, ta oi dana, atzera; zeren etsaiak, ta munduko askok, esan dan bezala, buruan sartzen die, Testamentua egin, a Sakramentuak artu, ta illko dirala. Baña, Errege oni Jainkoak argi egin, ta kontuan erorteko grazia eman zion: ta txit gogotik eskatu, ta Oliazioa



artzen zuela ikusi zuen, zeñ indar andia Sakramentuaz animak, ta gorpuzak artzen zuten. Sendatu zan, ta Jainkoa obeto serbitu, ta Santuak bezala luzaro, urte askoan bere Erreinoa gobernatu zuen. Ta orra, konbeni danean, nola, oleatzeak, ez ill: ezpada bizia, ta osasun luzea ematen duen.

Ondo iltzeko bada, ta ondo iltzen ikasteko, lau pauso oiek beti zure animarne begietan idukitzatzu: eta ikusiko dezu zer bizitza gozoa, ta zer pakezko eriotza izango dezun. Onela egiaz erioari eriotza emango diozu: *Ero mors tua, o mors*. Osee. 13. O erioa, zure eriotza izango zan. Basilisco, edo Ersugeagatik esan oi da: baldin gizonari lenago begiratzen badio, ikusiarekin iltzen duela; baña gizonak lenago Ersugea ikusten badu, gizonak begiratuaz bera iltzen duela. Zure, ta eriotzaren imajina, edo representazio bizia, egiñegiña. Eriolari lenago begiratzen ezpadiozu, bere samiñtasun guziaz betiko ilko zaitu; baña zuk aurea artu, ta odno prestatuaz begiratzun badiozu, erioa bera ilko dezu, ta akulu zorrotza kendu, ta gozo gozo egingo dezu. Gero gaxoaren Konsiderazio, ta Afektoak ifiñiko dira.

## ONDO ILTZEN LAGUNTZEKO EJERZIZIOAK

### JAINKOAREN MINISTROAK EGIN BEAR DUENA

Gaitzak leku ematenduen artean, onek bere conseju santuakin eriarri Testamentua, esan dan bezala, eragin, ta soseguz ondo konfesatzen lagundu bear dio, ta Bidezkoaren zeruko janari, edo Sakramentu guziz santua, Biatikotzat, bear bezala, artzeko maneatu, edo preparatu bear du, modu onetan esanaz.

Berri onak, Kristaua: N. berri onak: Zeruko atea Zuretzat erdir erdi gaur idikitzen dira, ta ango Mediki Soberanoa bere Biotzeko amorioaz dator andik zugana.

Bijoa kanpora barrenge tristeza; bada Aingeruen alegria dan Jauna, gaur zure etxean, ta biotzean artu bear dezu. O zer ditxa zurea!

Baldin ezeren bearrik, edo gogorik badezu: berak guzia, zuk nai baño ere obeto, egingo, takunplituko dizu.

Baldin zuren pekatuak bildurtzen bazaituzte: Jaun au bera da guzien erremedio, ta pagu osoa.

Baldin ersaiak, ta eriotzak ikaratzen bazaituzte: bere graziaz guziak garaitzeko lagundu, ta animatuko zaitu.

Baldin osasuna konbeni bazatzu: bere eskuan dauka. animakoa Sakramentuan ematen du, bai ta gorputzekoa ere, ondo badagokizu. Bera da osasuna, ta bizitza.

Egun andia da au zuretzat: berri onezaz Aingeruak berak admiraturik, Jesu Kristoren faborea ikustera, ta bera adoratzera, berarekin datoz zugana.

Orañ bada, Kristaua, berri on au aditu, ta nor animatuko ezta? Nork, tristezak utzirik, egiazko alegria biotzean artuko ezdu? Nork onelako bisitan Jaunaren miserikordia guzia beregan artu, ta beretzat betiko naiko ezdu?

Ea bada, Kristaua, idiki, zabaldu, ta alegiñaz biotz ori alaitu: ta zeruko Etorkari, zure Jaberik onenari ordu onean leku emaiozu: ta pekatari penitenteenzat Jaun au zeñ ona, zeñ beraa, ta gozoa dan, zeregan ikusiko dezu. Ta nik dakardan, t aematen dizudan artean, bera ondo artzeko, zure biotzeko deseorik bizienakin deitu, t esaiozu.



Atoz, Jauna, atoz ordu onean, nere animako ostatu pobre onetara; atoz, nere Jaungoiko, nere Egille, nere Jabe, nere Salbadorea, ni erremediatzera, aniatzera konsolatzera: zure amorez betetzera, ta Zu arpegiz arpegi zeruan ikusteko deseoz bere, irazaki, ta prestatzera.

## RITUS CONFERENDI INFIRMIS EUCCHARISTIAM

Sazerdoteak eriarri galdetzen dio: Sinisten dezu Aita Jaungoiko Omnipotente zeruaren, ta lurraren, ikusten diran, ta ikusten ezdiran gauza guzien Kriadorean? Eriak eranzuten du: Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu Jesu Kristo aren Seme bakarrean? Bai sinisten det.

S. Sinisten dezu Espiritu Santuan? Bai sinisten det.

S. Sinisten dezu, Aita, ta Seme, ta Espiritu Santua dirala iru Persona, ta egiazko Jaungoiko bat? Bai sinisten det.

S. Sinisten dezu, Jesu Kristo Gure Jauna, Gizona danez, Espiritu Santuaren graziaz sortu, ta Santa Maria gloriosagandik jaio zala, beti Birjiña, Semea jaio baño len, jaiotzean, ta jaio ezkerer geratzen zala? Bai, sinisten det.

S. Sinisten dezu, gure guzien salbazioagatik padezitu zuela, gurutzena josirik il tzala? Bai sinisten det.

S. Sinisten dezu, irugarren egunean illen artetik piztu zala: zeruetara igo zala, Aitaren eskuetik dagoela, ta munduaren azkenean andik biziak, eta illak juzgatzera etorri bear duela? Bai sinisten det.

S. Sinisten dezu, guziok geren gorputzetan erresuzitatu bear degula, beren gorputzetan bakoitzak merezitu zuen bezala, edo saria, edo kastigua eraman dezan? Bai sinisten det.

S. Gurutzea adoratzera eman, ta esaten dio: Adoratzan, ta bedekatzan zaitugu, Kristo, zeren zure Gurutze santuaz mundua erredimitu zeneduen.

Sazerdoteak gero Jesu Kristoren Gorputza adoratu, ta artzen du, ta an daudenai erakutsi, ta eriarri esaten dio.

S. Orañ Eliza Santa Katoliakren Sakramentuak, zeñakin salbazioa alkantzatzen degun, konfesatu bear dituzu. Sinisten dezu Eleiza Santa Katolian, zeña dan Kristau fielen Kongragazio bat, Bateo, ta beste Sakramentuaz, pekatuak barkatzen zaizkigula, ta betiko biziaren erederer egiten gerala? Bai sinisten det.

S. Sinisten dezu, Jesu Kristok azkeneko afarian esan zituen Konsagrazioa itzen birtutez, eta edozeñ Sazerdotek, dan pekatari, ta indignoena bada ere, bear dan bezala ordenatu, ta esaten dituela, ogiaren substantzia, edo izana Kristoren Gorputz, ta ardoaren substantzia, edo izana aren Odol biurtzen dala: ta nik orañ nere eskuetan daukadana, Kristoren egiazko Gorputza dala? Bai sinisten det.

S. Orrezaz gañera, injuria, edo naigaberen bat egin dizuten guziaz barkatzen diezue biotzetik? Bai, barkatzen diet.

S. Zuk itzez, edo obraz ofenditu dituznai barkazioa eskatzen diezue? Bai eskatzen diet.

Gauza oiek noiz ta nola laburrago galdetu bear diran, Sazerdoteak ondo begiratu du.

Sazerdoteak orduan esatendu: *Domine, non sum dignus*, ta eriak arekin batean iru bider modu onetan.

JAUNA EZNAIZ NI DIÑA, Zu nere etxean, edo animan sartzeko; baña zure itzaz nere anima salbatuko da.

Gero Sazerdoteak al duen modurik suabeenarekin eriarri esaten dio: Orañdik, Kristaua, beste Sakramentu bat, edo atzeneko Oleazio santua artzea, falta zatzu. Nai dezu, ta bear denean artzeko, eskatzen dezu? Bai, Jauna, bertatik, Jainmkoak nai dueneko, eskatzen det.

S. Bada nik ere, beraren izenean emango dizut.

Baña nola eria urruti, edo iltzeko peligroan dagoenean, Biatiko Santua, ta Oleazioa bereala artu bear diran, edo bata bestearen ondorean eman bear diran, on nola dan orañ esango degu.

## ORDO MINISTRANDI SACRAMENTUM EXTREMA UNCTIONIS

*Sacerdos: Pax huic domui, et ut supra.* Orduan Sazerdoteak soseguz, ta bear dan bezala eriarri, enzuten badu, ta orretako badago, adierazotzen dio Oleazioaren Sakramentua, ta onen birtuteaz, esanaz modu onetan.

Jainkoaren borondateaz bat gurea egitea, edo ari gurea sujetatzera, guzientzat konseju txit ona da; baña orañ zuretzat, Kristaua, da gauza bearra: bada zaude gaitz peligroso onek estutzen zaituela, berak ematen digun denboraz, ta miserikordiaz balia gaitean, animako osasuna, ta gero gorputzekoa ere, konbeni bada, alkanza dezazun.



Jainkoak eman zigun bizitza prestatua degula badakizu: ta ala, eskatzen digunean borondate osoaz biurtu bear diogu: ta zor au pagatzeko denbora etorri bazatzu, alegera zaite, zeren munduko nekeetatik, ta Jainkoa ofenditzeko peligroetatik libratzen zeran, ta gorputzaren kargarekin pekatuen oitura, edo kostunbrea kentzen dezun.

Sakramentuen fabore, ta sokorrua arturik joango zera bizitza onetatik: ta au da mesede bat asko estamatu bear dezuna. Sakramentuak artu dituzun guzian, Jesu Kristoren Odol preziosoaz garbitu, oleatu, edo unjitu izan zera. Orañ artu bear dezun Sakramentua, Oleazio santua da.

Au artuezkero, gure iritzian, seguru bazoazke zerura. Aingeru, ta Santuak beren lagunzat ezagutu, ta bidera ertengo zaizkitzu. Ama Birjiñak berak besoetan artu, ta bere Semeagana, onen señalear markatua bezala eramango zaitu.

Olio santua onen unzioarekin grazia geitu, edo geiago ematen da: pekatu benial, edo ariñak barkatu, animako eritasun, edo gaitzak sendatu, ta pekatuaren errelikia, edo kutsuak kentzen dira. Olio santu onek alegria esan ani du, ta onezaz zure anima beteko du.

Gorputzaren parte, edo sentiduen leku jakiñak olioaz egingo dira: oriekin egin ziran gaitz, do pekatuak, Jainkozko erremedio onekin kura ditezen. Onela deabruarekin peleatzeko sendoago irtengo zer: ta eriotzako orduan aren lazo, ta tentazioetik eskapatzeko, ta etsai guziak garaitzeko.

Bearbada, ta zure animarako konbeni bada, gaitz onetik libratuko zera: bada, Santiago Apostoloak dion bezala, Sakramentu onek birtute ori badu. Baña bizitzaren esperanza, ta deseo geiegi iduki bear ezdezu: animari obeto begiratzeaz aztu etzaitean: ezta zer deskonfiatu ere, Sakramentu onen grazia artzeko, bear dan estimazioa galdu ezdedin.

Beren osasunagatik Apostoloetara fielak zijoazen fedearekin, Sakramentu au artzera zuk etorri bear dezu. Dударik ez iduki, Jainkoarne miserikordiari orañ egiten diozkagun orazio santuak, Eleizaren, ta Jesu Kristo gure Jaunaren personan, Jainkoak adituko dituela: bada iñork baño geiago, ta obeto berak gure ona nai digu: Berari onra, ta gloria sekula guzietan. Amen.

Sazerdoteak orañ, edo ondoen deritzanean, Jesu Kristoren ondasunak, edo pekatuen barkazio, ta Induljenziak beraren izenean adierazoko diozka, ta fedez biotza jaso, ta guztiak irabazteko intenzio egiten erakutsi, ta lagunduko dio eriarri. Irabazi, esan al baño andiangoak dira, eriotzako ordurako Kristauai Aita Santu askok, Medalla, a beste gauzetan emanak, ta Kofradia santuetan sartu, ta bizi izan diranentzat; ta ala konbeni da eriak denboraz kontuan paratzea, gero sentiduen usoa galdu, edo bere-

gan ezbadago ere. Esan bear dio Elizaren Orazioak, Pater Noster, Abe Maria, Kredo, ta Salbea, ta Jesusen izen gozoa berekiko askotan aoz, edo biotzez bederik esan ditzala: Jesus, Jesus milla bider: Jesus, Maria, ta Josef nerekin beti izan diteala.

Esan bear dio Sazerdoteak, Jainkoak gaitz artarik libratzen badu, berari graziak ematera Eleizara joan bear duela. Beste onelako konseju, ta gauzak aurrera luzaro esango dira.

Oleazioko Orazio oiek esan, ta Sazerdoteak abiso, ta konseju santuak eriarri emango diozka, Jainkoaren borondatea bada, eriotza santu bat izan dezan: etsaien tentazioen kontra animatuko du.

Ur bedeikatua, ta Gurutze, edo Santo Kristo an utziko diozka, ari askotan begiratu, ta debozios muñ egiteko, ta bere biotzean sartzeko.

Etxekoak ere kontuan paratuko ditu, baldin berriz konfesatzea eriak nai, edo eskatzen badu, edo gaitzak estutzen, edo agonian sartzen badu, bereala Jainkoaren Ministroa abisatu, edo deitu dezatela, iltzen lagun dionan, ta aren anima Jaunari Eleizaren orazioekin enkomenda diozan.



**INDULJENZIA PLENARIA,  
EDO PEKATUEN BARKAZIO OSOA  
AITA SANTU BENEDICTO AMALUGARRENAK  
KRISTAUARI ERIOTZAKO ORDURAKO,  
1747GARREN URTEAN EMANA**

Induljenzia andi au, besteak bezala, eriak irabazteko, Konfesore Jaun orretarako Aita Santuaren eskua duenak, Sakramentuak artu ezker abi-sutako du, ta Benedizioa orañ esango dan bezala, Aita santuaren izenean emango dio.

Azkenean, edo Sazerdoteari ondoen deritzanean, Bulda Santuaren Induljenzia emango dio.

Etxekoak, edo eriarri laguntzen diotenak kontuan ifiñiko ditu, nola deabruak aienatzeko, ur bedeikatuaz noizean beiñ eria, ta gela egitea, Eleiza Santaren erremedioa dan, ta nola usatu bear duten, ta eria bere neke, edo gaitzaren estutasunetan animatu, ta konsolatu bear duten, beren konseju onakin, ta platika santuakin: ta beste gauzak, ta munduko banidadezko, ta itz gaistoak eriarren aurrean ezdirala esan, edo kontaktu bear, baizik animaren kalteko etsaiak bezala andik aienatu.

Santuai Letaniakin onela deitu, ta eria agonian sartzean, urrengo Elizaren orazioak esaten dira.

Oiek dirade, nere Kristaua, ill arteraño bati Eleiza santak, ondo iltzen laguntzeko, egiten diozkan oraziorik usatuen, ta jakiñenak. Ta zuk obeto aditzeko, zure eriotzako orduan, zugatik zer egingo dan, ta Jainkoari zer eskatuko zaion, Euskeraz esango dizut guzia.

Soseguz iltzeko denbora, ta ditxa izaten badezu, jakizu, esan diran Letania, edo Eskari laburretan, Jainkoari zugatik erregutzen zaiola, bitarteko ifiñiaz Ama Birjiña, Aingeru, ta Santuak, Abel justutik asi, ta beste diran guziak. Orren ondoren Eliza Ama Santak zure animaren Gomen-dio, edo rekomendazio, zu ill artean, modu onetan egiten du.

**ANIMAREN REKOMENDAZIO, ETA  
ORAZIOA**

«Zoaz, zure bidean, anima Kristaua, mundu onetatik irten zaite, Aita Jangoiko guziz poderoso, ezerezetik egin zinduenaren izenean. Jesu Kristo Jainko biziaren Seme bere eriotzarekin erredimitu zinduenaren izenean. Espiritu Santu zuri eman zitzatzunaren izenean. Aingeru, ta Arkanjelen izenean. Trono, ta Dominazioen izenean. Prinzipadu, ta Potestadeen izenean. Kerubin, ta Serafiñen izenean. Patriarka, ta Profeten izenean. Apostolo, ta Ebanjelisten izenean. Martiri, ta Konfessoreen izenean. Monje, ta Ermitañoen izenean. Birjiña, ta Alargun Santen izenean. Jainkoaren Santu, ta Santa guzien izenean. Oriek guziak anpara zaitzatela, ta zure lagun izan diteala. Gaurko egunetik pake, ta deskansuzko lekua zuretzat izan dedilla, ta zure bizitegia zeruko Sion santuan: Jesu Kristo gure Jaunaren merezimentuakgatik. Amen».

*Bigarren Orazioa:* «Jaungoiko miserikordioso, Jaungoiko beraa, Jaungoiko zure piedadearen aunditasunaz batean, egiazko penitenteen pekatuak barkatzen, ta zure graziaz igaroko kulpen mantxak kentzen dituzuna: zure miserikordiazko begiaz begirazaiozu N. zure sierbo oni, zeñak bere biotzeko, ta egiazko konfesioaz bere kulpa guzien barkazioa eskatzen dizun. Aita guziz poderoso, anima onetan gaizki egiñik arkitzen dan guzia, dala lurreko argaltasunaz, dala deabruaren engañuz, arren, Jauna, zure eskuz berriro egizu, ta zure Odol preziosoaz erredimitutako mienbroa bezala, Eleiza Santa katolikaren gorputzarekin bat egizu. Onen adia, ta negarren lastima idukizazu, Jauna: bada Zu gan, ta ez bestegan, tazure miserikordian konfianza iduki du. Zure Eliza santaren umea bezala arrezazu zure grazian. Jesu Kristo G.J.ren meritoakgatik. Amen».

*Irugarren Orazioa:* «Anai guziz maitea, Jainko omnipotente zure Kriadoreari, zeñarena zeran, enkomendatzen zaitut: berak nai duenean, eriotzari zure zorra pagatu, ta zure Egilla lurreko autsetik egin zinduenagana biur zaitezen. Zure anima gorputzetik dijoanari bada Aingeruen ejerzitu ederra datorkiola bidera: Apostolo santu zure Juezak ondo artu zaitzate-la: Martiri santu triunfadoreak bidera irten diteala: Konfesore gloriosoak lagun dizazutela: Birjiña garbiak anpara zaitzate-la: ta Patriarkak beren pakeleku, ta besoen artean ar zaitzate-la. Alegere, ta gozo Jesu Kristoren arpegia agertu dakizula, ta bere Zerutarren artean betiko ipiñi zaitzala. Infernuko illuntasunak, ango su garrak, ango tormentuak zurekin zer iku-



sirik izan ezdezatela. Ken emendik, ta urruti ijoala Satanas izugaria bere tropa guziakin: eta Aingeruak zuri laguntzera etorri, ta deabrua iges bere tokira onda dedilla.

»Jaiki bedi, betor gure Jaungoikoa, ta arrasa bite aren etsaiak: ta aren Majestadea ezin ikusi dutenak, aren begietatik aiena bitez: Kea bezala desegin diteala, ta nola argizagia suaren aldean erregaldu, ta urtutzen dan, ala pekatariak Jainkoaren begietan galdu diteala. Justuak berriz faborez, ta erregaloz Jainkoaren aurrean beteak izan diteala. Lotsa bitez, bada, ta onda bitez betiko Satanas, ta aren infernuko lagun guziak, ta zuri zeruko bidea eragoztera atrebitu ez diteala.

»Jesu Kristo gure Jaun zugatik Gurutzean egon zanak infernuko penetatik libra zaitzala. Jesu Kristo gure Erredentor zugatik eriotza artu nai izan zuenak betiko eriotzatik libra zaitzala. Jesu Kristo Jaungoiko biziaren Seme, zure Salbadore egin zanak bere Paraisuko Berjel, ta gloria-ko lore ederren artean sartu zaitzala: ta animen Arzainagusi egiazkoak bezala zure anima bere ardien artean beretzat ezagutu, ta lekua dizula. Sazerdote andiak bezala berak zure pekatu guzien barkazioa dizula: ta suerte, ta zorioneko justu, ta Santuen artean, zure Salbadorearen arpegia klaro, ta beti aren eskuetik ikusteko diña egin zaitzala: ta beraren aurrean zaudela begi zorionekoaz egia guziz argia ikusi dezazula: eta Jaungoikoa- ren edertasun guzia ikusi, ta goza dezazula sekula sekulakoetan. Amen».

## GURE JAUNGOIKOARI ANIMAGATIK ESKARIAK

«Arrezazu, Jauna, zure sierbo au bere salbazioko, zure miseriordia- gandik uste duen leku artan. Beti eranzuten da: Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima infernuko peligro guzie- tatik, pena, ta estutasun guzietatik. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Enoc, ta Elias munduko eriotza jakiñetik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Noe, dilubioko uretan ito etzedin, libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Abraan Caldeoen suy, ta garretatik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Job santua bere neke, ta penetatik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Isaak bere Aitaren sakri- fizio, ta eriotzarik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Lot Sodomako sugar izugarrietatik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Moises Faraon Egiptoko Erregearen eskuetatik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, Daniel Leoi gosetietatik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, iru gizon gazteak Babi- loniako labe irazakitik, ta Errege gaiztoaren eskuetatik libratu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima Santa Susana, falso testi- moniotik libratu zinduen bezala. Amen. Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, David Saul Erregearen, ta Goliat Jigantearen eskuetatik lira- tu zinduen bezala. Amen.

»Librezazu, Jauna, zure sierbo onen anima, San Pedro, ta San Pablo, Apostoloak karzela, ta kalabozoetatik libratu zinduen bezala. Amen.

»Ta Satan Tecla Birjiña, ta Martiri bienabenturada, iru tormentu ika- ragarrietatik libratu zinduen bezala, ala zure sierbo onen anima libratzea nai dakizula, zurekin betiko gozoetan egon dedin. Amen».

*Laugarren Orazjioa:* «Zuri, Jauna, zure sierbo onen anima ematen dizugu ta zuri munduaren Salbadore Jesu Kristo gure Jauna, erregutzen dizugu, onegatik zure miseriordiaz lurrera jatxi ziñan bezala, ala zure adiskideen artean au kontatzea nai dakizula. Ezaguezazu, jauna, zure etxura au, ez beste gezurrezko jainkok, baizik Zuk, Jaungoiko egiazko, bizi, bakarrak egiña; zeren egiaz Zu baizik Jaungoikorik, ta Zuk bezalako borak egiten dituenik ezdan. Onen anima zure prezencian alegera, ta kon- solezazu, ta ez arren, Jauna, akordatu onen igaroko kulpaz, ta eragabeko, ta geiegi egin zituen gaizkiaz: bada pekataria izan bada ere, orregatikan Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua sinistu, ta konfesatu du, Jainko egiazko bat: zure zelo santua beregan iduki du, ta Zu Jaungoiko gauza guzien Egi- lle fielkiro adiratu zaitu».

*Bostgarren Orazjioa:* «Erregutzen dizugu, Jauna, onen gaztetako peka- tuak, eta jakiñez, edo ignoranziak aztu ditzazula. Zure miseriordiaz one- kin usa ezazu, ta onen animaz zure gloriako argitasunean akorda zaite. Idiki bedi zerua onentzat: alegera bite Aingeruak onekin. Zure Erreinoan zure sierboa arrezazu, Jauna. San Miguel Aingeru, zeruko Ejerzitzen Kapitan izatea merezitu zuenak onen anima ar dezala: S. Pedro Aposto- lo, zeruetako Erreinoaren giltzak dituenak onen anima ar dezala: San



Pablo Apostolo Jainkoaren ontzi seinalatu egiteko diña izan zanak lagun-du diozala: San Juan Apostolo, ta Ebanjelista, Kristoren Diszipulo laztan, Jainkoaren misterio eskutatua ikusi zituena onen bitarteko izan dedilla: Apostolo Santu pekatariak lotu, ta pekatuen kateetatik askatzeko eskua iduki zutenak onegatik erregu dezatela: Santu, ta Jainkoaren eskojitu guziak, Jesu Kristoren izenean munduko tormentu andiak eraman zituztenak onegatik berari eska diozatala: gorputz illkor onen karzelatik anima au irtetean, zeruko gloria gozatzera igo dedin: Jesu Kristo gure Jaunaren meritoakgatik, zeña Aitarekin batean bizi dan, ta erreñatzen dagoen sekula sekula guzietan. Amen».

Oiek dira, Kristaua, Eleiza santak Jainkoari zure anima agintzeko egingo dituen Orazioak, edo Errekomentazioa: eta zu, berak nai due-nean, onela illko zera: puntu artan bertan mundua zuretzat, eta zu munduarentzat, biok batean akabatu zerate. Azkeneko asnasea Jainkoaren grazian ematen badezu: o zer ditxa, zer gloria bizia! Zu ill, ta Sazerdoteak esango du.

«Atozte Jaungoikoaren Santuak, Jaunaren Aingeruak bidera erten zaitezte, ta gorputz onetatik joan dan anima zuen eskuetan arrezazute, ta Jaunaren aurrean ofrezte zazute. Jesu Kristo gure Jaun deitu zaituenak artu zaitzala: ta aren Aingeruak Paraisura zaramazkitela.

»Deskansu betikoa Jainkoak zure animari diola: Ta betiko argia agertu dakiola.

»Orazioa. Zuri, Jauna, N. zure sierbo onen anima agintzen dizugu: mundu onenzat ill dan ezkeru, zuretzat bizi dedin: ta lurreko jolas, edo aragiaren argaltasunaz egin zituen pekatuak, zuk zure misericordia guziz andiaz barka zaiozkazu: Jesu Kristo G.J.ren izenean. Amen».

Eleiza Ama piadosaren, edo Espiritu Santuaren eriakiko kontu, ta gobernoa, da gauza alde guzietara miragarria: bere Ritual, eta Manual sagraduan Sazerdoteari, Sakramentuak ondo emateko, ta eria bere nekean ikusi, ta animatu, ta ondo iltzen laguntzeko ematen diozkan erreglak, ta ill arteraño egin bear duen guzia. Ala zuk Kristaua, zure fedea bizierazo bear dezu, ta erreberenzia andiaz Sazerdotearen itzak, Jainkoarenak bezala, artu.

Jaunaren Ministroak badakite ondo, ofizio, edo egiteko au, esan al baño andiägo dala: ta Jainkoaren adiskide guzien zela merezi, ta eskatzen duela: ta guk ez ikusiarren, Aingeruak, porfian bezala, ofizio ori, animen fabore ordu artan egiten dutela.

Fedeko gauza da, eriotzako, edo atzeneko pausoan animaren betiko suertea dagoela. Goien zerua, bean infernua, ta eria bien erdian dagoela:

Atzeneko pauso ori ondo ematen badu betiko ditxosoa glorian: gaizki ematen badu, betiko desdixadua infernua. Bizi arteko pausoak oker, edo gaizki emanarren, Jainkoaren graziaz, ta penitenziaz zuzendu, ta erre-media ditezke: baña azkeneko pauso ark, gaizki ematen bada, erremediarik eztu, zeren etzera biurtzerik ezduen.

Badakite ondo, Sakramentuetan, ta animen joia estimatuetan, Jesu Kristoren Odol preziosoa beren eskuetan dakartela. Onra, ta kargu guzia jainkozkoa, ta berekin karga andi, ta pisua duena, animen kontu ona guzien Jauna, ta Juezari emateko: *Rationem pro animabus vestris reddituri*. Hebr. 13. Badakite, beren zeloaren saria artzeko, Jaunak guzientzat neurri justu bat duela: ta aren ardiai, edo animai Kristoren izenean egiten, ta ematen dien neurri artan bertan Jesus Arzai onak berai neurritu, ta eman-go diela: *Eadem quippe mensura, qua mensi fueritis, remittetur vobis*. Lucae 6.



## BIATIKO SANTUA ARTUEZEKERO, ERIAK EGIN BEAR DUENA

Baldin gaitzak leku ematen badizu, askori bezala, azkeneko Sakramentuak, edo Biatiko, ta Unzioa artu, ta arrazoi andia da Jaunak ematen dizun denbora preziatu ura, berari graziak ematen, eta eskatzen, zuk aprobetxatzea. Ori egin diteke urrengo afekto, ta konsiderazioakin: ta osasunan komulgatzen dan Kristauak, ejerzizio santu au orobat irabazi andiaz egin dezake.

### BIATIKOA ARTU EZKEROKO AFEKTOA

«Ongi etorria zerala, nere Jauna, ta Jaungoiko maitea: ongi etorria zerala, nere Jesus biotzekoa: ta zurekin datozen Aingeruak milla ongi etorri ta milla esker on andi, fin gabe, nere ondoan, ta izenean orañ, ta beti ematen ordu onean dagozkizula. Amen.

»Baña, Jauna, au zer da? Zu zatoz nigana? Zu, ta nigana? Ai! Zu nor zera? ta ni nor naiz?

»Zu aita Eternoaren Seme bakar guziz maitea zera: Zu zeruetako Erregea, ta mundu guziaren Jabea zera: Zu lurra edertasunez, zerua argitasunez, Aingeru, ta Santuak betiko gloriaz betetzen dituzuna zera: ta zure Majestadearen aurrean Aingeru, ta Serafin guziak arrituta bezala daude ikaraz. Zer dezu, bada, nerekin zer ikusi?

»Ni eznaiz lurreko auts puska bat, ta loi itsusi laster lurak jan bear nauena? Ta gorputzean baño, animan ere itsusiago nere pekatuakgatik: ni eznaiz pekatari galdu bat? Ni eznaiz zuzaz azturik, zu ofenditzen, eragabeko, nere gogoen ondoren bizi guzia igaro dedana? Ni munduko pekataririk andiena eznaiz? Ala da egia: bai.

»Nola bada, au onela izanik, Zu ni ikustera, onratzera, ta erregalatzera zatoz nere etxera, ta nere biotzera?

»O Ontasun paregabea! Zure Justiziaren aserrea, ta nere kulpak merezi zuten kastigua, azkenik onetan paratzen da? Onen laster, onen erraz nere ofensa guztiaz zure miseriakordia aztutzen da? Eta zure Ontasun au nik neregan ikusi, ta noren kontra ainbeste pekatu egin ditudan, eta nere biotza erdi bi, edo milla puska egingo ezta?

»O nere Jesus guztizko ona! O zure amore, ta nere ofensai dagokien egiazko, ta amoriozko damu bat nork lukean! Zure amorioagatik guziaz

damu det. Zuk dakizun, ta naien dezun bezala, niri ondoen dagokidan damu, ta propositu amorezko bat arren indazu.

»Zu nigan ikusi, ta damuz, ta pozez nere biotz au urtu bedi: damuz, zure Ontasuna ofendituagatik; eta pozez, gaur niri zuk egin dadazun mesede onegatik.

»O Jauna andia! Nere begiak iturri bi egizkitzu, negarrez biotza desegiteko, zeren Zu ofenditu zaitudan.

»O nere Salbadore, ta Aita gozoa! Zu nigatik zerutik etorri, ta ogei ta amar urtean, ainbeste nekeren azpian ill arteraño nere billa ibilli ziñan: ta zure odola, ta bizia nigatik eman baño len, amore guziaren Sakramentuan onetan, nik Zu artzeko, ta Zuk ni zurekin bat egiteko gelditu ziñan O zure amorearen indarra.

»O! zerekin Jauna, edo nola onenbeste amore, ta fabore pagatuko dizut? O! zure borondate, ta gustoa egiten erakasi, ta lagun zadazu, ta orduan zorionekoa izango naz.

»Ona, Jauna ni: ona zure eskuetan: ona prest, zure borondate beti egiteko. Zurea naiz bertatik, ta zurea beti izan bear det, ta izan nai det. Nizaz, naizuna egizu. Mundu onetatik orañ eraman nai banazu: zurea naiz, ta kontentu naiz: izan bedi, ta egin bedi nigan beti zure borondate, neretzat onen dana.

»Baldin pena, ta nekeen artean onela, edo bestela iduki nai banazu, zure borondate egin bedi, ez nere. Oiean egun, edo osasunaz ibilli, neretzat guztia bat da, zure gustoa bada. Zure eskuetan obeto daukat guztia, ta or uzten dizut. Nere bizia, ta naizan, ta dedan guzia, nere ume, ta familia, edo etxeokak, zure kontura arritzatzu.

»O Jauna, ta zeñ ona, ta zeñ gozoa zeran! Zu bakarrik nere animarfen deskansua zera! O nere ondasun, ta konsuelo bakarra: nere pakea, ta nere gloria! Zurekin, ta zuri begira beti egon, ta atsedean nai det.

»Ai Jauna! Zu artu, ta zure Ontasun, ta Edertasun paregabea ikusi, ta lurreko gauza itsusiak gogoan jo, edo nazkatzen naute. Zure gustoa bada, al bait lenen emendik zugana eraman nazazu. Baña guzian, ta gauza guzian gañean, Jauna, zure borondate egin bedi».

### BESTE KONSIDERAZIO, TA AFEKTOAK

«O Jauna guziz miseriakordioa! Eznekien nik, ta ondo ezagutu ezdet, orañ bezala, pekatari galdu beren biotzeko damuaz zugana biur-





tzen diranentzat, zeñ amorosoa zeran! O nor munduko pekatari itsu, ta gortu guziai deadarrez adierazi liezakean, zugana biotzetik biurtzen diranak zeñ amore andiaz artzen dituzun! Ta zeñ ditsa andia dan, onela zure grazia, ta amorioan, zure adiskide egiñik egotea.

»O nere Jainko maitea, pekatari zu billatzen zaituztenentzat zeñ beraa, ta gozoa zeran. Ai! Ta denbora batean, orañ bezala, Zu ezagutu bazindut, Zu ofenditzetik zeñ urruti egongo nintzan! Baña leku ematen didazun ezker, nere igaroko utsegiten eragabeak erremediatzeko, nere biotza; zure amorez, damuzko, ta penazko itxaso bat egin bedi.

»O nere Jabe maitea! Ta sekulan ofenditu ezbazindut! O beti zu amaten bizi izandu baninz! O beti zure adiskide egon baninz.

»Ta ni izanik añ itsu legegabea zuretzat, Zuk ainbeste amorio erakutsi didazu! Niri onenbeste nai izateko, ta ni onela billatzeko, zer gauza on nigan ikusi zenduen? Ai Jauna! Ezerez, batere ez, nere esker gaitzo, ta pekatuak baizen. Argatik guzia zure Ontasun fin gabe, ta niganako zure amore paregabeak eragin dizu.

»O Jaun andia! Kriatura guziak alabatu, ta bedeikatu zaitzatela beti, ta betiko! Onetarako zeruari, tga lurrari, Eguzki, illargi, ta izar guziai, ta beste zure eskuetako gauza, ta obra guziai nere biotzera deitzen diet: diranak zu alabatzera, ta amatzera konbidatzen ditut: zure Korteko Aingeru, ta Santu beti orretan daudenak: ta guzien gañean Amandre Birjiña Maria, zure Ama maite, guziak baño maiteago dezun, ta zaituena.

»Zuk, bada zuk kriatura guztien Erregiña: zuk nere egiteko, ta egin bear andi au zure kontura arrezazu. Zuk iñork ere baño obeto, ta zure Semeari ondoen dagokion bezala, ta zuk bakarrik dakizun era artan, nigatik kunpliezazu: bera nigana etortean egin didan miserikordia, ta faborerik andien onezaz betiko eskerrak, nere partez, ta izenean emaiozkatzu: ta bidez, Bidezko pobre onentzat eskazaiozu, Eternidade guztiaren biderako bear ditudan grazia, ta indarrak Komunio santu onetan eman dizaizkidala: gero beti zurekin batean bera ikusi, gozatu, amatu, ta alabatzeko zeruko glorian. Amen».

## OLEAZIOA ARTU EZKERO KONSIDERAZIOAK

Eri asko illzer daudenak, ta erremedio gabe, orregatik ere txit beregan egon oi dira: eta arrazoi da, oiek denbora ori txit ondo estimatu, ta apro-

betxatzea. Ala Oleazioko Sakramentua artu, ta Sazerdoteak, edo irakurten dakien batek, ezperen eriak bere buruari esan diozake modu onetan.

«O zeñ ditsosoa zeran, Kristaua, ordu onetan! Zenbat itxaso zabal orietan, zenbat leorrek bazter orietan egunoro illtzen dira, Sakramentuak artzeko ditsa au gabe. Zu, Sakramentu guziak arturik, Jainkoaren Ministroak, Kristau, ta adiskide onak dituzula, ta Jaunari zugatik eskatzen diotela, onen prest zaude.

»Onelako ditsa zerekin agatzen da? O zenbat zure Jaunari zor diozun! Ondo ezagun da, bai, asko nai dizula, ta zure anima asko estimatzen duela. Onelako señaieak ikusi ezegero, kontentu egon bear. Erraz, bada zere burua, borondate guziaz, ta osoro Jaungoikoari bere besoetan utziko diozu, aren borondate beti egiteko.

»Jesu Kristo gure Jaunari begiratu, ta erraz gaitzaren nekeak pazienziatz, ta beraren izenean eraman ditzakezu. Berdin, Jainkoak bialtzen duena, ala, edo onela eraman bear. Obe degu beraz Jaunaren izenean, ta amorez, orañ neke puska bat igaro, ta aren borondate egin, ta zeruko gloria betiko seguratu. Bere pekatuak pensatu ezker, nori gogoratuko zaio, edo nrok esan dezake, neke onen txiki, ta laburrak nola gaitzea daramazkien, andiak, edo geiegi dirala. Ori pensatzea da guzia gaitzea. Jaunari nai ezdakiola.

»Ea bada, anima gaitzan, ta fede biziaz gora biotza altxa dezagun. Begira ondo, Kristaua, pena, dolore, edo gaitza deitzen diogun au guzia, nondik datorkigun: ta neke, ta gaitz guziak gozatzeko, konsiderazio au sobra izango da.

»Enfermedadeko naigabe, ta pena guziak Aita amoros, ta Adiskiderik maiteenaren esku, ta borondatetik datoz. Geiegi nai degu, ta guk merezi baño geiago: ta beraien graziaz eramango ezin degunik iñoizere bialduko eztingu.

»Jesus onaren bizitzako gose, egarri, neke, izerdi, pena, tormentu, ta eriotzari begira diozagun: ta ori guzia zugatik zeñ amore, ta poz andiaz aren Biotzak, Aitaren borondate egiteagatik, eraman zuen, ta errazki batetik lotsatu, bestetikalaituko gera, gure nekeak poziz eramatera.

»Onen ondoren, ta bide onetatik, justu, ta Santuak, neke, pena, persekuzio, ta martirioakin igaro ziran: ta zerurako eztago beste biderik, zuk orañ daramazuna baizik.

»Itsu, itsuan bada, ta txit gogotik zure Aita onen besoetan, bere amarenetan aur txiki bat bezala, seguru jarri zaitte, eta biotzetik esaiozu: Nere Jaungoiko, ta Aita maitea, egin bedi nigan zure borondate: zure naia, ta nerea beti bat izango da. Obeto dakizu, ta nai dezu Zuk: baldin trabaju,



edo neke geiago eman nai badidazu, pazienza geiago arren indazu: orrrela guzian zure borondate gozoa dagidan, orañ, ta eternidade guzian. Amen».

Konsiderazio suabe, ta egiazko oiekin, edo gisa onetan Sazerdoteak, edo an dagoen batek irakurri, edo esanaz eria gozakaitz egonagatik, animatu, ta konsolatu bear da, ta geldika Jaunaren bendizioakin bera gozatu da, ta eskura etorriko da.

Baña osasuna dezun art4ean gauza oiek ondo irakurri, ta obeto piztzea bertatik, ordu artarako, ta merito andiagorako, zuretzat obe da: ta nere deseo ori bera da.

## ONDO ILTZEN LAGUNTZEKO AZKENEAN EGIN BEAR DENA

Eternidadeko biaje onetan eriari obeto laguntzeko, gauza bi zer esan, ta zer egin orañdik geratzen dirade. Bata Sazerdoteak Eleizaren ize-nean egin bear duena; ta bestea eriarekin daudenak, edo ari laguntzen diotenak.

Ta lenena tranze artan, ta zeruko bidean animak ondo zuzentzea, bere ordelko Ministro zelosoai Jainkoak zeñ ondo pagatzen dien, ta onetan faltatzen dutenak nola kastigatzen dituen, Jesuita biren ejemplo obeto adieraziko digute.

Aita Lonerek kontatzen du, Edmundo Augerio, bere denboran Franziaiko Erregeren Konfessore, ta animen zelo andiko Jesuita estimatu, eriotzako orduan zegoela: ta anima txit eder, ta txit asko bere alde bietatik agertu zitzaiozkala: ta zeruko milla erregalo, ta berri onen artean, zerutar eder oiek Edmundori esan zioten: Gu gera, zure Dotrina, ta konseju santuakin zeruko bidean sartu ginduzunak. Jainkoak bialtzen gaitu, ta poz andiaz gatoz, zure anima, orañ gloriara eramatera. Orduan Jainkoak Jesuita oni esan zion: Anima oriez gañera, Eleiza Sanatara beste berrogei milla hereje biurtu, edo konbertitu zituela: ta berri gozo oiekin zerura joan zan.

Gure Jacobo Hautinok dio, gure Sazerdote bat ill izan zala, ta beste Jesuita birtute andiko bati Jainkoak bialdu, ta gauza, edo be3rri on askoren artean esan ziola: Purgatoriotik libratu, edo irten zala; baña animak salbatzeko, bear zan zelo bizia, bizitzan zeren iduki etzuen, Jainkoak orren penan agindu ziola erriz erri munduko Probinzietan, animai ondo illtzen laguntzen, ta Aingeruen ofizio au egiten ibilli zedilla: ta bere konseju on askorekin ori egin zuela. Ah! Ta Jainkoaren pisuan nola gauzak pisatzen diran! Ah zeñ meea aria an iruten dan! Jainkoaren arpegia denbora artan guzia ez ikustea, Jesuita onentzat zer tormentu gogorra izango zan. Tom. 3 pag. in 116.

Jaunaren ordeko Ministro zerukoak: zurekin det: begira ondo, Aingeruen ofizio au lurean nola egiten dezuten. Animen zelo ori baldin kamuztu, ta oztu bada, ejemplo oiekin, ta Jainkoaren kastiguaren bildur, tra sariaren esperanzarekin berotu, ta zorroztu bedi. Jesu Kristoren ejemploa ikusi, ta gure animen salbazioagatik zer egin, zer eman ta zer eraman zuen, ta nor animatuko ezta animak gatik, ta bakoitza bereagatik, edozeñ



gauza bizi egitera, izerdiak ematera, ta nekeak eramatera? Gero uste degun gloriari begiratu, ta gure neke guzia zer da? Egiaz, ezer ez.

Orañ bada, Sazerdote Jaunak, Jainkoaren Espirituaz gobernatzan dala, ordu artarako egokien diran Konsiderazio, ta Afekto labur asko, ta era askotara emen arkituko ditu, bere denboran ondoen datozenak eriar berak esan, ta modurik onenean eragin diozazkan.

Aingeruen ofizio au artzen dutenak badakite ondo, guziak batean, ta ez deadarka, ta ez presaka, edo itotzen bezala, esan, edo eragin bear ezdirala: ez bada pazienza, ta prudenzia andiaz. Eria estuan dagoenean, burua argala egoten da: ta ala soseguz, ta gelditxo: pausakin, ta aldizka, eriar afekto orietan egoteko leku ematen zaiola: noizen beñ zerbait esan, eta beregan, edo bere biotzean ori esaten, pakean utzi bear zaió.

Eliza Santaren Orazio eder batetik asiko naiz, ta Sazerdoteak Santo Kristoa eskuetan artu, ta eriar erakutsi, ta Eleizak dion bezala adoratzan bear dio.

## **ELIZA SANTAREN DEBOZIOZKO ORAZIO, TA JESUSEN PASIOKO ARTIKULO, TA PAUSOAK DITUENA**

Santo Kristo adoratuaz esaten du: «Adoratzan zaitugu, Kristo, ta bedeikatzen zaitugu. Zeren zure Gurutze Santuaz mundua erredimitu zenduen.

»Orazioa. Jaungoiko miseriakordioso, mundua erredimitzeagatik, jaió, ta zirkunzidatu nai izan zenduena, Juduen artean erreprobatua, Judas traidorearen laztan falsoaz entregatua, sokakin lotua, gaitz gabeko bildotsa bezala eriotzara eramana, Anas, Caifas, Pilatos ta Herodesen aurrean gaizkiro lotsa andiaz agertua, testigu falsoaz akusatua, azotetz, txistuz, ta afrentaz bete, aranzaz koroatua, masallekoz desonratua, kañaberaz eritua, arpegia tapatua, soñeko gabe utzia, iltzeaz gurutzea josia, ta gora jasoa, lapur biren artean ifiñia, beazun ta binagrea artuerazoa, ta lanzaz eritua. Zuk, Jauna, zure pena santu oiek gatik, zeñak ni pekataria gogora dakarzidan, ta zure Gurutze santu, ta eriotza gatik, libra nazazu, edo N. eri au librazazu, infernuko penetatik, ta lapur on, zurekin Gurutzean zegoena, eraman zenduen lekura, eramanazazu. Amen».

### **ONEN GAÑEAN KONSIDERAZIOAK**

«O nere Kristaua: zure penetan egiazko konsuelo a arkitu nai badezu, Jaun amoroso oni ondo begira zaiózu. Zure Mediki zerukoa, ta erremedio bakarra au dezu: esan ditugun onen pauso, ta pena guziak sinistu, ta adora itzatzu, ta zure anima bere erregaloz beteko du.

»Mediki onen amorioa ondo pisaezazu, ta zure animako miñak, eta gaitzak sendatzeko, begira zer penak, ta nola erremediorik samiñenak berak artu zituen:.

»Begira, nola zure amorioak Gurutzean josirik, odolezko negarraz, ta biotzeko deadarraz Aitari zure barkazioa eskatzen, tormentuz alde guzietatik beterik il tzan.



»Begira, nola bere besoak zabalik dauzkan, pekatariak artzeko, ta baldin zu biotzeko damuaz beregana biurtzen bazera, zuri amoriozko laz-tan gozoa emateko. Begira nola burua makurturik zuri deiez dagokizun.

»Begira, nola bere bular, ta Biotz sagradua idikirik daukan, eriotza-ren bildur, ta etsaien tentazioetatik, zuk beragana iges egin, ta beregan zu artu, ta seguru gordetzeko.

»Bere gorputzeko llaga, ta eridak zenbat diran, beste ainbeste dei, ta deadar ematen dizkitzu, onen amoreak diola: Atoz, anima nerea, atoz nigana. Zurea da kulpa; baña nik artu det pena. Baldin zure pekatuen kargak, eriotzaren ansiaz batean estutzen, ta azpian artzen bazaituzte; atoz nigana; nik guzien barkazioa eman, ta arindu, ta konsolatuko zaitut. Ezdet, ez iges egingo zure aldetik; baña nola iges egin nezake, baldin zuganako amorioak oñak, eta ekuak onela lotu, ta josi badizkit?».

Konsiderazio oiek guzienak San Agustin batenak dira.

O animaren zorioneko ditxa! Ta bere Jabearen onelako itz gozoak aditu ezker, nor animatuko ezta? Ta onelako Jauna ofendituaz, nori damuko etzaio? Ea bada nerekin batean biotzetik esaiozu.

## KONTRIZIOZKO AFEKZIOAK

«Ai nere Aita guztizko ona! Zer eranzungo diot nik zure amoriozko deiari? Aitortzen det, Jauna, ta lotsa andiaz, zure Semearen izenik merezi ezdedala, bada zure begietan, ta nere zeruko Aitaren kontra pekatu egin det. Ai! Damu det milla bider, zu ala, ta ainbeste bider ofendituaz! O damuz, ta zure amorez nere biotza bertan puskatzen, ta erdi bi egiten baliz.

»Ez arren, Jauna, nere kulpai begiratu: infernua oriekatik merezi nuela ezagutzen det. Begira bai, zure Ontasun andiari, nizaz miseriordia idukitzeko.

»Zure begi garbiak, nere kepatu loietatik kenitzatzu, ta zure amore, ta piedadeari begiratu, ta diranak barkaz zaizkidatzu.

»Ea Jauna: zure miseriordiazko begiakin nere anima galduari begira zaiozu, ta orrela salbatuko naiz. Nere Salbadorea zera: izan zaite ordu onetan: ta zure izen santu, gurutze, ta pasioagatik, orañ etsaien tentazio-etatik libratu, ta salba nazazu. Nere Jesus ona: zure Biotzean betiko sartu, ta zure grazian gorde nazazu.

»Zeruko Aita maitea: Zu guzienan zera guziz ona. Ni naiz guzien bearrena: zure Ontasuna non erakutsi, ona nigan non dezun. Artzai ona egiaz Zu zera: ona bada ni zure ardi egiaz galdua. Ardi galdua zure sor-baldan artu zenduen, edo nere pekatuak zure gañean. Galdurik ibilli naiz ni: arren, Jauna, zure artaldi, ta zure etxe santura biurtu, ta betiko zure grazian artu nazazu.

»Nerea da kulpa, Jesus ona: ainbeste ofenditu zaitut. Ai zori gaizto-ko kulpak! Baña zer egin al dezaket? Guztiaz det damu, Jauna: diranak zure oñetan konfesatzen ditut, zure amorezko su bizian erre, ta desgin ditean.

»Zugan daukat nere esparanza guzia: ta bere pekatuen damuaz zugan esperatzen duena, iñoizere galdu, edo konfunditu izan ezta. Peka-tari andi askori barkatu diezu: miseriordia ori bera nerekin egingo dezu.

»Ai Jauna: zugana onen berandu etorriaz damu det! Baña alere bada-kit egiazko damu, ta proposituaz zugana biurtzen, edo datozen pekata-riak, zure piedadearen atea beti zabalik arkitzen dutela. Ona bada, zugana non natorren, edo zure Ontasunak non nakarren.

»Zure amorioak kaburik ezta: fin gabea da zure miseriordia, niri barkatzean, zure ontasuna ikusten da. Argatik ni kondenatzea, nai ezde-zu, ezpada ni salbatzea, ta Zu ikusteko, Zu amatzeko, Zu gozatzeko zure gloria ni betiko eramatea. O Jauna, ala izan dedilla. Amen».



## AMA BIRJIÑARI AFEKTOAK

»Birjiña Maria, gure Jaungoiko, Salbadore, ta Amore ederraren Ama maitea! Zu zera pekatari tristen miserikordiazko Ama.

»Gurutzean oñean zure Semeari begira dolerez beterik zeundean, berak pekatarien Ama egin zinduen. O zer konsuelo, ta zer ditxa paregabea gurea: Zu bezalako Ama zeruan idukitzea! Zu zera guretzat zeruko Atea, ta zugana datorrenarentzat beti idikia.

»Egia da, nere anima pekatuaz loiturik ikusi, ta lotsaz, ta damuz beterik zure begietara allegatzen naiz. Baña zugan Erregiña andi, ta Amanderrik onena, nere uste osoa, ta segurua daukat. Zure mantu pera, zure anparora nator nere erremedioaren billa.

»Ama guziz maitea: arren zure begi eder oriek biurtu itzatzu nigana. Nik ezdet ori merezi: ala da egia; baña Jesus zure Semearen Biotzeko amorioak ori merezi, ta ori eskatzen dizu: ta aren pasio, ta eriotzagatik, Zuk zure balio andiaz, arekin nere artean bitarteko gozagarri izan bear dezu.

»Ordu onetan iñoizere baño zure bearrago naiz. Zure Biotz beraa, ta begi piadosoaz begira zadazu. Miserikordiazko Ama izan zaite neretzat. Begira niri: etsai gaiztoen artean estu nabil: oien tentazioetatik libra nazazu. Zu nere fabore zerala, zu nerekin zaitudala, aien bildur eznaiz.

»Ezer nik merezi ezdet; baña zure Biotzeko Semearen odol preziosoagatik; ez erren, Andrea, ni orañ desanparatu. Sekulan aditu ezta, ta ez adituko, egiaz zugana biurtu, ta zuzaz baliatu danik, anparo gabe gelditu dala; ona bada ni guztiz bearra, biotz guztitik zugana nator, zugan nere esperanza osoa daukadala.

»Eriotza, ta eternidade guziarekin burruka, ta pelean ikusten nazu: lastima zaite nizaz, Ama guziz beraa, ta gozoa. Nere bildur, ta neke samin guztia bigundu, ta gozatuko dira, Zu nere fabore bazera.

»Ea bada pekatarien Ama, anima triste onegatik zure Seme bedekatuari erregu zaiozu. Zuk au egiten badezu, seguru nago, pozik ta amore onez, Zu bezalako Ama, bera bezalako Semeak enzungo duela. Itz egiozu, bada, nere Bitarteko bakarra, ta esaiozu, ni bezalako pekatariak salbartzera etorri zala mundura.

»Zu zera gure argia: argiegidazu. Zu zera gure pakea: animako pakea indazu. Zu zera gure konsolatzalea: nere anima konsolaezazu. Zu zera mundu galduaren erremedioa arkitu, ta agertu zenduena nere anima erre-

mediezazu. Zu zera zure Seme maitean gure Salbadorea eman ziñiguna: izan bedi bada nere Salbadorea: ta ni zugatik salbatuko naiz.

»Badakit, Esperanza nerea, zure Biotzeko erruki amorosoa niganaño zabaldu dana. Zuk, zure Semeak bezala iñor kondentatzea, nai ezdezu; bai-zik guziok salbatzea. Zure bular gozoak zure Semeari zuk erakutsi ezkerro, aren aserre justua bereala gozatuko da.

»Nere damua da, zure Semea, ta zu ainbeste ofenditu, ta aserratuaz. Baña guziaz damu det, bera danagatik. Damu det biotz guztitik, Jaungoiko añ ona ofendituaz. Zuk, zuk pekatu guzien biotzeko, ta egiazko damua, ta guzien barkazio oso osoa alkanza zadazu.

»Zu zera andre guzien artean bedekatua, Jaunaren graziaz, ta doaiez bete: zu graziazko, ta miserikordiazko Ama: ona ni desditzaz beterik galdua, anpara nazazu, orañ, ta beti Jainkoa amatzeko».

## SAN JOSEF GLORIOSOARI AFEKTOAK

«O nere Santu gozo, agonian, edo iltzeko tranzean daudenen Bitarteko seguru, ta poderosoa, ta lagunik onena! Zu bear zaitut ordu onetan nere buruko aldean. Eskeko pobre, ta eriotzako ordu estu onetan, zuri deiez dagoen anima triste oni begirazaiozu, ta anparaezazu.

»O nere Josef santua, ta Santu guzien artean txitez doatsua, ta guzien gañean zorionekoa! Zu bakarrik zera paregabekoa, ta gizonen artean bigarrenik ezdezuna. zu gure Jaungoiko guzien artetikodun dana, gure esaeran, zure zordun dezuna.

»Jainkoari guziok zor diogu, ta zuri guziok zor dizugu; ta bai ta Jainkoak berak ere. Bada zure neke, ta izerdiakin, nekazariak bezala, Jainkoaren Semeari, ta Amari jaten eman, ta bizitzen lagundu ziñien! Laguntzadazu niri orañ, nere anima betiko bizi dedin.

»O Josef, bizitzan, ta eriotzan Santu guzien ditxosoena! Bada Jesus, ta bere Amaren aldean bizi izan ziñan. Zu Jesus onaren, ta zu Birjiña Ama zure Esposa egiazkoaren gozorik, ta atsegiñik andiena ziñan lurrean, ta zera zeruan. O zer konsuelo dedan onetan.

»Amak Semeak kanpora, ta Semeak Amaren urrena, Zu zaituzte zeruan, ta lurrean kriatura guzien gañean geiena estimatzen, ta amatzen zaituztena. O zer esperanza daukadan nik onetan.

»Zu eriotzan, bizitzan bezala, besterik ez bezala, ditxosoena izan ziñan: bada Jesus buruko aldetik, ta Maria Birjiña zure oiaren oñetatik, zinduela zure espiritu doaiez, graziaz, ta amorioz bete Jesus onari bere



eskuetan eman ziñion, ta onek bere Biotzean artu zinduen. O zer bizitza, o zer eriotza! o zer gloria bizia.

»Ditxa, ta fabore, esan al baño andoago oiekgatik, erregutzen dizut, nere Aitarik onena, ta gozoena, nere eriotzan nerekin arki zaiteala. Zure Esposa santari, ta aren Semeari zure izerdiak erakutsi zaieztezu: eta Amak bere Seme maiteari bere bular gozoak erakutsi, ta biok nere pekatuen bar-kazioa segurazazute.

»JESUS, MARIA, ta JOSEF orañ, ta beti nere biotzean izan diteala. JESUS, MARIA, ta JOSEF, San JOAQUIN, ta Santa ANA:nik entregatzen dizutet nere anima, ta dedan guzia, ta ni naizana. JESUS, MARIA, ta JOSEF, JOAQUIN ta ANA: nere anima salbatzeko atozte guziok nigana. Amen».

## SAN MIGEL, TA BESTE AINGERUAI AFEKTOAK

«Zeruko Espiritu eder guzien Agintari San Migel glorioso, ta Eliza Santaren, ta animen Defensore poderoso: atoz laster, non zera? Zure Aingeru, ta Lagun santuakin atoz nere aldera: orañtxe da denbora: len Jainkoaren gloriagatik bezala, orañ beraren amorioagatik, zuk, eta zure Lagun santuak Lucifer, ta aren deabru guzien kontra, ta nere fabore pelezteko.

»Jaiki zaitez bada, San Migel animen Adiskide, ta Bitarteko andia, ta ots egizu len zeruan bezala; orañ emen: NOR JAINKOA BEZALAKO-RIK: eta orrekin deabru guziak iges emendik aienatu, ta ondatuko dira.

»Anima fiel guziak, Jainkoak zuri agindurik, zure kontura gaude, zuk gorde, ta anparatzeko: zure eskuetatik Jaunaren aurrean, ta aren argi eder artan presentatu, ta agertu bear degu: ona bada, nere anima zuri deiez, zure zai, zure begira non dagoen.

»Ama Birjiña, San Josef, ta Aingeruakin batean, arren alkaza zadazu Jaunagandik fede bizi, esperanza firme, ta amorio santu irazaki bat, nere pekatu guzien egiazko damu, ta propositua, Jainkoaren ontasunagatik, nere anima garbiro zure eskuetan emateko.

»San Gabriel Aingeruen artean Jainkoaren indar miragarria, zure erremedio, ta salbaziorako Ama Birjiñari berri onak ekarri ziniozkana. Ona anima triste bat zure berri onen bearra daukana. Zure deiez nago: lagunzadazu, ta tentazio guzietatik libratzeko indarra indazu.

»Zuruko Mediki San Rafael mundu onetan Bidezko dabiltzanen Lagun fiela: arren lagunzadazu jornada, ta tranze onetan zeruko bidea

utsegin ezdezadan. Itsua nago: zeruko argia indazu, eriotza on batekin biaje au ondo egin, ta arpegiz arpegi Jainkoa ikustera zurekin igo nadin.

»Aingeru Guardako, Jainkoak seinalatu, ta nere zai, lagun on leiala bezala, pauso guzietan ibilli zerana: atoz zu ere, atoz, ta pausorik estuen onetan zaitu, ta gorde nazazu, nere animaz kontu ona emateko.

»Zu, ta beste Aingeruak Jainkoaren borondatea gure onerako beti egiten ari zerate, Ai! Nik ere ori beti egin banu! Zure abisoak artu banitu, ta Zuri beti begiratu banizu nere ondoan gau, ta egun! Ai! Ta nolakoak, ta zeñ bestelakoak nere pausoak, itzak, eta obrak izango ziraden.

»Baña ezagutzen, ta aitortzen det, ta guziaz damu det. Zuk beste Aingeru, tga Santuakin, lagundu bear didazu, Jaunaren misericordia arkitzeko.

»Patriarka, ta Profeta Santu Jainkoaren argiaz, ta birtutez jaziak! Apostolo santu, Jesusen Dizipulo, ta munduaren Maisuak! Martiri zuen tormentuaz zeruko Koroa irabazi zendutenak! Dotore Jakinsu Eleizaren argi andiak! Konfesore humill, ta penitenteak! Birjiña zeruko Erregearen Esposa garbiak! Zerutar guziak batean, atozte nigana, ordu onetan ni anparatzera. Jaunari eskazaiozute nere anima beraien graziaz, ta zuen bitartekoz, zuen lagun zeruan betiko izan dedin. Amen.

»Santa Barbara, Jesus miatearen Esposa garbi, Birjiña, ta Martiri miragarri, eriotzako orduan daudenen konsolatzallea! Ona, Eleizako ditxa andiaz arturik, zure anparoaren begira non nagoen. Laguntzadazu, nere bitarteko gozoa ordu onetan Jainkoaren amore santuan eriotza on bat egiteko».

Emen bakoitzaren debozioko Santuai eskatzen zaie.



## FEDE, ESPERANZA, AMORIO, TA KONTRIZIOZKO AKTOAK

Esango diran urrengo akto, edo afektoak Sazerdoteak erioari eragingo diozka orañ, edo ondoen deritzanean. Baña bearrrenak, eta meritorik andienekoak beti dira Fede, Esperanza, ta Karidadeko, edo Kontriziozkoak, gisa onetan.

«O mieserikordiazko Aita, ta kosuelo guztiaren Jainkoa! Nere animako begiak argi itzatzu, eriotzako illuntasunaren lo pisuan erori, edo sartu ez nadin. Zure fedearen argi golpe andi bat indazu, Jauna, zure gauza andi eskutatuenak, edo fedeko Misterioak, bear bezala, ta zuk naizun moduan, jakin, adoratu, ta sinisteko.

«Zure graziaz bada sinisten det, nere biotzeko fede oso guziaz Trinidadeko zure Misterio miragarriena: Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua: iru Persona distintoak. Esan nai det: Persona bata ez dala bestea, ez bada irurak bana. Aita dala Aita, Semea dala Semea, ta Espiritu Santua dala Espiritu Santua: ta irurak egiazko Jaungoiko bakar bat dirala. Jaungoiko bakar onetan, ta iru Persona oietan sinisten det: au konfesatzen, adoratzen, ta biotz guztitik gauza guziak baño geiago amatzen det.

«Sinisten det, Jainkoaren Semea, gu salbatzeagatik Gizon egin zala: MARIA Birjiñagandik jaio zala, padezitu, ta Gurutzean ill, enterratu, Linbora jatxi, ta irugarren egunean erresuzitatu, eta zeruetara igo zala: andik biziak, eta illak juzgatzera etorriko dala.

«Sinisten det, pekatuen barkaziorako Eleizan Sakramentuak dirala, Fede bat, Eleiza bat, ta Bateo bat dala, beste gauza Eleiza Santak erakusten, ta agintzen dizkidan guziakin, ta onetatik kanpora salbaziorik ez dala.

«Sinisten det Aita Jainkoagan: sinisten det Seme Jainkoagan: Sinisten det Espiritu Santu Jainkoagan.

«Esperatzen det Aita Jainkoagan: esperatzen det Seme Jainkoagan: esperatzen det Espiritu Santu Jainkoagan. Amatzen det Aita Jainkoa: amatzen det Seme Jainkoa: amatzen det Espiritu Santu Jainkoa: eta damu det nere biotz guztitik bera ofendituaz, bera danagatik.

«O nere Jaungoiko guztiz Santua, sekulan ofenditu ez bazindut! O zori gaiztoko pekatuak, ta pekatuen bideak.

«O Jaun guziz justua! Ez arren nerekin kontuetan sartu: bada zure begietan justurik iñor izan ezta.

«Ai Jauna! Itxasoko ondar, edo areak baño pekatu geiago ditut! Baña alere zure miserikordiaren aldean zer dira? Ezer ez. Zure miserikordia geiago, ta neurri ta kontu gabea da. O zer esperanza guzizkoa.

«O Jaun guziz ona! Ez niri, ta nere onari begiratu, ezpada zure onrari. Nik, orañ baño len, galtzea, ta kondenatzea merezi nuen; baña zure Ontasun, ta amorioak ni salbatzea nai du. Magdalena, ta beste pekatariak artu zinduen: ea bada, ona beste bat non datorren: zure amorioan ar nazazu.

«O zure amorioan betiko irazakia banengo! beti zu amatzeko, ta zure amore santuan beti erre, ta urtutzeko. Eternidadeko bide, ta azkeneko pauso onetan gorde, ta salba nazazu, Jauna, zu beti alabatzeko. Amen».



## ISPIRITU SANTUARI ESKARI, TA AFEKTO, ELEIZA AMA SANTAK EGITEN DIOZKANAK

«O Espiritu animen Konsoladore, amorezko Jainkoa! Atoz nere nekean ni konsolatzera: Atoz nere biotza zure grazia gozoaz betetzera. Atoz zure amorezko sua nigan betiko irazakitzera.

»Atoz pobreen Aita: atoz doaien emallea: atoz biotzen argia. Zure argi gabe nigan gauza garbirik ezta.

»Nere loiak garbi itzatzu: nere loertasuna eze ezazu: nere eritasuna sendaezazu. Nere gogortasuna bera ezazu: nere okerrak zuzenitatzu.

»Zu zera Konsolatzan guziz maitea: animaren etorkari gozoa, ta atsegiñ egiaz zerukoa. Zu zera nekeen deskansua, estutasunen atsedena, negarretan konsueloa.

»Zu zera Aitaren eskuieko Beatza: atoz, ta zuretzat seinalazazu. Zu zera amoriozko sua: atoz, ta irazkinazazu. Zu zera doai guzien Itrurria: atoz, ta zure ur bizi orrezaz betenazazu.

»Zu zera zazpi Doaien Jabea: atoz nigan, ta oriezaz nere anima janiezazu. Zu zera Aitak Semeari eskeñirikako Konsolatzallea, ta Semeak guri emana: atoz, zure argiarekin Aita, ta Semea, ta Zu, Espiritu Jaungoiko bakarra, emen ondo ezagutu, ta zure frutu, ta saria gozoakin, zeruko glorian obeto, ta betiko ikusi, adoratu, ta gozatu zaitzadan. Amen».

## AITA ETERNOARI JESU KRISTO BERE SEMEAREN MERITOEN OFRENDA GUZIZKO BALIOSOA

«Nere Jaungoiko guziz justua! Zure begien aurrean: nigan izan al ditekean errespetorik humillen, ta konfianzarik andienaz agertzen naiz. Zure atsegin, onra, ta gloriarik andieneko Ofrenda bat, bere parerik ezduena, nere kulpaa, ta pekatu andi guzien deskoturako, zuri presentatzera: ta oiek zure justizia aserratu duten bezela, aserre ori guztiro kentzeko, Seme guziz Santu onen bizitza, pasio, ta eriotzaren Sakrifizio onekin zure Biotz, ta arpegi seguru berratu, ta gozatu da.

»Begira bada ondo, Jauna: ta ondo baizik ezin begiratuko diozu. Nere pekatuen paguan ematen dizut Nere Semeak, nere amorez. Birjiña bere amaren sabelean gure aragiz janzi, ta bederatzi illabetean an egon, ta Belengo Portalean añ pobre jaiotzean, ta abereen artean egotean Zuri, Aita Eternoa, iduki zizun obediencia.

»Andik zortzi egunera, beren Zirkunzision, nere salbazioagatik isuri zuen odola, ta egin zituen negar preziosoak: bere aurtasunean, ta bere bizian eraman zituen otz, ta bero; gose, ta egarri; neke, ta izerdi guziak.

»Begira, Jauna, zure onrarako, egin zituen Orazio, barau, ta penitentzia guziak, ejemplo, sermoi, ta milagro guziak. Begira, nola azkeneko afarrian, esan al baño humildade andiangoaz, Apostoloai Oñak garbitu, ta nola guk elkar sufritu, ta amatu bear genduen erakutsi zigun. Begira, zure gustoa egiteagatik afori artan, Sakramentu Santu amorio paregabeaz, gau, ta egun gurekin egoteko egin zuen.

»Begira, jauna, zer laztan, ta negar gozoakin, Pasio, ta eriotzarako bere Ama maiteagandik despeditu zan: Getsemaniko baratzan nola iru bider Orazioa egin zuen: ta Judas saltzalle gaiztoaren laztan falsoa, zer pazienziatz artu zuen; ta etsaiak nola lotu zuten.

»Begira, Jauna, munduan izan dan gaurik illunen, tga desdixaduen artan eraman, ta igaro zituen neke, desprezio, lotsa, ta tratu, pensatu al baño gogoragoak: ta orduan, ta urrengo goizean Anas, Caifas, Pilatos, ta Herodes etxeetan, ta bide, edo kaleetan eraman zituenak: egun artako testimonio, afrenta, burla, golpe, bofetada, azote, koroa, ta burlazko Erregearen soñekoa.





»Begira, Jauna, Pilatosen eriotzako sententzia gogorra artu zueneko aren Biotzeko pena, ta pazienza: Bere Gurutzea artu, ta tormentuz, ta lotsaz beterik aren Kalbarioko Mendi santurañoko prezioso, ta pauso dolozeko tristeak: nere pekatuen karga pisuak Gurutze pean artu, ta auzpez, baratzan bezala odola zeriola nigatik zuri erregutzen iduki zuen amorioa.

»Begira, Aita Eternoa, zure Seme Kristoren arpegi ederra, orduan nere kulpakin itsusitua, ta nola iltze gogorraz Gurutzean josi, ta gora jaso zuten: ta an kedarrezko binagre, ta beazunezko edaria eman zioten: nola bere etsaiakgatik, ta nigatik, orazio egin, ta negarrez, ta deadarrez barkazioa eskatu zizun.

»Begira nola, bere Ama maitea guri Amatzat utzi, burua makurtu, ta bere espiritu zure eskuetan, Seme onak bezala, zuri bere Aitari bezala eman zizun.

»Ea, Jauna, kontuetara gatozen. Andiak, asko, ta txit itsusi beltzak dira nere kulpak; baña are andiago da zure Semearen Ofrenda, ta Sakrifizio au: onetan dago nere esperanza, ta seguridade guztia. Badakizu, zure Seme maitea Bitarteko, ta fiadore irten zala: orra bada, Jauna, nere pekatuen zorra: ta orra nere pekatuen pagu osoa, ugaria, ta ezin geiago alakoa. Arrezazu zure Semearen Sakrifizio au, ta kito, Jauna.

»Aita Eternoa, Jaun justua. badakit zure itzaren Jabe zerana. Bada, ezin faltatuko duen zure itz erreal Jainkozkoa da, zure Semearen Izenean eskatzen dizuguna, emango diguzula. Onek berak eskatzen dizu, niri barkatzeko: eta nik onen Izenean eskatzen dizut ori bera, ta ematen dizut Zure Semeagan pagu guzia, berak niri, ta neretzat utzi didana.

»Beraren Gurutze santua da nere zorren pagua, deabruen kontrako arma segurua: Gurutze santua da neretzat zeruko Atearen Giltza maisua. Onekin, ta onetan ill nai det: onetan zure Semeak bezala, onekin batean nere espiritua eman nai dizut betiko».

## JAUNGOIKOA IKUSTEKO DESEOAK

«O Nere Jaungoiko, nere Kriadore, ta Salbadorea! Jesus zure Seme onaren esperanza onekin, zure borondatea danean, ill nai det. O nere ditzazko zu ikusteko egun, eta orduan noiz etorriko da.

»Egarriak itotzen dan batek iturri fresko gozo bat nola deseatzenduen: ala Jauna, nere animak Zu betiko ur biziaren iturri gozoena. Leorrrak erdiratzen duen lurra bezala zure egiarriak dago nere anima. O Jauna, zeruko zure ur bizi ori indazu, beñ betiko ase, ta beste gauzen egiarria kentzeko.

»O edertasun anziñakoa, ta betikoa! Zure arpegi ederra noiz ikusiko det! Erakusdazu beñ, ta betiko naiz ditzosoa.

»Zeruko Errege, ta Jauna! Zure Jauregi eder, andi zabal orretara noiz igoko naiz? Zure Jerusalemgo Etxe, edo Erri eder orretan Eternidade guttirako noiz sartuko naiz?

»O! Nere gorputzeko, ta eriotzako kartzela onetatik noiz libratuko ote naiz, nere anima libre, ta ariñ zugana igotzeko.

»O! Gorputz onetatik libratzea, ta askatzea, ta nere Jesus onarekin betiko egotea, nola, ta zenbat deseatzendedan.

»Ai! Erbestetua nago lurrean, zerurako egiña nazala! Destierro au noiz akabatuko da? Erribestean kanta alegererik ezin kantatuko det. O zer pena! Zeruko Aingeruen Kanta berri gozo ura noiz adituko det?

»Ditzosoa, ta bienabenturaduak dira, Jauna, zurekin, zure Etxean, ta zure aldean bizi diranak. Sekula guzietan alabatuko zaitut, ta zure Izen santua konfesatu, ta alabatuko det.

»Zu ikusi, ta ez goserik, ez egarriarik, ez dolorerik, ez negarrik geiango izango da. Milla urte zure aurrean, atzo igaro zan eguna bezala dira. O zeñ pozik emengo nekeak eraman ditezkean, Zu ikusteagatik! O edertasun guzien egille derrena! Uso baten, edo Aingeruen egoak nork likukean, egaka bezala Zugana bereala igotzeko, eta Zugar betiko atsedeteko.

»Atoz, eriotza, atoz ordu onean: atoz nere kateak oiek askatzera, nere zentro, edo tokira ni noan. O nere Jainko, Ispillu ederra! Zure arpegiko argian zeñ gauza eder miragarriak ikusi bearra nagoen! Zu, zeran bezala, ikustea da Santuen gloria bizia. Zerk nauka bad ni linbo onetan? Ya ordua badator: betor ordu onean. O zer poza ondo iltzea.

»Ya iltzen naiz, Jauna: ezin itzegin det: moteldu, ta lotu da nere mingaña: nere begietako argia, ta biotza ere illundu da. Jauna, zure eskuetan



nere anima enkomendatzen dizut. Adios, nere aide, adiskide, ta ezagunak. Adios mundua. Guziok Jainkoari nigatik erregutu orañ lurrean, gero elkar ikusi dezagun betiko zeruan. Amen».

## ILLTZEKO ZORIAN DAGOENAREN AFEKTO BIZIAK

«Nere Jaungoiko guziz ona, Aita, ta Semea, ta Espiritu Santual! Zugan sinisten det; zugan esperatzen det: ta Zu gauza guzieren gañean amatzen zaitut.

»Aita Eternoa: zure Semearen Pasio, Gurutze, ta Eriotzagatik eriotza on bat indazu. Zure miseriordiaren bear naiz: orri deitzen diot ordu onetan, ta biotz guztitik.

»Nere argaltasunari zure piedadeaz begirazaiozu tranze onetan. Ai Jauna: damu det Zu ofendituaz, zeren Zu añ Ona zeran.

»Nere Jesus maitea! Nora biurtu, Zugana baizik, ezdet. Zure odol preziosoaz baliatu nai det, salbatzeko. Misericordia nizaz.

»Damu det, Jauna, nere kulpa guziaz, zeren zure ofensak diran: damu det milla bider, zeren gauza guzieren gañean zuri nai dizudan.

»O! Nere biotz au zure amorio garbiz irazakita balego.

»Infernuko etsaiak galdu nai naute ordu onetan. Ez arren, Jauna, ni utzi: libranazazu: nik zurea izan bear det. Zu amatzen zaitut.

»Pekataria izan naiz: egia da, Jauna. Baña nere gaitz guziak baño zure Ontasun, ta misericordia andiago da.

»Birjiña MARIA Jainkoaren Ama. Gurutzearen oñean zure Semearekin igaro zinauen pena ta doloreakgatik, laguntza dazu, ta zure mantupean betiko artu nazazu.

»JESUS: Jesus milla bider. JESUS, MARIA, ta JOSEF orañ, ta beti nere biotzean, ta animan izan diteala.

»Jesus nere Salbadorea: izan zaite nere JESUS, ta salbanazazu.

»San Josef bedeikatu gozoa. Non zera, nere Aita maitea? Atoz niri laguntzera, ta zure beso bedeikatuetan nere anima artzera.

»Aingeru Santuak, zuen begira nago: atozte laster ni libratzera.

»Nere animaren Egillea: zure eskuetan nere espiritua ematen dizut.

»Ama Birjiña MARIA: Ama graziazkoa, Ama misericordiazkoa, etsai gaistotik libranazazu, ta ordu onetan zugan artu nazazu.

»Aita Eternoa: ez nere desdixai begiratu ezpada zure Semearen arpegi, ta Biotzari. Argatik misericordia nizaz.

»Damu det, Jauna, Zu ofendituaz, Zu zeranagatik. Misericordia.

»JESUS: Jesus beti nere biotzean: Jesusegan nere biotz, ta amorio guzia.



»JESUS, MARIA, ta Josef, Joaquin, tra Ana, atozte guziok nigana.

»Jesus orañ, ta beti balia dakidala. Jesus izan bedi nere esperanza, nere konsuelo, nere amore, ta nere gloria bizia. Ori, nere Jesus, zure anima au: ori Jesus, zure espiritu au, expireitu guziakin zu beti alabatzeko, ta zure miserikordiak beti kantatzeko. Amen.

»Nere Jesus ona: zure Biotza idikizen duen ni or artzeko: or sartu nai det sekulako: or artu nazazu betiko.

»Sinisten, ta esperatzen det zugan: ta zugan nere amorioa betiko. Amen».

Onelako afekto bizi laburren artean, alegiñaz, ill bear da, Jaunaren Ministroak badaki, beñ batzuek, gero besteak, banaka, ta soseguz eragin bear dirala; iltzen dagoenari, biotzean oriek egiteko leku, ta atsedena emanaz: eta ondo aditzen ezpadu azkenean, ez belarrietatik, baizik buru gañetik Sazerdoteak eriarri itzegin bear dio, obeto adierazotzeko. Eta oñeraño da Iltzen laguntzeko Ejerzizioa.

## ERIAKIN DAUDENAK EGIN BEAR DUTENA

Gaitza luzea danean, askotan eria ikusten da etsarik, ta esan dan bezala ondo iltzeko prestatu rik. Erremediorik ezduenean, geldika badere, ill bear: luzaro irauten asko ikusten dira: ta onelako Kristaukin, denboraz, Jainkoak nai duen bezala, bnaliatzeko; aiekin daudenak, zer egin bear duten, esan nai det.

Lendabiziko abisoa da: ala etxe koak, nola eria ikustera datozenak, ori konsolatzeko, ta animatzeko, gauza onak baizik iñolako moduz esan bear ezdiote. Munduko jolas bano, alferrikako esamesak, gezurrezko ipui, edo kontuak, iñoren bizitza, ta aditzen diran desdixak utzi, ebaki, edo sustraietik atera bear dira, ta gaxoari orrelakorik ez eraman, edo kontatu: infernuko gauzak bezala, orrelako jolasak geienean, ta guzientzat gaitz andiak oi dakarzite.

Bigarrena: Jainkoaren bildurra duten Kristauak, era artan eria dagoenean, izango ez diran uste, edo esperanzakin engañatu bear ezdute, askok bezala esanaz: Oraindik sendatu, ta ara, ta onara joango zera: jaiki, ta onelako gauza egingo dezu: eta onelako beste erokeriak. Eta ori guzia, edolarik, Jainkoak nai badu, esan gabe. Orrelako gezurrak baño, obe da, fede, ta itz onekin eria animatzea, Jainkoari osasuna, konbeni bazaio, eskatzera, ta ezperen aren eskuetan bere osasuna, ta borondatea ifintzera. Beste ori guzia denbora gaizki, edo kalteaz galtzea da.

Eri asko gaitz luzean badakizu nola dauden? Bada orrela etsirik dagoen eri bakoitza erio bizia, edo bizitza illa dala deritzat: ta ala geldika badere beti desegiñaz dijoa. Zer probetxu bada orrelakoari egingo diote zure berritsukeria, gezur, edo munduko kontu eroak? Oiek aienatu bear dira. Orretako, ta gaxoakin bear dan bezala jarduteko, izketa, edo konbersazio santuen gaia, Dotrina, Ejenplo, ta Konsiderazio onakin eman nai dizut.

Guzien asiera izan bedi, ez nerea, ezpada Espiritu Santuaren konsejua: iltzen daudenak ondo ikusteko, edo illetako etxera joateko deia. *Melius est ire ad domum luctus, quam ad domum convivii.* Konbiteko etxera baño illetako etxera joan obe dala. Zergatik ori? Espiritu Santuak eranzuten du: zeren lutoko etxean gizon, ta andre guzien azkena abisatzen, edo ikusten dan: eta biziak, illa ikusi, ta gero zer izango dan pensatzen duen: *in illa*



*enim finis cunctorum admonetur hominum, et vivens cogitat quid futurum sit.* Onen gañean itzegiteko, guziak dakiten, edo jakin bear duten probetxuzko.

## ERIOZAREN GAÑEKO DOTRINA

Begiz ikusten diran gauzaz gañera, fedeko Artikulo asko Eriotzan ikusi ditzakegu. Aita, oriek zeñ dira? Lenena: fedeak erakusten digu ill bear degula. *Statutum est hominibus semel mori.* Jainkoaren Legea da, guziok ill bearra. Hebr. 9. Bigarren artikulua da: nola gauza guziz ziertoa dan, ill bearra: ala, ta añ ziertoa da, beñ baizen ill bear ezdegula. Eriotza ziertoa, ta bakarria.

Irugarren artikulua da: sinisten, ta ikusten deguna, jakin beñ ill bear degula, baña noiz, non, ta nola ezdakigula: *Nescitis diem, neque horam*, dio Jesu Kristok: Eriotzako eguna, ta ordua ezdakizute. Ill bearra badakizu: noiz, ta nola ezdakizu. Ill bear, ta gutxien uste danean betiko ill bear. Iru fedeko egia guziz arrigarriak.

Laugarren gauza da: Eriotzaren Legea guzientzat, ta pekatuaren ondorengo pena dala. Ala iltzen dagoen bat ikustean, deritzat, Jainkoaren justiziak sententzia emanik, borreroaren eskuetan bezala, erioaren atzaparretan, triste ori dakusdala: ta burruka desegin; ta munduko gauza guzientzat ezerezeza, eriotzak biurtzen duela.

Bostgarren gauza da: eriotza berez, ta beregan, pintatzen dan bezeñ gauza gogor, edo izugarria ezdala. Nola nai dala, eriotza bera egiaz, edo anima gorputzetik irtetea, puntu, edo instante batean igarotzen da: gero-koa, edo orren ondorengo da lana, ta kontua. Ala, egia esateko, zure eriotzaren baño, zure bizitzaren bildur geiago bear dezu.

Seigarren gauza, edo fedeko artikulua da: Eriotzaren ondoren, jaunaren Juizioa, ta bizitzaren betikoa sententzia dala: *Post hoc iudicium.* Eta sententzia ori eternidade ditzoso, edo eternidade desdixadu baterako erremedio gabe emango dizula. Oiek dira, eriotza mutuak gure gorputzeko, ta animako begietatik guziori erakusten dizkigun gauza ziertoak. Ta orañ orietatik zuk, eta nik zer atera bear degu?

## EMENDIK ATERA BEAR DAN FRUTUA

Eriotzaren alderago gatotzen, ta emen egia txitez izugarri bat modu askotn ikusi oi dana, gure onerako ikasiko egu, eta guzaz zer izan ditekean. Eriotza au askorenzat supitoan, bat batetan, edo beñgoan izan oi da ta orietatik asko ondo, ta beste asko gaizki iltzen dira. Batzuek ongi, zeren ondo bizi ziran, ta eriotzak pekatuan arrapatu zituen: ala da gauza jakiña, pekatari asko gutxien uste zutenean ill, ta kondenatu dirala.

Zer erremedio bada, Aita, edo zer konsuelo? Zurekin nerretzat beste erremediorik eztago, ezpada bereala, edo bertatik, orduan naiko deguna, egitea: esan nai det, bizitza berria, bizitza santua: onekin bildurretatik libratu, ta betiko seguratzten gera. Justu bat, non nai, noiznai, ta nola nai, beti ondo iltzen da, batbatetan illa geratu arren; zeren Jainkoaren grazian, Jainkoaren adiskide, Jainkoare Legea, borondatea, ta amorioa bere biotzaren erdian daukala, bere Jabe maitearen besoetan erortzen dan.

Pekatarri bat kontrara nonnai, noiznai, ta nolana, gaizki orrela dala iltzen da; zeren Jainkoaren desgrazian, Jainkoaren etsai, ta Jainkoaren Lege, ta amorio gabe, pekatua animan daukala iltzen dan. Pekatarri asko, justuak ere bai, Sakramentuak artzeko leku gabe iltzen dira. Beste pekatari asko, justuak bezala Sakramentuak arturik. Baña justuak, beti bezala, roiek ondo artu ta; ta pekatariak bizian bezala, eriotzan oriek gaizki arturik: ta bizitza nolakoa, eriotza alakoa.

Munduarekiko ikusten dan onetan eztago gure ditxa. Eriotzaren suertea bizitzatik geienean oi dator. Sakramentuak denboraz artu, ta Santo Kristo batekin negar asko egitean bakarrik eriotza ona eztago: lenagotik ditxa, edo desdixta oi dator, ikusi diran ejemplo askok erakusten digutenez. Ala Indietako Apostolo San Francisco Xavier bat Jentilen erri, edo basoan, eta arkaitzen artean, bakarrik, Sakramenturik gabe, nork lagundu etzuela, ta desanparaturik il tzan, baña aren anima Aingeruak zerura eraman zuten, ta Santu añ miragarri, nola mundu guziak dakien, Jaungoikoak egin zuen. Kontrara San Brunoren bizitzan kontatzen dan, aren lagun, ta Dotore famatua, Parisko errian, Sakramentuak arturik, lagun askoren artean il tzan; baña berak esan zuen bezala, kondenatu zan, zeren gaizki il tzan.

Ala lenago San Pablo Lenengo Ermitañoa bakartxorik bere eremu, ta arkaitzpena il tzan; ta aren anima, San Antonio andiak ikusi, ta kontantzen du, nola puntu artan, Santu, ta Aingeruen artean zeruan sartu zan. Kontrara, berrogei Martirietatik bat, edo oien laghuna, ainbeste Lagun Santuren aldean, fedean faltatu, ta gaizki ill, zeruko Koroa galdtu, ta kondenatu zan: eta atezai zegoena, jentila bazan ere, Martirien Koroak ikusi, Jesu Kristo konfesatu, ta Martiri il tzan.



San Alejo bat, alakorik munduan ezbaliz bezala, bere etxean, baña bere etxeoak aztu, ta utzirik, eskalapean bakartxorik il tzan; ta puntu artan aren anima zorionekoa Jaunaren gozo, ta gloria bizian sartu zan. Gure nekazaritxo pobre askorekin ori bera nereko igarotzen da. Bitartean, zenbat Erroman ilko ziran, ta orañ egunoro andietxe orietan, bere erregalozko oietan, lagun askoren artean iltzen dira, ta puntu artan infernuetan ondaturik, Luziferen oñazpian arkitzen dira! O Jaungoiko egiazkoa! O mundu gezurrezkoa! Ta au irakurten, edo enzuten zauden Krista-  
taua, orañ iltzen baziña, zure eriotza norako izango litzake? Zure anima nora joango litzake? Ondo ill nai badezu, Zure bizitzari begira zaiozu.

## ERIoTZA GAIZTO, TA ONAREN EJENPLOAK

Zelo andiko Misionero bat iñauteriako arrasalde batean eriotza gaizto, ta ustegabekoa predikatzen asi zan, ta esan zuen: bear bada zuetatik bat biar autsa artzera allegatuko ezda, edo lenago ilko da: ala ez da zer fiatu, ta ez ordu batean ere pekatuan zer egon. Gizon bat, txit estadu gaiztoan luzaro bizi zana enzuten zegoan: ta Sermoia akabatu, ta aren pauso txarren, ta pelgroaren berri ondo zekien lagun bat esaten asi zitzaion: ala fede, adkiskidea, egia andi, ta bearrak Predikadoreak esan baidizkigula: badakizu, gizona, infernuko lokaitz, ta pelgroan urliarekin zaudela: begira ondo, ta abiso onekin bide gaizto ori utzi, ta Jainkoana, eriotza datoren baño len, biur zaite. Baña gizon galduak, Predikadorearen, ta bere adiskide onaren esanak ezertan etzeukatziela: Ken oritik esan zion: oierio bada, Jainkoaren miserikordia andia dezu: Predikadoreak gu ikaratzegatik orrelakoak esaten dituzte. Baña orren laster, ta bereala ilko ez al gera. Orañ iltzeko, ondo ez nagoela badakit: baña ara aste santuan andre au utziko det, ta konfesio on bat egin, ta salbatu uste det.

Onela lagun utzi; ta etxera joan zan: ta orra non gau erdian, bere andre, edo demonio orren ondoan zegoela: Ai! Au zer da? Argi bat, urlia, laster ekartzu. Lasterka argiarekin biurtu zaneko, gelan sartzean: Ai estu illun bat enzuten zuen: Adio urlia: ta sartu, ta odoletan irabiaturik illa arkitu zuen. Ta aren anima? Orra puntu batean, andre, edo deabru baten alde tik infernuko guzien ondora. Orañ zure bizitza gaiztoan fia zaitez zu: etzerala bereala ilko: gero Jainkoagana biurtuko zerala: ark ere ori zion, baña biurtu etzan, ta pekatuan il zan: arka erremediorik eztu, zuk bai. Zure erremedioa da penitentzia bereala egitea, bizimodu berri santu bat bertatik asitzea, ura bezala uste gabe, ta gaizki ill etzaitean.

Eta orañ egia oiek aditzen, zenbat daude pekatu mortalean, ura zegoen bezala? Zenbaten ardura gabe, ta alakorik ezbaliz bezala, aren gisa, burla egin, ta geroko utzi nai dute? Zenbat pekatuan, ura bezala, lo egitera aisa joango dira? gau onetan, ura orduan bezala, infernuko illiti izango dira? O ondoren ikaragarriak, baña egiazkoak! Ark, orañ zuk bezala, etzion, gertatuko etzitzaiola? Orra, bada, nola gertatu zitzaion. Pekatu mortalean zaude, ura bezala? Bada demonioen leizazulo, edo tokia zera-  
de. Nork daki ari orduan bezala, gau onetna zuri anima aterako dizuten, Kristok Ebanjelioan dion gisa: *Stulte, hac nocte animam tuam repetunt a te.*



Jainkoak permiti ezdezala, baña zuri nai ezdakizula. Ara bizi santuaren saria, ta eriotza guziz gozoaren.

EJENPLOA. Au eskribitzen dedan eguna da Jesu Kristo zeruetara igo zan egun guziz alegrea, edo aren Asensio miragarriaren eguna: Ta Asensio eguneko lekuan bertan Ejenplo zoragarri au gertatu zan: ta ala Asenzioko aurreneko Sermoian, edo gaur bezala San Bernardino guziz debotoak kontatzen du. Jaun guziz noble, ta bere biziera santuaz are presuago bat izan zan, ta bere denboran, egunoro, ta Jesu Kristoren amorioz beteago: obrakin biotzeko amorio santua obeto erakusteko, deboziozko erromeria bat egitea pensatu zuen. Bear ziran gauzak prestatu, ta bere errespetoari ondo zegozkion lagunak artu, ta Jaun birtuoso ori Jerusalem, ta Erri santuetarako biajean jarri, ta Ontzi batean sartu zan.

Jaungoikoa, leorrea bezala, itxasoan bere biotzean, nola zeukan, ark ontzia gobernatu, ta Jesu Kristok gur salbazioko Misterioak obratu zituen leku, edo Palestinara txit ondo allegatu zan. Au Jaunari eskerran eman, ta bere deboziozko Pausoen Ejerzizioa obeto asitzeko, bereala, ta lenengo piedade, ta amorio guziaz konfesatu, ta komulgatu, ta prestatu zan. Nazaret deritzan Erri ditxosotik bere bisita asi zuen. Emen gure Peregrino debotoa, munduan sekulan egin dan obra, ta milagrorik aundiena, bere fede, ta amorioaz pensatzen jarri zan: ta nola Jaungoikoak, Aingeru San Gabriel Mandatari bialdu, ta Mari Birjiñari berri onak eman, ta Jainkoaren Semea gure aragiz janzi, ta aren sabel garbian Gizon egin, edo Espiritu Santuaren graziaz Enkarnazioko Misterioa obratu nai izan zuen: ta Ama Birjiñaren Baiezkoarekin Jesu Kristo aur txiki, ta Jaungoiko andiaren Sortze, edo Konzepzio adoragarria egin zuen.

Pensamentu onetan bere biotza zeruko argiaz berotu, ta Jaun deboto onek gure Jainkoaren ondo gabeko Ontasuna adoratzan zuen, ta gu pekatutik libratzeagatik Gizon egin; eta gure salbazioko Mistrion, guzien asiera, ta gure Osasunaren, ta Jakintasanaren Arbolaren zorioneko sustraia nola zan: eta lurrean au aldatu ezker, Jesu Kristoren beste Pauso, marabilla, pasio, ta Eriotza, berez bezalako Enkarnazioko Arbola onen frutuak ziarla.

Andik Belengo Portaltxora igaro zan: ta ezin erraz esan diteke, gure Erromes debotoak an igaro zituen zeruko gauzak: negar gozoz an biotza desegiten zitzaion, Jesus Aurtxo gozoak an egin zituen negarrak ikusirik: batean seaskan trosatu, ta etziñik, bestean bere Ama Birjiña maitearen besoetan begiratzen zion, ta bere animako milla musu, ta laztan aren oñ sagraduai eman, a Jainkozko Aur Jesus bere gañean iduki zuen lurra, ta autsa bere negarrakin naste milliskatzen zuen.

Belendik, ondo aspertu gabe Betaniara joan zan: ta an Jesu Kristo, Jordango ibaiean eranzi, ta San Juan Baptistaren eskutik bateatzen bere fede argiaz ikusi, ta gure Peregrinoa ere eranzi, ta Jordanen sartu zan: an bere burua garbitu, ta ur artatik edan zuen: Jesu Kristo, ta aren gañean usoaren figuran Espiritu Santua bazekuzan bezala, ta Aita Eternoaren deia: «Au da nere Seme txitez maitea, zeñean nere atsegiña dedan», aditzen bazuen bezala.

Betaniatik Eremura jarraitu zion: ta an Salbadoreari begiratzen zion berrogei gau, ta eguneko barau andia ateratzen, ta Satanasen tentazioak garaitzen, t agero nola Aingeruak janari miragarriak serbitzen, edo ematen ziozkaten. Andik Taboriko Mendi altura igo zan; ta an Jesus bere gloria, ta edertasun argian ikusi, ta adoratu zuen. Emendik Jesus bere Maisuaren ondoren Sion, atzeneko afaria egin zuen lekura joan zan. Bere animako begiaz Jesus belauniko bere Diszipuloai oñak garbitzen humilfadez, ta amorioz beterik zeritzan ikusten zegoela, eta gero bere Biotzeko naiera, edo kariño guziaren alarde egiten, ta Eukaristiako Sakramentuan bere burua, edo Jainkozko Gorputza ematen.

Andik Gesemaniko Baratza, edo Hortura jarraitu zion, ta bere biotza amorez, ta dolorez negarretan urtu zitzaion, Jesus amorosoa gure pekatuagatik odolezko izerditan, antsiaz beterik, zijoala begiratu, ta ikusi zuenean. Gero preso artu, lotu, ta Jerusalem eraman zutenean, aren ondoren diszipulo ona bezala, Pauso guzietan ibilli zan. Biotzeko pena gogor estuaz alde guzietara nola arrastaka zeramaten bere barrenean begiratzen zion: Anas, Caifas, Pilatos, ta Herodesen aurrean, azotez, aranzaz, txistuz ta burlaz beterik, Erri guztiak Barrabas baño gutxiago artu, ta eriotza eman nai ziola; azkenik sentezia Pilatosek eman, ta gure pekatuen karga pisua Gurutzean artu, askotan auspez eroriaz zijoala, nola Ama Birjiña bere Ama maitea dolorez guzia josirik topatu zuen.

Deboziozko Prozesio triste onetan Kalbarioko mendira igo zan, eta an Gurutzean iltze gogorrakin josirik gure egiatzko bizitza, edo bizitzarn frutua Arbola artan ikusten, edo kontenplatzen jarri zan. Jainkoaren Gorputz sagraduari, ta aren odolezko itueciari begiratzen zen. Ama Birjiñagana biurtu, ta aren Biotz ederra ezpata zorrotzaz josirik, ta penaz, ta lutoz beterik ikusi, ta gure Peregrinoari berea puskatzen zitzaion. Semeagana berriz biurtzen zan, ta zazpi Itzak onen aotik aditzen zituen, ta orietan erakutsi zigun amorio paregabea bere biotzean sentitzen zuen: iltzeko tranzean, ta geroenean burua makurtu: ta illik ikusi zuen. Ill ezkerreko lanzada eman ziotenean, giltza batekin idiki ta bezala, Jesusen Biotz amo-



rosoa ikusi zuen: ta Gurutzetik jatxi, ta Ama maitearen ezin esanalako pena, ta nola obi berri batean Semearen Gorputza sartu zuten.

Gure Erromesa ara joan zan ta begiak iturri bi egiñik, ta biotza pena gozoz desegiñik obian sartu zan, ta bere Maisuarekin an josi zan. Irugarren egunean berarekin piztu zan, ta Emausko Diszipuloakin, ta beste igaro ziran gauzak ikusi zituen. Berrogei garren egunean, Salbadorearekin Olibeto Mendira igo zan, eta nola Jesusen Aszentsioa leku onetan izan zan, aren oñ sagraduen señaileak ikusi zituen, ta amorio irazaki batekin biotza erretzen zitzaioa, milla bider negar, ta suspirioz desegiñaz, aien gañera erortzen zan. Gero bere jainkozko amorio guziaren inbdar, ta alegiñak puntu batean bezala bere biotzera beregandu, ta bildu, ta begiak, ta besoak zerura jaso, ta: O Jesus! esan zuen: O nere Jesus gozoa! Ya lurrean, non Zu billatu, nora Zuri jarraitu eztakit, Jauna. O Jesus maitea! O Jesus, nere Amore, ta nere on guzia! Nere, ta zure biotz oni arren emazioz, Zuri orañ zerura jarraitzea! Itz oiekin añ ta onen tiro andia amorioak biotzean egin zion, non golpe artan, bertan, ta beñgoan bere anima zerura bialdu zion, betiko an bere Amore ederra ikusi, ta gozatzera.

Bere Lagun, ta Kriaduak zori oneko amatzalle au illa bezala erorten ikusi zutenean, akzidente edo ustegabe onekin, Mediku bati lasterka otsegin zioten, ta onek ikusi ta illa zegoela esan zuen. Ta obeto juizioa egiteko, zerk ala Gizon ori ill ote zuen, aren biziera, umore, osasuna, ejerzizio, ta orrelakoaz galdetu zuen: ta esan zioten, Peregrino ori txítez jaun andi, berez manua, suabe, beraa, ona, ta gozoa zala, ta Ejerzizio santuetan, ta are geiago Jainkoaren amorean txit irazaki, ta ardore andikoa. Bada, añ seguru, medikuak esan zuen, geiegizko amoe orrek biotza erdiratu, ta bizia kendu dio: ta begiz egia au ikusteko, saietsa idiekierazo, ta amorezko biotz bizarro ori erdi bi egiñik, ta JESUS NERE AMOREA, eskribiturik beregan zeukala arkitu zan. Ta orra Amorioak, beste kausa gabe anima ura zerura bialtzeko, Eriotza onaren ofizioa nola egin zuen.

Santu asko amorioak onela akabatu ditu. Serafin umano, edo lurrean zeruko amorioak beste gizon, ta Jesu Kristoren antz, edo imajiña bizia, Jesusen Llagak artu ezker, San Francisco egin zuena, lurrean ozta bizitzan ta amorioak beti zeruan bizitzeko il tzuen.

Birjiña Santa Juliana, San Alejoren illoba, iltzeko zegoela, ezin argalez Komunioa artu, ta Sazerdotearen eskuetatik ostia joan, ta Santaren biotzera amorioak eraman, a amore santuak il tzuen.

Birjiña Santa Clara Montefalcori amorioak biotza erdi bi egin, ta gaur ikusten dan bezala, Trinitade guziz Santuaren, ta Jesus gure amorearen Pasioko señaile, edo insignia ederraz bete zuen.

## DENBORA ONDO PASATZEKO, BESTE KONSIDERAZIO SANTUAK

Nekazariak ondo iltzeko, ta salbatzeko, beste andi askok baño, zer egin gutxiago dute, edo aisago daude. Egia onen testigu ona da, ala bizitzan, nola eriotzan, San Isidoro Atxurlaria, Santa Maria dela Cabeza, bere emazte, Aldareetan Eleizak ifiñi duenarekin. Oiek Madriden beren bear, ta nekeakin, beren Nagusia, ta are obeto Jaungoikoa serbitzen, Korteko andi, ta Errege asko baño kezka, ta peligro gutxiagorekin, bizi, ta il ziran, ikusiko dezun bezala.

Baña Enperadore edo munduaren Agintari esan oi diranen Historiak esaten digutena gogora ekarri, ta egiak balio bear badu errazki esango degu, oriek baño desgraziatugorik, sartu, ta jaio eztala: orien biziera arrasatu, sosegugabe, ta zorigaitzokoak parerik eztu, ta orien eriotza mota tristeak ezin lastima gabe irakurri dítezke. Gaur Enperadore andi, ta biar esklabo billau ikusten ziran. Ta orregatik ere: O mundu zoro itsua! Ori begiz ikusi ta ere, Agintari orrela izan nai zutenak baziran. Gaur Enperadore bere soldadu batek txit kruelkiro bizia kendu: ta Erallea bera Enperadore egiten zan, edo zuten; baño oni biaramonean beste batek anima ateratzen zion, ta onela zijozzen, ta bata bestearen ondoren, asko infernuetara joan ziran.

Egia da, oiek Jentil itu, edo abere, Jainkoaren fede, ta gizonen lege gabe, orrela bizi, ta ill ziran. Nougo nekazaritxo prestu garbiak bere biziera, nekezkoa badere aienarekin trukatu luke? Nork aien aginde, edo asiera eroa aien azken gaiztoarekin naiko luke? Baña goazen Jainkoaren Jende, edo Pueblo maite, edo eskojituari ondo begiratzera. Oien Erregeak Jainkoaren Lege jakiñ, tas milagro andiaki zekustena, zeukaten: eta orrez batean biziera santu bat egin, ta salbatu bear zuten. Baña Errege orietatik zenbat ondo bizi, ta ondo ill ziran?

O kontu larri, ta arrigarria! Eskritura Santutik ateratzen deguna, iru Erreino izan zirala. Bata amabi Tribu, edo Jendeena, bestea Judako, ta bestea Israelko Erregeena. Lenengoan, Saul aurreneko Erregea kondenatu zan. David salbatu zan, eta Salomonez zer egin zan ezdakigu. Judako Erregeak, bost salbatu, amairu kondenatu ziran: ta beste biak nora ziran ezdakigu. Israelko Erregeak izan ziran emeretzi, ta emeretzia diranen kondenatu ziran. Ta Erregeiñak? O berri illun tristea! O zori gaiztoko andreak! Milla Erregeiña, edo askoz geiago Fedeko Libru santuak konta-



tzen dituzte; baña guzietatik alaxe bakar bat Jainkoarenik, alerik santarik, bat ere salbatu zanik. Eskritura sagraduak kontatzen ezdu.

Orañ bada: gure Euskaldun pobretxoen artean, alako Errege nork izan naiko luke? Iñork ere ez. Egun gutxiko Agintari emen, ta deabruen esklabo betiko infernuan. Ta emengo andre onen artean alako ditxa gabeko Erregiña zeñek izan naiko luke? Batek ere ez. Egun batzuetan beren gurari era-gabeak kunplitu emen, eta gero betiko tormentuak infernuan nai ta ez nai sufritu. Gure gizon prestu, ta andre garbiak beren pobrezan, Jainkoaren Legea beren biotzetan gorde, pakean bizi, ta ill, ta gero sekulako deskansu, ta glorian, San Isidro, ta Santa Maria bere emaztearen lagun izan naiago dute.

## SAN ISIDRO, TA SANTA MARIA

Senar emazte santu oiek beren bear, neke, ta izerdiakin, baña zeruan bezala, txit pakez, ta Jainkoaren, ta beren arteko amorio andian bizi izan ziran. Iban de Bargas, eta beste Madridko Jaun biren lurak Isidrok bere kontura artu, ta erabilli zituen, baña bere artu emanetan beti zuzen, leial biotz, ta esku garbiakin. Ta au da nekazari onen birtute seinalatu, a Kristau arterako txitez bearra. Nagusi biakin marabilla andi asko Isidrori gertatu, ta igaro zitzaiozkan. Baña fabore oriek Jainkoagandik merezitzeko.

I. Isidro goizean goiz jaiki, ta Eleizak bisitatzera, Mezak enzutera, ta Ama Birjiñari enkomendatzera beti joaten zan. An Jainkoa adoratu, ta eskerrak eman, ta bere biotz guzia, edo pensamentu, itz, obra, ta nekeak ofrezitzen ziozkan. Ta, zuk ere nekazari ona au goizoro bearrera baño len, beti biotzetik: Nere Jesu Kristo Jauna, Orazio, edo Kontrizioko aktua esanaz, egin bear dezu. Santuak gero Meza bat, bi, edo geiago debozio andiaz ikusi, ta adoratzten zituen: ta Ama Birjiñari erregutzen zion. Zuk ere, Nere Jesu K.J. esan, ta egun artarako propositu firme bat egin, ta iru Abe Maria, zu, ta zure etxeoak Ama Birjiñari enkomendatuaz esan itzatzu: ta zure espiritu, intenzio, ta gogoaz Meza guzietan presente bazeude bezala, Jauna adorezazu.

II. Jaungoikoarekin onela soseguz, debozio, ta amorio guziaz goizoro kunplitu, ta bere bearrera Isidro joaten zan. Baña, o gure Jainkoaren kontu, edo probidenzia, ta faboreak! Jakiñez batzuek Santuaren Nagusiarri esanz ioten Isidrok bearrrik egiten etzuela: ta orra Isidro Jaunarekin Elizan zegoen artean, onen Nagusiak langille obeak, edo Aingeruak beren idi uztarri zuri galantakin pozik soloan bear egiten, arriturik ikusi zituen: ta andik aurrera Isidro geiago estimatu izan zuen. Orra Jainkoaren saria mundu onetan ere justuak nola artzen duten. Bitartean aren emaztee Santa Maria, etxeko gauzai kobru eman, ta senarra bezala obra onetan, Ama Birjiñaren ta Santuen Ermitak garbitzen, apañtzen, ta argia ipintzen ibilli oi zan.

Baña, nola ezin ikusia, ta gezurra munduan añ sobra dan, salatzalle gezurtiak, San Isidro bere nagusiarekin bezala, Santa Maria ere bere senarrarekin aizki ipiñi nai izan zuten. Baña Santuak egia begiz ikusi, ta salatzalleai erakusteko, oiekin begira zegoela, mirari andi bat igaro zan: santak, bere deboziara zijoala, ibaia pasatu bear zuen: orretako ziñatu zan, eta beste zubi gabe, bere mantilla urtan bota, ta aren gañean, alako ibai-





rik ezbaliz bezala, argia, ta olio txarroa eskuan zituela igaro zan. Milagro au begiz ikusi, ta guziak Jainkoa alabatu, ta Santari pakean betiko utzi zioten.

III. San Isidro, bere izerdizko pobrea bazan ere, Santa Maria bere emazteari, larunbat, edo zapatu guzietan, Ama Birjiñaren izenean, ta amorioz, lapikoa pobreenzat eragiten zion. Añ fede bizia, ta añ konfianza andia Jainkoari bere obretan erakusten zion, nola Santuaren biotz garbi, ta inozenteak marabilla askotan agertu zuen. Zorroarekin errotara zijoala, kanpo, ta bide guzia elurrez beteak ikusi, ta uso, ta txoritxoak goseak iltzen, ta Jainkoari janaria eskatzen: eta Isidroren biotz beraak ori ezin eraman, ta elurra kendu, bidea garbitu, ta konbidatzen zituen: atozte, txoritxoak, atozte: orizute jaten. Ta garia ugari bota, ta esaten zien: Jainkoak ematen duenean, guzientzat ematen du: ta orretara orrela joan, ta Santuaren zorroa beti bete arkitzen zan.

Santu onen fede bizi au ondo ikusi zan, ta milagro andiak. Beñ batean kanpoan zeudela, Nagusiari egarri andi batek eman, ta Isidrori esan zion. Orduan Santuak bere akuluaz lurrari golpa bat eman, ta esan zion: Bada, Jauna, Jainkoak nai zuenean emen ura bazan: ta bereala iturri eder bat sortu zan, a Nagusiorrek edan zuen: ta gaurko egunean ere, askoren osasunarako, badirau, ta San Isidroren iturria deritzan.

Beste batean, garia garbitu, ta Nagusiari berea alde batera Santuak eman zion. Urri, edo gutxizko Nagusiak zeritzan bereari, ta gutxiago ote zan, esan zion: Orra bada, Jauna, Isidro: nere partea ere eramazu, ta lastoa niri indazu. Ala egin zan; baña santuak lastoa berriz aizatu, ta len baño ere gari geiago atera zuen. Onelako beste milagro andi asko Santuak bere fede, ta Jaunaren konfianzaz egin zituen.

San Isidroren gari ereitea miragarria zan: Alea eskuetan artu, ta era onetan esaten zuen: Jauna, zure izenean: Au zuretzat, edo Primizia, ta Amarrenentzat, ta erreiten zuen. Beste au, Jauna, Nagusiarekin guretzat. Beste au txingurri, ta txorientzat. Modu onetan ereñ, ta beti txit asko, ta ugari izaten zuen.

Pobreak, bera pobre bazan ere, bere janaria ere eman nai zien. Beñ batean Eleizako festan luzaro egon, ta Kofradiako barazkarira berandu joan, ta bere janaria gorde zioten. Santuak bidean topatu zituen pobreak berekin eraman zituen. an zeuden lagunak zioten: Bere konbidatuokin au zer dator? Isidro, zuretzat baizik eztago. Zaute pakean, esan zien Santuak: Jainkoak emango duenaz, ta zuek gorde dezutenaz, kontentu gera gu: maiean jarri ziran, ta Jainkoak janaria geitu, ta guziak milagrozkot barazkaria galanki jan zuten.

Santuaren Nagusiak alaba bakar estimatu bat zuten, ta ori ill, ta txit penaz beteak arkitzen ziran. Isidro, bere jabeai zien amorioagatik, Jainkoari orien konsuelkorako alabaren bizitza eskatu zion, ta fede andiaz alaba ori ukitu, ta bizirik jaiki zan. San Isidro, ta Santa Mariak seme bat izan zuten, ta mutiltxo ori ustekabean putzu andi batera erori, ta ito zan. Isidro kanpotik etxera zanean, emaztea desgrazia orrekin txit triste arkitu zuen: biak belauniko jarri, ta Jaunari semearen bizia eskatu zioten, eta bereala aoputzuraño ura azi, ta seme ori bizirik Aita San Isidro eskutik artu zuen.

Onelako marabilla andi asko santuak bizi zala, eta ill, edo zerura ezkerro Jainkoaren gloriarako, ta askoren onerako egin izan ditu: ta òbre zorioneko aberats au pakean bizi, ta zerura joateko, Eleizakoak txitezko debozio andiaz artu, ta prestatu zan: ta bere etxekoai Jainkoaren bildur, ta amore santua, ta aren legea, ta borondatea beren biotzetan betiko enkargatu, ta soseguz, ta zeruko pakean Jaunari bere espiritua eman zion: eta gero gure Aita San Ignacio, San Francisco Xavier, San Felipe Neri, ta Ama Santa Teresarekin egun batean ditxa paregabeaz kanonizatu izan zan. O zer lau Santu, gure Españakoak egun artan agertu ziran.

Eriakin egon oi diran Kristauka, beste jolas gaizto, edo eligrozkoak alde batera utzi, ta onela platika, ta zeruko konbersazioak egin bear dituzte: eta orrelako dira Santuen bizitza, ta Ejenplo oiek.

Eta Atxurlari Santu au onela ikusi, ta nork gure Jaungoikoari milla esker on, ta alabanza andi emango ezdizka? O Jauna, ta zure Santuetan zeñ miragarria, ta zure obretan zeñ santua zeran! San Isidroren biziera santu, ta onen obra on guzietn au ondo dakust. O nekazari prestu au enzun, ta Jainkoaren aurrean egiazko onra nai dezuna! Biotz garbi, fede bizi, ta borondate leial batek Jaunaren begietan, ta estimazioan zenbat balio dezakean, Atxurlari santu onetan, ondo klaro dakutsu! Ta David santuak dionez: nola, mundu zoroak ez bezala, pobretxu bat lurretik jso, ta nekezko bat, zimaur artetik atera, eta bere gloriako Prinzipe, edo Santu andien artean paratzen dakien.

Onen antzekoa orañ lurrean, ta gero zeruan zu izateko, nere gizona, zeruko ispillu eder onetan ondo begira zaite. Zure bizieran. nik esanal baño geiago egieki zer kendu, ta zer ifiñi izango dezu: ta au bearbezala egiten badezu nik nai dedan adiña zorioneko, Santuaren gisa zu izango zera. Neke, ta izerdizko Santu oni bere obra, ta pausoetan jarraizoiozu: ta nere kontu, Jainkoa seguru zure fabore izango dezula, eta Aingeruak pozik zuri, Santuari bezala, ure bearretan lagunduko dizutela.



Ai bada, Aita, esango didazu; guk ere Aingeru eder oriek bezalako morroi, edo langille batzuek bagindu, gure aldapa gogor oien gora bere-tan neke gutxiago eraman, ta izerdi ere gutxiago emango genduke! Ez orixe: ez, ene seme, Jainkoak guzientzat dio: *in sudore vultustui vesceris pane*. Gen. 3. Batzuek batera, besteak bestera, guziok nekez bizi bear degula. Jaunaren sententzia da: Zure arpegiko izerdian zure ogi, edo arto puska jango dezula.

Egia da, zure onerako bear baliz, Jainkoak bialdu, ta Aingeruak bearrera pozik etorriko lirakeala. Baña zer? Orduan San Isidro Eleizara bezala, zu tabernara zuzen, edo oker joango ziñake. Alper nagi andi egin, ta galduko ziñake. Ez, Jauna. Jainkoak orrenbat baño geiago nai dizu: ta bearrera zuk galanki egitea nai du: S. Isidroren ditxa bezala, zurea ere onetan dago. Orañ andreentaat ere beren lezio, dotrina, ta zeruko ejenploa.

## SANTA MARIA ANDRE ONEN ISPILLUA

San Isidro gizonenzat bezala, onen emazte Santa Maria etxeokandreetzat izan zan. Gure Jaungoikoak bere Eleizako Kanpo zabalean, Santa Maria zeruko lore ederra bezala ifiñi zuen, edo tesoro andi kanpo orretan eskutatua bezala gorde izan zuen, Santa onek, Loreak bezala, berebizieran zeruko usai gozoa eman zuen: ta Tesoro gordeak bezala birtute guzien Ondasun andiak agertu zituen. Jainkoak bere doai, edo graziak, bakoitzari dagozkion era artan, ematen dituela, dio San Pablok: *Divisiones gratiarum sunt*. Cor. 12. Eta Jesu Kristok berak dio: *in domo Patris mei mansiones multrae sunt*. Ioan. 14. Zeruko Korte, edo Palazioan jarleku asko dira: estadu, ta bizimodu guzietan Santuak dira: eta andre ezkonduak, ta Santa Maria bezala, pobretxoak ere santak ez izateko aitzakiarik ezdute.

Santa andi onen Jainkoarekiko fede añ aundi, ta bizia, esperanza añ firme, ta segurua, ta are geiago aren biotzeko jainkozko amorio santu irazakia, nork ondo esan dezake? Bere fede, ta konfianzarekin ainbeste marabilla egin zituen: ta bere amorio andiak bere biziera pobrean ainbeste obra on, guzien ejenplorako, eragin ziozkan.

Santa eskutatu onen umildadea zenbat zan, Jainkoak berak daki: biotz umil onen sustrai barrengoa añ seguru ondeatua izan ezbaliz, alako zerurañoko birtuteak andik irten, edo agertuko etziran, eta Jainkoak alako fabore, ta erregaloak egingo etzizozkan. Emendik aren obediencia guztiz-

ko ura, bere senar San Isidrori, agintzen zion guzian, Jainkoari bezala begirtu, ta obeditzeko. Bere burutzar gizon santua asrtu zuen, edo Jainkoak eman zion: ala beste borondate, ta juiziorik, bere senarrarena baizik Santak etzuen. Emendik ditzazko etxe pobre artako, ta ezkondu santu oien arteko zeruko pake, edo lurreko gloria bizi ura. Emendik obra onak egiteko Santaren, ezti guziak baño gozoago zan debozio ura.

San Isidro agindu, ta larunbat, edo zapatu guzietan, Ama Birjiñaren onran, ta izenean, pobreenzat egin oi zuten aparteko tupia, edo elzea, zer bere biotzeko debozioaz Santa Mariak egingo zuen? Ori jakiña da. Orregatik beñ batean, diote, pobretxoai beren lapikoa partitu ezker, Jesu Kristo pobrearen trajean bere Ama Birjiñaren sopak jatera bezala etorri zala. Limosna eskatu zuen: ta Santak guzia eman bazuen ere, tupia ikus-tera joan, ta betea arkitu zuen, ta Jaungoikoari, ta beste etorri ziran pobretxoai pozik guzia berriro eman zien.

San Isidro, eta Santa Mariak jserikordia beren biotzetan zeukaten: eta Eskritura sagraduak, edo Tobias Santuak ziona: Aberatsa bezera, edo asko Jainkoak eman badizu, ugari emazu: ta gutxi badezu, al dezuna gogotik emateaz prezia zaite. Jesu Kristoren Ebajelioko sentezia ondo gordetzeko bazekiten, ta juizioko egunean Miserikordiazko obretatik Jaunak mundua, ta bakoitza juzgatuko duela. Beren pobrezan, al zuten baño ere, limosna geiago ematen zuten: ta ala milagro andiak Jaunak orretako egiten zituen.

Anai arrebak bezala garbiro, ta aparteko bizitza egiteko biak konziertoa egin zuten: ta Santa Maria orazioan, ta obra onetan guzia Jainkoari, ta Ama Birjiña eman zitzaion. Madrident aldean Caraquiz zeritzan erritxo batean geratu zan, ta Ama Birjiñaren Ermita bat bere kontura artu zuen: eta arrezkeroko Santa Maria dela Cabeza Ermitari deritza: ara joateko zan ibaiak, legua bian zubirik etzuen: ta ara, ta ona igarotzeko Santak bere mntilla bota, ziñatu, ta aren gañean, bear zanean ibaia, alakorik ezbaliz bezala, pasatzen zuen.

Beñ batean orrela Isidro bere emaztearekin ur gañean zijoazela, Ama Birjiña etorri, ta berak bezala, poliki beste aldera biak eraman zituen. Ta leorrean belauniko biak jarri, ta Jainkoari, ta bere Ama maiteari esker-rrak eman ziozkaten. Biotza zeruan zuela Santa Maria beregndik kanpora, edo arrobatu-rik kanpo, ta Ermitako bidean orazioan ibilli oi zan. Alde aietako artzai, ta unaiak Isidrori kontu eman, ta andrea gaizki, edo pauso gaiztoetan zebilela salatu zuten. Bazekien Santuak bere emazte onaren berri. Baña nola bigarren aldi-ere Santa akusatu zuten, salatzalleak desengañatzeko berekin eraman zituen. Santa Maria, oitu nola, bere argi,



ta olioarekin orazioan etorri, ta ziñatu, mantilla ibaiean bota, ta aren gañean aisa pisatzen, ta pasatzen, an zeuden guziak arriturik ikusi zuten: ta Santua txit kontentu, ta Santa berepakean geratu zan: ta santatzat gero-ago, ta geiago iduki zuten.

Santa pobre ditzaz bete au beti pakean bizi, ta pakean ill, ta zerura zan. Baña zeruan lurrean baño ere geiago San Isidro bere gizonari dion amorio, errespeto, t onra Santak zerutik jaxirik ondo beñ batean erakutsi zuen. San Isidro kanonizatzeke zebiltzanean, orretarako diru puska bat emateko promesa Madridko andre aberats abetek egin zuen. Baña nola egiten, edo kunpliten etzuen, Santa Maria agertu zitzaion, ta andre ori Santak esan zionarekin bildurto zan, ta bereala promesa kunplitu zuen. Gero Madriden pintaturik zegoen Santa Maria ikusi zuenean bereala, esan zuen andreak: Auxe da zerutik agertu zitzadan Santa.

Oiek, eta onelako beste gauza on, ta Santuen ejenploak eri, edo iltze-ko daudenen aurrean kontatu bear dira: onelakoak konsolatzen, fedea piztutzen, ta zerurako esperanza, ta gogoa ematen dute. Gizon, ta andre pobretxoak, eta zuen nekeaz garbiro bizi zeratenak: anima zaitezte ejenplo, ta milagro oiekin: zuezaz Jainkoak daukan kontu betikoa, edo bere Probidenzia amorosoa oietan erakusten du: eta bere biotzeko amorioaz zuei nola begiratzen dizuten, ta nola Aita maiteak bezala gobernatzen zaituzten ondo klaro ikusten dezute.

Munduko Errege, ta aberats andi asko baño ere geiago zuek konsola zaitezte: bada orra orrelako Errege, a lurreko aberats andi nai guziak alde batera utzi, ta gure Españako Korte txit andiko Patroi San Isidro Atxurlari pobretxo bat egin du: eta gure Errege, ta Erregiña andiak, ta Mundu biren Jabe, edo lurraren gañean diran Errege, ta Jaunik andienak Isidro, ta bere emaztearen oñetan, edo aurrean belauniko pozik jartzen dira, Jainkoak Santuetan ezagutu, ta adoratzen, ta beren plegarietan oriek Bitartekotzat artzen dituzte. O gure Jaungoikoaren poderio, ta jakintasuna! Madridko Korteko Patroi Nekazari, edo Atxurlari bat; eta Franzian Parisko Korteko Patrona, edo Matrona Santa Jenobeba Ardatzle, edo Gorulari bat egin zituen! O zer Jaun, Nagusi, edo Jabe ona, ondo serbitzen badezute, pobreak dezuten.

## GURE NEKAZARIEN ERIOTZAREN GAÑEAN BESTE KONSIDERAZIO ONAK

Jaungoikoa alabatzeko gauza da, oiek nola iltzen diran ikustea. Askok beñtzat, San Isidroren gisa, ditxa andia dute: eta Jaunaren miseri-kordia nolerebait argiago oietan agertzen da. Nola guri jaten, edo jatekoa ematenarren, gizagajoak uda, ta negu, neke, ta izerdien azpian beti dabil-tzan; ta beren bizi nai ta bizi bearraren kezka, bildurra, ta arrastaka bai-zen ezduten: ala biziera garbi orren saria, orien eriotza datorrenean, kezka, ta bildur gabe, oriek aisago iltzea dala, ikusten da. Gure Jainkoak, Aita onak bezala, dakus, oiek beste asko bezala, munduko artu eman, kes-tio, edo peligroetan, beren bizian nastu ezdirala: ta ala eriotzan bere Ain-geruakin anparatzenditu, eta deabru txar tentatzalleai oien buruko aldera joaten zuten ezdie. Ara nola.

Sazerdote Jaun batek mesedez beñ eskatu zidan, agure gaxo bat karidadez konfesatu bear nuela, ta berak aren etxera eraman ninduen. Gizon orrek, ez bereala iltzeko, baña erremedio gabeko gaitza zeukan: eun, ta iru urte gañean zituen. Konfesio jeneral, edo bizi luze orretakoa egin nai zuen. Bada, zer uste dezu? Ordu erdi bat ozta egin nuen, aren konfesio andi ori bere gustora egiten: ta orren laster, ta aisa kontuak ajus-tatu, ta Aingeru baten gisa, edo txoritxo bat bezala txit alegere geratu zan, ta uste zuen bertatik zeruan zegoela.

Aita: ori nola izango zan? Nik esango dizut. Eun ta iru urte orieta-tik, urte bakar batean Jaun nere adiskide bat gazte zala serbitu zuen, ta gañerako urte luzeetan beste artu emanik izan etzuen. Beti Atxurlari, ta bear egiñaz garbiro bere arto puska irabazi, pobrezan jan, ta beti konten-tu zan. Ta aren arpegia ikusi bazendu, arrituko ziñan: añ alai, ta kolore bizi ederrakin zegoen, nola ogei urtekoa zanean, edo galai gazte bat bezala.

Onela bizi, ta ill etzan, Ama Santa Teresak bere Bizitzako Libruan kontatzen duen Gaztelako Nekazaria. Au ere bere denboran bear egiñaz pobrezan kontentu bizitzan: baña aren alabearrez, gutxien uste zuenean, kanpo, edo soloan lurpean gorderikako diru andi, edo tesoro bat arkitu zuen. Bere ori etxera isillik eraman, ta zer egin etzekien: non baño non obeto gordeko ote zuen, kezka, ta bildurra baizik etzuen: ta len pobre ale-gere zana, gero aberats triste egin zan. Gau, ta egun sustoz beterik bere diruan beti pensatzen, alako naigabe, ta penak eman zioten, non biotza



illundu, ta ez jan, ta ez lan, beste gaitz bage ori ori egin, erkitu, desegin, ta il tzan.

Emendik, zuk Nekazaria, edo onetan Jainkoare Aitazko Probdenzia, edo gobernuia ikusi bear dezu: eta sinistu, edo ondo jakin, ondasunak, edo pobrezia zuri ematea Jaunarenzat guzia bat, edo berdin dala; ta berak zuzaz obeto begirutzen duela. Aita da, ta Aita guzien onena: aren antzekoa izan zaite. Batzuei ondasunak ematen diezte, miseriakordia, ta limosna, Jainkoaren izenean egin, ta orrela beren pelatuak pagatu, ta zerua bide orretik irabazi dezaten.

Besteai bearra, pobrezia, edop ondasunen falta Aita onak bezala ematen die, beren bearreaz bizi, ta salbatzeko. Batari bezala besteari diru, edo ondasunak ematea, Jainkoarenzat berdin da, ta ezer kostatzen etzaio. Baña ah! Bere doaiak partitzean, berak obeto daki zer egiten duen: ta ikusten du, zu askorekin kondenatuko, ta gutxiarekin salbatuko zerala. San Agustinek ederki, berak bezala, diona: obe da gutxiaren bear zu izatea, ezen ez zuk asko idukitzea. Eta nik orañ diot: gure ditxa eztagoela gutxi, edo asko idukitzean; ezpada Jaunaren borondatea guzian egitean.

Au ondo egiteko, seguruan jokatu, ta zeruan ondasun andiak irabazteko, bitartekoaz baliatu bear degu: esan nai det, Ama Birjiña, ta Santuz Eri bat, orrela luzaro dagoenean, konsolatzeko, ta denbora probetxuz, ta gozotoro pasatzeko, zer gauza obeagorik, Errosario santua baño? Onen iru parteetatik bat ondo erreztatzea, Ama Birjiña unziz santari lorezko koroa eder bat presentatzea da. Baña afildu baño len, loak iñork tenta ezdezan, ta txit soseguz, ta merezi duen debozioaz, Errosariooko induljenzia andiak irabazteko, errezzatu bear da. Lenago ondo ziñatu, Kontriziozko aktua egin, ta gero Jainkoaren, ta bere Ama santuarekin itzegiten duenan bezala, batek esan, ta besteak eranzun.

Jainkoagatik, bada, ta Ama Birjiñaren Biotzeko gozo, pena, ta gloria, Errosario santuan gordeirik ditugunak gatiuk, erregutzen dizutet, nere Kristau, ta Ama Birjiñaren umeak, arren emendik aurrera zeruko deboziorik ederren au, Errosario Santua, soseguz, ta debozioz erreza dezazutela: ez mar mar mar, beste lurreko gauzak bezala, ez prisaz, nastuaz, edo guzia trabukatu, ta naspilla bat egiñaz.

Tolosako Santa Marian Ofizio Dibinoak, ta Elizako gauzak, nola zeruko antzera, txit ederki, ta Majestade bere diñakoaz egiten beti ikusi ditudan, ala, ta txit konsuelo andiaz ikusi nuen, Errosario santua ama Birjiñari ofrezitzen. Sazerdoteak beti Pater noster, ta Abe Maria errezzaten du, ta beti jendediak, edo Puebloak eranzuten du. Ta Aldareak, edo beste debozioak egitean, ori bera erri guzietan oi da. Etxeetan beñzat, nere kiko

batek beti Aita gurea, ta Abe Maria esan ondo, ta besteak betri erantzutea, obeto deritzat, la dboziorako, ta ez trabukatzeko, nola kontua zuzenago idukitzeko.

San Josef guziz doatsua, S. Miguel, ta Aingeru goardakoa, zure ize-neko, egun artako, ta beste Santuak Bitartekotzat artu bear dituzu. Baña errezo luzez, ez beñere kargatu, presaka, itotzen, ta gaizki egiteko. Obe da, diote Santuak, Abe Maria bat debozioz ta ongi ezer ez asko gaizki zuk erreztatzea. Ara ejemplo ederra.

Ama Birjiñaren deboziozko alaba amite Relijiosa batek amabost Misterioen, edo Errosario osoa egunoro errezzatzeko debozioa zuen. Baña, nola beste ofizio, ta egiteko asko Etxean zituen, askotan lasterka Errosarioa, ta ez bear zan erreberenziaz, errezzaten zuen. Beñ batean orrela zegoela, Ama Birjiña, zeruko Erregiña ederra, konsolatzera etorri, ta amore andiaz esan zion: Ez, ene alaba: ez ori orrela egin. Obe da, ta Obedienziako ure lan, edo egitekoak ongi, Jaunaren borondatea dalako, egiñitzazu; eta niri kontentu emateko, egunoro sesuguz, ta debozioz nere Errosarioaren parte bat erreza ezazu, ta niri gusto emango didazu.

Guziz miragarria da, gure Aita S. Ignaciok bere ejerzizioetan, laugarren astearen azkanean, Pater noster, ta Abe Mariaren gañean orazio egiteko erakusten dituen zeruko moduak: eta itz bakoitzaren gañean zer pausa, debozio, ta espiritu andiarekin egiten zuen. Gauza ziertoa da, Eriak, ta orien an dauden Lagunak orazio oiek biotzeko sosegu, ta debozioaz errezzatuaz, denbora obeto, ta errazago pasatu, ta animen probetxu andiago aterako dutela.

Zure etxean, ta zure oiean zaudela ere, Abe Maria, ta Salbe bakoitza errezzatzeagatik Induljenzia, edo egun askotako barkazioa, noiz nai, ta beti irabaziko dezu. Orobat JESUS, edo MARIA esaten dan bakoitzean burua makurtu, edo debozioaz beratzean, Induljenziak irabazten dituzu: eta onelako Jaunaren grazia andi añ erraz edozeñek irabazi ditzakeanak, arrazoiago da zuk, Eria, ez galtzea.



## AMA BIRJIÑAREN DEBOZIOA

Gure Nekazari onen artean bere Parrokietarako amorio, ta debozio andia jakiña da, ta kanpotar guziak ori ikusi, ta milagrotzat bezala kontatzen dute: ta ez bakarrik Meza Nagusi, ta Besperatara joatea, ezpada Birjiña Ama Santaren Errosario, ta Aldareak errezatzea. Fede, ta debozioaren señalear andia da au: ta argatik munduko beste Erreino, ta Probinzia askotan baño, gure oietan Parrokietako Eleiza gauzak ederkiago, ta piedade, ta debozio andiagoaz egiten dira.

Au eskribitzen dedan eguna Ama Birjiñaren KONZEPZIO, edo SORTZE guziz garbiaren eguna da, ta gure Probinzian berezkirozko egun señalatua. Ama Birjiñaren Misterio, Festa, ta debozio guzien asiera gozoa da: ala gure Probinziak bere anparo, Ama, ta Patrona txit maitearen eguna bezala zelebratzen du: ta zorioneko bazter onetan jaiotzen diranak, amorio, ta debiziozko gure Ama guziz santaren marka onekin jai, ta titi edo bular gozo onekin azitzen dira.

Orregatik Konfesore zelodunak ainbeste, ta añ ederki bere oñetara datozenai Ama Birjiñaren Konzepzioaren debozioa, ta onen erreberenzian, beren anima, ta gorputzak garbiro gordetzeko iru Abe Maria egunoro errezatzea enkargatzen die. Ala Maisu Avilak, ala gure Misioneroak guziaz erakusten, ta bneti agintzen die.

Baña Ama Birjiñari gusto txit andia, eman, ta bere Konzepzio garbiaren onrarekin zure irabazi andi bat erraz izan nai badezu, goizean jaki, ta bereala, Jainkoari eskerrak eman, ta zure anima, pensamentu, itz, ta obrak Ama Birjiñaren eskuetatik ofrezitu, ta iru Abe Mariak errezatu bear dituzu, Trinitate guziz Santuaren alabazan, esanaz, «Aitare, ta Semearen, ta Espiritu santuaren izenean, iru Abe Maria oiek, gaur, ta beti pekatutik gorde nazan; pakezko bizitza bat, ta eriotza on bat bere grazian eman dizadan». Eguerdian beste iru Abe Maria orrela, ta beste iru arratsen Ama Birjiña erreza zaiozkatzu.

Askok, Maisu Avilak zion bezala, Ama Birjiñari esaten, ta eskatzen diote onela. «Nere Ama Birjiña, zure Konzepzio garbiagatik, ta zure garbitasun ederragatik tentazio guzietan anpara nazazu, ta gorputz, ta animan garbiro gorde nazazu».

Nola Birjiña Amaren Festa guzien sustraia aren Konzepzio garbia dan, ala beraren Doloreak, eta Angustiak aren Misterioen atzeneko Pausoa bezala dia. Badaki berak ondo, zeñ anziñakoi amorio, ta debozioa

gure jendeen biotzetan Ama Birjiñaren Doloreen au dan: bere Semearen Bizitzan, ta Eriotzan, gure pekatuakgatik igaro zituen zazpi Doloretako, ta Gurutzearen oñean bere Biotzeko Seme Jesus maitearen ondoan, aren agonian, ta bera iltzen, ta illik ikusi, ta bere besoetan artu zueneko bere anima josi zion ezpata zorrozaren, ta orduko penen memoria, ta debozio andia da.

Gure Aita San Ignaciok au ondo erakutsi zigun: Bada Ama Birjiñaren eskuetatik bere biotza Jainkoari eman zion ezker, biotz orren gañean Doloretako Birjiña, edo Angustien Imajiña beti Santuak berekin ekarri zuen: eta Aita Araoz bere Aideari despedidan ori eman, ta esan zion, fabore asko, ta andiak orrezaz egin ziozkala. Argatik San Ignacioren Biotzeko Ama Birjiña ori, Zaragozako gure Eleizan debozio andiaz beneratzen da.

Azpeitiko Erri noble ditzazko onetan beste askotan bezala, Ama Birjiñaren debozio au, nor daki noizkoa dan: bada Loiolako etxe santu onetako Oratorio zar, edo anziñakoa ere Angustien, ta Dolorezko ta Piedadezko Amarena zan, ta orañ ere da: ta arrazoi andiarekin guziaz, ala osasunean, nola gaitz guzietan, Konfesore Jaunak txit ondo egiten dute Ama Birjiñaren Pauso, ta Misterio orien debozioa akonsejatzean, eta Ama maite onen Angustia: ta penen memoria gure pekatuen biotzeko damu andiaz, guk egitea baño gauza gozoagorik aren Biotz santuarentzat ezta: eta aren doloretan: gure gaitzen, ta penen konsueloa arkituko degu. Gorainzi oiek Ama Birjiñaren izenean eriak konsolatzeko eraman bear dira.

Orañ atzeneko orduan kezka, ta lanik andiena emango duten gauzaren batzuen gañean, abiso bearrean eman bear ditugu.



## ERIoTZAN NORK BILDUR IZAN BEAR DUEN

Gure jendeen artean batzuen beren jabe dira: beren buru, edo personon kontua baizen ezdutenak: ta azken ordu artan oiek zer egin, edo kezka gutxiago oi dute: ala ondo iltzeko obeto daude.

Biziera bi, aedo persona mota bi dira, ala bizian, nola eriotzan zer egin geiago dutenak. Aita: oriek zeñ dira? Etxeko buru, ta Erriko buru izan diranak. Esan nai det, Guraso, ta Nagusiak, Alkate, ta beste orrelakoak. Eta orietatik asitzen gerala, gure Nekazari prestu asko beren Errietan Alkate, Errejidore, ta Erriko Guraso, edo Nagusi bezala oi dira. Oiek obligatuak daude, ta ez bakarrik Erriaren artu eman, edo errenten gañean kontu iduki, eta ondo onek artu, edo ematera; ezpada ta are geiago Jainkoaren Legea Errian ondo gorde erazotzera: lenengo berak ejenplo ona emanaz; eta gero Errian, edo Errikoetan diran animen kondenazioko beartztopa, edo eskandalo, eta pekatuen bide, okasio, ta peligrak zelo andiaz kenduaz.

Jainkoak bai, ta bestek ezdaki, Erriko festetan, plaza, edo bazterretan, tabernako edanean, joko luze, ta jolasetan, etxerako desoretan, gabazko libertade, ta deabruen iskanbilletan, zer pekatu ikaragarriak egiten diran. Ta gaitz oien sustraia, ta oriek ez ebakitzea, edo ez erremediatzea, ta guzien kulparik andiena, txit askotan Justiziako Jaunak dute. Baña oiek, Jainkoaren ordeko Ministro fielak bezala, ejenplo ona eman bearrean; jokoan, edaten, ta desoretaraño egotean, aurrenekoak, ta gaiztoenak berak badira, zer izango da? Erriko buruak orrela badabiltza, beste ondorengoak nola ibilliko dira? Gizaseme, ta mutil gazteak ori ikusi, ta zer ikasiko dute? Nola errespetoa idukiko zaie, berak beren buruai galtzen badiote?

Gure Probinzia guzia Nobleak, orrelako jainkoaren ofensa andiak, ta Justiziaren lotsa, ta bildurra galdurik ikusi, ta gabazko, eta Ermitetako festa eragabeak kondenatu, ta kendu ditu, eta arrazoi andiarekin. Baña asko Alkatek, Jainkoaren, Obispo Jaunaren, ta Probinziaren Lege justuai, bear bezala begiratu ez, ta beardan balore, ta animoaz artu gabez, festa eragabeak eragin, edo eragiten larga, ta zer kalteak ikusten dira? Ta ikusten ezdiranak non dira? Ah! Orieke are geiago, ta andiago dira! Guzien Juezak guzia dakus: ta Alkate, ta Ministroak kontu emango diote.

Gauza ziertoa da, Jainkoak, Ama Birjiñak, eta Santuak Eleizako festak fedeez egitea nai dutela. baña deabruak, ta aren bandoko, edo lagun diranak, festa oriezaz baliatu, ta Santuen aitzakian, ta au Kristau artean nork sinis lezake? fede, ta lotsa gabe, Jainkoaren ofensa nazkagarriak, ta Santuen desonra itsusiak nai edo erakarten dituzte. Eta orietan joko luze debekatu, idi tratu falsiazko, tabernetako tranpa, ordikeria, torpeza, animen, ta errien kalte jakiñen kontu Jainkoari nork emango dio? alkate, edo Errien Guraso nagi, ta zorigaiztokoak. O zer kontu estua, zer juizio, ta Justizia gogorra oiei begira dagokien! Jainkoaren Justiziako Ministro izateko, ezta asko bara artzea: bear da ori jaso, ta zuzen guzian erabiltzea.



## ORAÑ GURASOEN OBLIGAZIOEN GAÑEAN

Oiek, gorputzeko alimentu bearra umea emateko bezala, ta are geiago animetakoa emateko dute obligazio andia. Lenengo oriek ondo azi, ta ezitzeko ejemplo ona, ta bigarrena dotrina ona eman bear die. Dotrinan, Fedeko gauza, ta bear diran orazioak ondo erakustez gañera, aditzen da, Jainkoaren Legea ondo gordetzeko bear diran pauso onetan, bildur santu, ta usadio onetako bidea erakustea, eta pekatuen peligro, ta lagun, edo enkontru gaiztoetatik aparterazotzea: aditzen da Sakramentuen usuera, edo askotan konfesatzea: dotrina ikastera, Sermoiak enzutera bialtzea, ta berai ondo dagozkien lagun Kristau onetara joatea: goiz etxera etortzea, gaizki egiteko, ta esateko mañak, birau, ta maldizio, joko luze, ta ibillera giztoen griñarik ez artzeko, edo utzierazotzeko, ta beren borondate eragabea, t maña aldi gaiztoak ukatzeko: eta onela txikietatik guzian Jainkoaren bildurra, errespeto, ta amorioa orien biotzetan sartzea.

Onelako gauza, ta Dotrina guziz bearren gañean, abereen gisa, asko guraso baldan lasaiegi izan diranak: ah! zeñ estu ta larri eriotzan arkituko diran! Arako amatzar ero gaztetan gaizki eziak, ta arin, ta lasai oituak, bere alaba zoroari aisa lajatzzen dio, festetan, ta erromerietan ibiltzen: eta norekin? Sobra dakizute: lagun gaizto, neska, ta mutil galduakin. Ta gero? Zer pekatuak? Zer kalteak? Zer negarrak? Ta orañ, au eskribitzen dedan denboran negu alderonz zuen etxe barrunbean bertan, Nekazarien zori oneko, edo gaiztoeneko arta zuriketan, gurasoen kulpaz, zer kontuak, zer jolasak, zer triskak, zer libertade eragabeak? Eta azkenik mutil deabruak argia itzali, edo atzendu, ta aragiaren lujuriako infernuko suak, eta garrak irazakitzen dira. Ah guraso ez fede, ta ez Legeko galdu bearrak! Zer infernu bizia eriotzan.

Eta Konfesore zelosoak orrelako Amari bere onerako zerbait esaten badio: alerik malmetitutu gabe, ta alakorik ezbaliz bezala, eranzuten dio: Ai bada, Jauna! Zer nai du? gazteak izan ero oriek: eta malizia gabeko zoroa nere alaba. Baña gu ere orrelaxe izan giñan, ta ezkondu giñan. Ona deabruzko erresposta. Ala gaizki, amatzat itsua. Zeren zu galdu, ta pekatuz bere, ta ezkondu ziñlan: zure alabna tristeza ere orrela ezkontzea nai dezu? Ah Ama, otso, ta artzak baño zure alabarentzat gogorrago! Ta deabruak egindako ezkontza ori nolakoa irtengo, ta izango da? Deabruzkoa, ta

infernukoa. Argatik, alaba gaizki ezkondu, ta etxera biurtu, esan oi da. Alako bizierak ikusten dira.

Zimenduko lenengo arria deabruak ifintzen duen Etxea, norena, ta nolakoa izango da? Ya dakus edozeñek: deabruarena, ta dearuzko Etxea. Bada zuen, eta orrelakoen ezkontzak ori bera. Zer erremedio bada, Aita? gurasoak nai badute, au erraza da. Arto zuriketa, gari edo arto jorra, ta beste orrelako gazteen lanetan, zuen alaba, edo neskatxak bakarrik ez fiatu: zuekin, ta aurrera auzokoak aparte bialdu mugonez, edo eraman, ta mutillak geroago aparte dijoazela: orien jolas, pauso, edo bideetan, zuek errespetoaz beti egitea, erremedio segurua izango da.

Fede gutxiko, ta buru gabeko Ama askok libertade geiegiz, errespeto, ta bildur gabe, alabak gura dituzten maña guzietan azitzen dituzte: ta gaizki eziak bezala, beren zartzerako arrimo on gero izan bearrean, gurasoen tormentu gogor izan oi dira. Txikietatik itz, edo izen gaiztoak esaten berak erakusten die umeai, eta gero usadio ori kentzen erraz ezta.

Bular, edo titia artzen daudenetik ardora oitutzen dituzte: eta Bizkaian ezpanak busti, ta emen ezpañtxoak busti, ta mama goxoa da esanaz, ardoa ematen die: eta gero? Ai ama txoroak! Orrelako gabe ere, alamaise ez bildur; zuen alabak edaten ikusiko dute, ta azitzean, giza artean ere, oiek adiña, ta oiek bezeñ lazki, ta galanki, alabatxo oriek ukondo, edo ukalondoa goratzen ikasiko, ta jakingo dute. Ara nere Ama Santa Monicari zer igaro zitzaion, ta San Agustin bere semeak Amaren aotik nola kontatzen duen.

Orretako jakin bear dezu Monica guraso txit prestu, ta Kristau onen umea bezala, Jainkoaren bildurrean azi izan zala: txikietatik bera zetorren Jainkotia, modesta, ta txit deboziora emana. Eleizara bere naiera zuen, ta ikusteko omen zan, bere bazterrean ondo jarri, ta zer fede, ta erreberenziaz geldu egon oi zan. Onelaxe nai nuke nik gure gazteak, eta andre guziak, Eleizan, batera, ta bestera ibilli gabe, ondo leku batean jarri, beñ ondo ziñatu, ta begiak lurrean, edo itxirik debozioz egotea. Monicatxo denbora artatik betiko biotz beraa, ta limosnari andia zan, ta pobrei bere janaria ere eman oi zien.

Monicaren Aitak, aurra zanetik Emakume kontuzko, txit on estimatu bat zeukan etxean; eta bera ondo azi zuenari bezala, Monicaren aziera ona agindu zion: Santaren Ama Kristoren sierba zan, dio San Agustinek; baña edateko neskatx on au txit asko alabatzen du. Onak Monicari aurkeria guziak kendu, ta gurariak ukatzen ziozkan. berearekin irteten utzitzen etzion, ta gauza txikietan ere bere borondatea autsitzen zion, ta Jain-



koarena egitera saiatzen zuen. Monicak, jatorduaz kanpora egarriak itozten zegoela esanagatik ere, ura ukatzen zion.

Ara esaten zion: gogoak ematean, aurak, orañ ura naizute, zeren ardorik ezdezuten: baña ezkondu, ta gero Etxandre, ta ardoaren jabe zeratenean, edatera oituko zerate, zeren gurariak indar andia duen. Monicaxok au aditzen zuen, ta orregatik ere ardoa edatera nola egin zan Agustini berak esan zion. Nola aur bizi ezertako, edo askotakoa, ta donzellatxo begiratu zan, gurasoak neskamearekin, edo bakarrik, ardo eske bialtzen zuten: ta Monicak justatzen bezala, txarroan ardoa artu baño len, txurrut bat artzen zuen, ez geiago, zeren ardo zale etzan: lenengoan gus-torik artzen etzion: eta bere bizitasun, ta jukin naiak, malizia gabe, eragiten zion.

Baña mama gaxoa zan, ta uste, edo senti gabe, Monicaxo oitu zan, ta gero ontzi, edo baso txiki bat bete edatera egin zan; ta onela zaletu, ta ardoaren deseo eragabea sartu zitzaiola, dio Santak. Ah zenbat gazteri au bvera egunoro bizio itsusi onetan, ta beste libertade, ta maña gaiztoetan, senti gabe eransi, edo gertatzen zaio? Non zan orduan Giltzera zan jui-ziozko Monica ondo azitzen zuena? Ai Jauna, dio emen San Agustinek! Ori, ta Aita, ta Ama begira etzeuden, baña Zu bail! Ta zure ontasunak Monicari erremedioa eman zion.

Etxeko mirabe, edo neskaxa gazte batek Monicaren aurkeria onen berri bazekine; baña nola asko nai zioten, aurra gurasoak asti, edo zati etzezaten bildurrez, isillik estaltzen zuen. Alako batean, gutxien uste zanean, orra non Monica, ta neskax ori aserratu ziran, ta onek bere suan itz batetik bestera Monicari besteen aurrean esan zion: Ken ortik, ordi txar ori, ta moxkortzeko ardoa edaten dezuna. Onela bere txarkeriarekin arpegian eman, ta desonratu zuenean, añ lotsa, ta pena andia Monicak artu zuen, non bere biziko ardoa ala edatea utzi zuen.

Ah Jauna, azkenean dio San Agustinek: Zuk obeto egin zenduen: bada bataren gaitzetik besteren ona: ta neskaxaren aserretik Monicaren pakea ateratzen duen! Ta au guzia beste gauza on askorekin Ama santa Monicak Agustini, ta nere Santuak bere Konfesioetan guri kontatzen digu, gure kulpak ondo konfesatzen, ta erremediatzen guk ikasteko.

Ta zenbat Monica txiki onelako griña, ta miñaz beteak, baserri orietan, ta ez gutxiago kaleetan ote dira? Andi etxetan peligro geiago, ta are andiago oi da. Deabru txarraren estalki bat faltako ezta, ume txiki gaitz gabekoen orrelako lanak estali, ta gaizki aziko dituen. Ta gero? Erak dakarrenean, mama gaxora egin, ta Monicaren gisa, ardora oitutzen dira, ta ori senti, edop ustegabe. Ta zenbat bider gaitz egin, ta begitxoetan ige-

rri, ta besoetan artu, ta esaten die: Enetxoa, au zer da? Atoz ona, nere aurra: galdua zaude, gaitzak eragin dizu: otsoak jan zaitu. Ta aurra isillik oiaren gañean bota, ta katua igaro, ta larridiki artean, an dagoela?

Ah giltzerak! Ah gurasoak non zerate? Eta orrelako alabatxoa, Monica bezala lotsatu, ta erremediatzen ezpada txikitan, gero azi, ta ekonomdu, ta ardoaren jabe danean zer izango da? Orduan, onrarik, eta lotsarik gabe, askoren desonra, ta lotsarekin edale galant itsusi bat izango da.

Begira ondo gurasoak zuen alabatxoan, ta zeren animaz, norekin, ta nola azi, ta oitutzen diran. Bear ezdiran gauza asko zueztatik ikasten dituzte: begira zer esaten, edo egiten dezuten orien aurrean, ta nola: umeak guzia zuen gisa egin nai dute, eta gaitza, ona baño, lasterrago, ta errazago eransiko zaie. Zuen aurrean baño, etxeko ondorengoan artean are peligro geiago dute: orien jolas, joko, ibillera, ta esaera libertadezko loietan, Jainkoak bai, ta bestek ezdaki, zer mañak, zer siñuak, zer kontu, itz, ta platika desonestoak, ikusi, enzun, ra ikasten dituzten: lenengoan gaitz gabe, inozentian; baña gero begiak gaitzerako idiki, ta maliziaz. Erremedio guztiz andia gurasoak, da zuen alabak ez bakarrik, edo lagun gaiztoakin fiatzea: oiek intenzio gaiztorik ez idukiarren, deabruak beti du intenzio gaiztoa.

Orañ ezkonduen pakerako Dotrina.





## EZKONDUEN JAINKOZKO BIZIERA

Gure Nekazariak, eta ez gutxiago aberats, edo andi etxeetako Ezkonduak Jinkoa ondo serbitzeko bearren duten asiera da, fede bizizko Jaunaren bildur santua beren biotzetan ondo jositzea. Au da ditxa guzien sustraia. Zeruko sustrai onetatik. Ezkontzako Sakramentuak ematen duen bien arteko pake, ta amorio santua, berez bezala, sortu, ta jaioko da. Jesu Kristok bere atzeneko Sermoiean, Testamentuan bezala, utzi zigun zeruko ondasunik andiena, pake eder au da. Ezkonduen etxea pake onekin zeru bizia, eta pake gabe infernu bizia da.

Amorezko pake onek murru sendo baten gisan munduko neke guziak pazientzia, ta meritoaz eramateko, bear dan indarra ematen du. Baña pake eder gozo onen kontra infernu guzia armatu, ta jaiki oi da: deabru txarra Ezkonduen pakezko biziera ezin ikusirik, ta iraz beterik, ori desegin, nastu, ta inkietatzeko alegiñakin asitzen da. Ta Jainkoaren borondatez, bear bezala, ta zuzen ezkondu diranakin Satanasek au egiten badu: arako oker, ta bide gaizto, edo pekatuetatik, ondo begiratu gabe, edo gaizki ezkontzen diranakin zer egingo eztu? Ta lurreko zuen onra, azienda, ta atsegiñak, pakerik ezpada, zertako dira? Emen, ta an infernurako.

Ai, Aita, dio beste andreak: gure etxean ori sobra ikusten da. Zergatik bada? Aita, len pakean oi giñan; baña gure gizona Plaza gizon egin zagu, eta arrezkero pakean zer dan ezdakigu, edo gure etxetik igesegin du, ta giztoenak aienatu du. Gure gizonak, dio besteak, jokoari, ta tabernari eman dio: duena, ta ezduena ondatu, alperkeri ederritzi, ta etxea galdu du: ez umeen konturik, ta ez ezer, ta desoran datorrenean, gerra bizia.

Ene andre ona: ori sinisten dizut, ta erruki zaitut. Ezkondu bear, eta orra norekin egin ziñan. Zure gizonak jokoari, ta tabernari emazteari baño geiago nai diola, esango dezu. Baña infernuko biziera orren kulpak nork du? Gizonak duela diozu zuk baña ark bakarrik eztu: zuk ere izango dezu.

Ai Aita! Ta zeñ egia andia dan ori, dio emen gizonak. Gure berri balieki, berriz, ta biarretan esango luke. Sobra, ene seme, ta nai baño geiago dakigu. Aita, gure andreak infernuko suge txar baten migañ, edo mistoa baño zorrotzago du: arri ertzak ere erdira litzake; maratilla askatzean, arenak egin du: ezin arekin bizi diteke, ta etxea infernu bat egiten du.

Egia da nere gizona, ta andre batzuek orrelakoak dira; baña zuk ere orretan errua badezu. Kristau zintzoa bazera, sufritu, ta isillik larga bear

diozu. Badakizu, andre tristeak beste arma, ta ezpatarik, bere miaren punta zorrotza baizen, eztuela. Zuk, buruak bezala, juizio, ta pazientzia bear dezu: alakoan ezjaramaon, ta iges egin; badezu, bear bada, zergatik isillik egon: etxeko pakeak ori eskatzen du. Andreai, Jainkoak agintzen dizunez, zuk zor diozu pakezko, ta pazientziako amorioa: ta andreak zuri, bere buruari bezala, bildur santu, ta errespetozko amorioa zor dizu: onela Ezkonduen zeruko biziera zuzentzen da.

Baña gure gizona edao samar, edo gaitzak eragiña datorrenean, anbat golpeka asiko da. Aha goapoa! Orrelakoai esaten nien nik. Txit balientea zera: zu bezalakoak, moroak iltzera. Ah lotsarik, eta bururik ezdezun gizona! Golpeka andre zatitu? Desonra, ta gaitz, edo kalte andietako tranzeren batean emaztea, onerako kastigatu bear danean ere, ori modu onean egin bear da, ta ez abereen gisa. Bestela nork, zoro egin, ta eragin batek ezpada, bere gorputza golpeka zatitzen du. Adan, munduaren lenengo Aitak zion, eta Jesu Kristok bere Ebanjelioan dio, Emaztea ta zu Ezkontzako Sakramentuaren graziaz bat zeratela: orrela zuk andrea zatitzean, zere buru, edo gorputza zatitzen, edo banatzen dezu. Ta zer erakeria andiagorik, ori zuk egitea baño?

Pazientzia, nere andre ona, pazientzia: ta gizona ala datorrenen, Jainkoaz arma zaitte, ta lasterka nere askotako erremedio segurua arrezazu. Aita: zer erremedio da ori? Ara: zoaz ariñ sulla, edo erradara, ta laster txarrotoik aoa bete ur garbi arrezazu: ta zeruko errelikia bezala aoan, bota gabe, idukizazu, ta nere kontu, pake ederrean, ta golpeetatik seguru egongo zerala. Misiotan askotan eman dedan zeruko erremedioa da au; eta arrezkero Autore jakinsu andi bitan dotrina, ta konseju au emanik arkitu det.

Au egiten badezu, damuko etzatzu, ta pake gozoa izango dezu. Kontu, ta isillik zaude, al bazaude: bestela zureak, eta geiago artu, ta zure saietsak neurritzen, beste errelikia edo gorozti makilla arin ibilliko da, ta odola, ta negarra dariozula egongo zera. Mingaña arin erabilliak frutu ori oi dakar. Baña arrazoiakin baño, ejemploarekin Dotrina au zure buruan obeto sartuko da. Ara bada.

Ama Santa Monica gozoaren ejemplo txit eder, San Agustin nere Santuak kontatzen duena. Jainkoaren bide, ta birtute andian Santa bere gurasoak azi zuten. Monicak donzella garbi berez izan nai zukean; baña bere denbora onean, Jainkoaren borondatea, ta gurasoena egitegatik, ezkontzera sujetatu zan: eta Patricio zeritzan, ta mundurako Gizon noblea zan batekin gurasoak ezkondu zuten: uso bat Monica, ta otso bat zan Patricio. Jainkoaren bideak miragarriak dira. Gizon ori etzan Kris-



taua, ezpada Jentil fede, ta lege bagea: eta berez artz, edo leoi bat baño gogorrago.

Orregatik ere Monicaren grazia, doai, ta birtuteak alakoak ziran, non da gurutze pisu ori, ta neke guziak arintzen zituen. Guzien gañean sentitzen zuen pena zan, Patricio bere gizona Jentil, ta ez Kristau izatea: baña Monicaren orazio, ta negarrak beti ziran indar andiagoak: ta Jainkoari bere Fede, ta Lege santura senarra ekarri ziozala, ta kasto, edo garbiago egin zezala beti erregutzen zion. Ikusi zan santaren milagroa: onen negar, ta orazioak, onen birtute, ta ejemploak alakoak ziran, non geroenean Patricio bateatu, Kristau on egin, ta jainkoarentzat irabazi zuen. Jaunaren grazia, bere emazteagatik egin ziona ondo ezagutu, ta ondo pagatu zion: bada aurrera Santa txit estimatu, ta onen gustoa guzian egin zuen.

O! emazte on baten birtuteak zer milagro andiak egiten dituen! O Jaunaren pazienzia umil, ta biotz garbi, bigun, fedez, ta amarezkoak Santuetan egiten, ta eragiten duen marabillak! Usoa, ta mirua, edo ardia, ta otsoa len mai batean, ta plater batetik jaten ikustea zer zan? Ta mirua uso, ta otsoa ardi, edo bildots biurtzea, zer da milagrorik andiena baizik? Bada Monica, ta Patriciogun ori ikusi zan.

Milagro au santak nola egin zuen, bere San Agustinek kontatzen digu: Ezkondu zanetik bere senarrari, jainkoak emandako buruari bezala, errespeto guziaz begiratzen zion: etxeko gauzetan obeditu, ta bere Jauna bezala serbitzen zuen, eta ori eranzuki, ta kontraesaterik gabe. Gizona aserre, edo kolera bvezian zegoenean, Monica ixillik arria bezala, ta erausi gabe, beti egoten zan: era arako soseguan, ta beregan biurtzen zanean, humildade, ta modestia andiaz Santak arrazoia, ta kontu ematen zion. Gizonaren agrabioak pazienzia, itz bat atera gabe, sufritzen zituen, ta ezetzik beñere ematen etzion: itzakin baño ejemploakin geiago eranzuten zion: ta beti Jainkoagana biurtu, ta Patricioren salbazioa eskaten zion.

Beste etxeandre, edo Matrona bere adiskideak santak arriturik zeuzkan, zeren bere bizian senarraren kejarik, edo onen kontrako itz bat aditzen etzioten. Lagun oiek baziekiten ondo Patricioren berri, ta zeñ latza, ta garratza zan; ta orregatik ere Monica gaizki tratatu, edo gizonak eskurik ezarri ziola, iñork ere aditu etzuen; eta ala zan. Beste andre oriek negarrez Santagana etorri oi ziran, beren neke ta desdixak kontatzera, ta beren arpegietako golpeen señaile ta eridak erakustera.

Guziak, Patricio zeñ gogorra zan baziekiten, baña nola Monicak añ ondo arekin jardun, ta azertatzen zuen, etziekieten. Santak orduan bere bizi modu, ta gizonarekiko, esan degun tratamentu, ta itzegiteko bere lezio, ta konseju onak ematen ziesten. Akorda zitezela, ezkondu ziran

puntutik senarra beren burutzat artu zutela, oni obeditzeko, ta bera serbitu, ta amatzeko, itzakin baño obra onakin obeto ori egiten zala: errietak, ta ateleak utzi, ta isillik sufritu bear zala. Andre ezkondua izatea ori zala. Gizon gogor gazakaitz aserrerazo bide ematen zuenak baño, aren kontra modu gaistoan biurtzen zan andreak erru, edo kulpa gutxiago etzuela.

Senarra bere Jabe, edo Jaunzat artuezkero, andreak argatik iñoiz ere gaitzik esan bear etzuela, baizik Jainkoari erregutu, guzia ondo eramateko: ta orrekin pakean biziko zirala. Santak berak egiten zuen, a ematen zituen abiso santuak artzen zituztenak txit ondo, ta kontentuz arkitzen ziran, baña ori egiten etzutenak, ondo pagatzen zuten.

Santa Monicak, erraña gazte zala Ama giarrabarekin, mirabe zizañerakgatik asko ikusi zuen: Satanas txarrak etxea inkietatu nai zuen. Baña Monicaren orazio, pazienzia, ta ejemplo santuak guzia erremediatu zuen, ta Ama giarrabak deabruaren gezurrak, ta erraña Santaren birtuteak ondo ezagutu, ta mirabe dollorak kastigatu zituen, ta andik aurrera Patriciok, eta Amak Santa txit estamatu zuten.

Oiek dira Santa Monicaren konseju, ta ejemploak: eta Ezkonduen ispillu au da. Santaren biziera, ta obrak Jesu Kristoren, ta Sa Pabloren Dotrina dira. Eliza santa bere Esposa maitea Kristok amatu zuen bezala, bere Emaztea Senarrak amatu bear du, dio San Pablok: ta Eliza santak Kristo bere Esposoari dion lege, ta amorioa Senarrari Emazteak diuki bear dio. Senar on bat Jainkoaren eskutik bere lagun duen andreak, zeruko ditxa andi bat du, eta arrastaka badere, errazki, ta pozik serbi dezake. Emazte on bat, zeruak emanik duen gizonak, Jainkoaren fabore, ta erregalo andi bat du, ta joia prezioso bat bezala, estimatu, ta amatu bear du. Oiek bere umeak fedez, ta amore onez, Jaunaren Legean azi, ta eziaz, salbatuko dira.

Ori egiten ezdutenen bizia nolakoa oi da? Andre batek gizon nagi, jokalaria, edale, edo tabernarekin amanzebatu bat baldin badu, zer martirio gogorragorik? Jaunaren egunik andienetan, gabaz mugonez bere aurtxoak oiera zuzendu, ta bere errezoak egiten, ta pazienzia senar galdu, ta etxe ondagarri aren begira ikustea, zer da? ai triste! Ta erreka zuloetan batean ordirik, asko bezala, ito dedin bildurrez zenbat andre, ta zenbat bider arkitzen dira? Ta bizirik baator, etxean infernu bizia. Onelako gizonak Jainkoari zer kontu emango diote? Nola salbatu uste dute. Konfeso-re Jaunak beren zelo guziarekin denboraz onelakoak irabazi, ta Jainkoarentzat erremediatu bear dituzte.



Bada zer, gizon prestu batek emazte baldan, alper, itzontzi, edo itzia-rio bat badu, ta orien ondoren beste maña txarrak dituen? Ai gizon ditxagabea! Galdua zera. Etxe guztia irauli, ta zu saldu, galdu, ta ondatuko zaitu. Matrimonioan gizon, ta andreak (jakiña da) guziak dute beren gurutzea: orrekin Jesu Kristori jarraitzean dago orien zoriona. Baña orrelako andreko doakabea duenak pisuago du bere gurutzea, zeren duen gurutze buru gabea. Orrek pazienza andia, ta Jainkoari erregutzea, beste erremediorik eztu: berak onera dezake: ala nai dakiola.

Anziñako Gurasoen artean Abraanm, Isak, eta Jacob beren Emazte Sara, Rebeca, ta Raquel, estimatuakin Eskritura Sagraduak berariaz alabatzen ditu: guziak Jainkoaren adiskide andiak, ta lurreko ondasunetan, on asko egiteko, txit aberatsak ziran.

Abraan txit zarra, ta Sara larogei ta amar urtekoa zala, milagrozk, Jainkoaren bendizio guzien Seme Isac zeruak eman, ta Aita, ta Ama, Aingeruak esan zien bezela, zorionekoak egin zituen.

Isak Santua Rebeca Birjiña guziz modestarekin ezkondu zan, ta Esau, Jacob, seme bi batetan egin zituen. Isac, ta Rebecaren Erraña Raquel famatu, Jacob santuaren, ondo kostarikako Emaztea izan zan: oni seme bi, Josef kastoa, ta Benjamin gozoa Jainkoak eman ziozkan, ta bigarrena egitetik Ama il tzan.

Oien prendak, ta edertasuna Eskritura Santuak asko aditzen ditu: edertasuna, azaleko gauza bezala, autsa, ta utsa zan, ta oriena ere auts, ta uts biurtu zan. Edertasunak eztu balio, dio Espiritu Santuak: andre Jainkoaren bildurtasuna duena, alabatua izango da. Aa zuten iru Etxandre oiek. Sara Abraan bere senarrari zion errespetoagatik: Rebeca bere modestia andiagatik, ta Raquel senarraren amorioagatik: ta irurak beren birtuteagatik Historia Sagraduak andizkatzen ditu.

Job Santua bere Emazte, ta familia andi, zazpi seme, ta iru alabarekin, zer Jaunaren bildur, zer konzierto, ta era ederrarekin, añ garbiro bizi izan zan? Zer munduko aldarte, edo gora berak? Bada txit aberats, a txit pobre ikusi zan. obra on andiak askori egin, ta gero bakar pobre desanparatua ikusi zan. Orregatik ere beti santu: azkenik Jainkoak ondo probatu, ta bere bendizioz bere, ta txit aberats, ta zarra, bere umeen umeak laugarren balauneraño, ondo ikusirik, zorionekoa il tzan.

Tobias, Aita semeak, izen bateko Santu biak orobat. Job santua bezala probatua Aita, ta pazienza miragarriaren, ta miserikordiazko obra santuetan gau, ta egun jardun zuena. Guraso, ta Ezkondu santuen ispillu, ta ejemplo Jainkoak egiña, S. Rafael Aingeruagandik zazpi zeruko fabore andi artu zituen, ta berak kontaktzen ditu. ana bere Emaztearekin txit san-

turo bizi zan. Raquel zeritzan aide bat zuen: au ere Ana bere Emaztearekin aberats bizi zana oien alaba bakar Sara santarekin Tobias semea, S. Rafael Mandatari zala, ezkondu, ta Tobias, ta Ana bere gurasoen dotrinan zeruko bizitza ederra egin zuten: oiek ill, ta bien onrak egin, ta Sara bere andrearekin, onen gurasoetara biurtu zan. Raquel ta Ana illezkero, berak bezalako jendedia, ta guzia Santuen kasta, Kainkoaren bidean, ikusi ziran. Ta gauza arrigarria da: Tobias onek bere illoben illobak, edo bostgarren belau edo jenerazioraño ikusi zituen.

Oien, ta beste onelako, Fedea esaten dizkigun, Ezkondu santuen artean ere beren falta, erakaiz, ta naigabeak baziran; baña pazienziaz elkar sufritu, ta pakeratzxen ziran. Zuen pazienzian Ezkonduak, Kristok ionez, pakean zuen animak idukiko dituzute. Elkar ondo eraman, ta sufritzen badezute, Jainkoaren Legea osoro kunplitu, edo gordeko dezute, San Pablarekin esaten dizutet.



## GORPUTZA NOLA AMATU BEAR DAN

Jainkoaren bildur, ta amore santua duenak, Jainkoagan, ta Jainkoagatik bere burua amatu bear du. Bildur santu orrekin S. Pablok egiten zuena guk egin bear degu. Corintoko jendeai esaten die: Nere gorputza ezi, ta zatitzendet, ta Jainkoa serbitzera sujetatzen det. Jaunaren justizia ori agintzen du, ta gorputzak bere kulpa, usadio, edo griña gaiztoakin, aren kontra errebelatzen danean, ori eskatzen du. Penitentzia, edo sentiduen mortifikazioa deritzan birtute au beti da txit bearra. Alere onetan utsegin nai ezpadezu, ez zere buruaz gobernatu, baizik Konfesore jakinsu zelo oneko batez.

Beste gañerakoan, egiatzko Jainkoaren amoreak gure gorputzak estimatu, ta amatzera, ta zogiro, edo diskrezioaz ondo tratatzera obligatzen gaitu. San Agustin baten, edo San pablaren dotrina da au. I. Gorputza amatu bear degu, zeren bizi geran artean, obra onak egiteko orren bearra degun. II. Zeren gorputzak, gure Petsonaren parte danez animaren lagun zeruko glorian betiko izan bear duen.

III. Kristauak bere gorputza amatu bear du, gure Salbadore, Jainko, ta Gizon egiatzkoaren antz, edo imajiña bizia dalako. Erronda, edo Tronko batetik datoz Kristoren Gorputza, ta gureak: gure aragi, ta odol egin zan, ta ala beraren aidetasuna degu gure Senide Nagusia, ta gure burua Kristo da.

Ta are geiago gure gorputza erespeto andiagoaz begiratu, ta txit garbiro gorde bear degu, zeren Aldareko Sakramentu adoragarrian aidetasun ori bera berriro, ta eerkiago lotu, ta estutzen dan. Bateo santuan ori asitzen da: beste Sakramentuetan berriroitzen, ta sendotzen da. Baña Komunio sagraduan, bere Gorputz, Odol, Anima, ta Jainkotasuna, dan guzia, Jesus maiteak guri emanik, ez nola nai bere aide, baizik berekin bat egiten gaitu. O amorezko aidetasun, ta adiskidetasun paregabe laztanena.

Orañ Jainkoari gurekiko onenbeste, ta onelako faboreak eragin diozkan amore au giza ikusi, ta gure biotzari zer agindu, ta eragin bear ezdio? Nola, edo zertaraño geiegizko amore onek obilgatzen, estutzen, ta enpeñatzen ezigaitu? Ah! Jainkozko amore eder, puru, edo nasgabe onek zure ditxa du bere atsegin, edo saria! Onek eskatzen dizuna da, bera zuk ondo ezagutu, ta zure biotzeko esker onakin Jaunari gloria guzia ematea: eta aren naiera, edo kariño eragin au ondo pisatu, ta animan zure salbaziorako josi, ta beti idukitzea.

Jainko onela enamoratuaren erregaloz ezin geiago ala beterikako Kristaua: merezi dezun diña zerori estimatzeko, Apostoloarekin esaten dizut: begira ondo noren, ta nolako buruaren mienbro zera? I. Jesu Kristorena zera: zure gorputza onen arte, edo puska da: ala emendik aurrera errespeto geiagorekin, ta garbiroago ori gordezazu. Jesu Kristo gure buruaren mienbro dan zure gorputz ori nola pekatuaz deabruaren serbitzari, edo esklabo egin al diteke? O zer tratu itsusi eragabea.

II. Zure gorputza Espiritu Santuaren Eserleku, edo ontzia da, ta zure biotzean bere graziaz isuri, ta bere amorez or bizi da, edo bizi nai u. Nola bada Espiritu Santua zugandik kanpora bota, ta demonioa zugar artzera atrebi al zaitezke? O infernuko trukada beltz zeruak berak arritzen dituen.

III. Zure gorputza Trinitate guziz santu, Aita, ta Seme, ta Espiritu Santuaren Tenplo, Sagrario, ta Etxea da: bada Jaunoikoa Komunioan biotz orretan artzen dezu. Nola bada zure Jabea bere Etxetik atera, eta Satanas, edo Lucifer, zure etsairik andienari or ostatu ematera atrebi al zaitezke? O zure fede illotz nazkagarriena! Biziago, ta beroago zan Indietako Kristau berrien fede miragarria.

Aita Acostak kontatzen du, oiek bateatu, ta lenengo Komunioa artzeko ditxa zutenean, fede, ta amorio añ andiaz Jainkoa artzen zutela, non da sinisturik zeuden, ta zioten: bere Jaungoikoa Komunioan beñ artzen zuen gorputzak, ya geiago pekatuak eziñ egin zezakeala. Kristau zarra, ta askotan komulgatzen zerana, non dezu zuk onelako fedea? Zure gorputza nola estimatu, ta gorde dezu?

Azkenik zure gorputza izan al ditekean kostu, ta preziozik andienan, edo bere odol preziosoaz Kristok beretzat erosi, ta irabazia da: gorputz orretan Jainkoa zuk beti iduki, ta glorifikatzeko egiña da; gorputz, ta anima zu aren antzera santu izateko, ta Komunio santuaren birtutez, azken juizioan Kristoren gisa piztu, edo anima, ta gorputz erresuzitatu, ta gloriatz janzirik berarekin zeruan beti bizi zaitean Non bada, fede, ta lotsagabe, abereen gisa, edo oriek baño liago, ta itsusiago gorputz ori egitera zu atrebizen zera?

Au giza Ebanjelioa, ta San Pablaren Dotrina dda: ta zeruko lezio onetatik zuk ikasi bear dezu, zure gorputza Sakramentuetan Jainkoari konsagratu, ta beti garbi idukitzea: zure pensamentu, itz, ta obrak, zeran, ta egiten dezun guzia, Jesu Kristoren antzera, neurri santu, ta erregla jsutu onetan egitea: zure begiak, migañ, edo aoa, eskuak, biotza, zure barrena, ta kanpoa, janean, edanean, janzian, itzegitean, ibilli, edo egotean, nola nai, zure sentiduaz usatu, edo baliatu bear dezunean: fede biziatz biotz ori



gora jaso, ta barren,ta kanpotik Jesu Kristoz guziaz janzi zaite, ta aren gisa, aren intenzioaz, zure obra, ta lan guziak, Jainkoarenan bezala, beraren onrarako egin bear dituzu.

Naiz jatea, naiz edatea dala, edo beste edozeñ bear, Jainkoaren gloriarako, aren borondatea egiteagatik, ta aren izenean guzia zuzentzen, ta zure biotzeko intenzioa goratzen badezu, S. Pablok dion bezala, guzian Jainkoari gusto eman,ta zeru andi, edo gloria asko irabazten dezu. Errespeto onegatik, jateko, edateko, jazteko, erazteko, ibiltzeko, egoteko, itzegiteko modu justu, ta era onean, zure modestia, guzian erakutsi bear dezu: ta ori, naiz inoren aurrean, naiz bakarrik zaudela: bada Apostoloak dienez, Jainkoa zure aldean dezu, ta begira dagokizu. Begira, Kristaua, Jainkoa guzian dagoela begira. Etzaude bakarrik, begira, Aingeru santua begira dago.

Orañ beste miraria. Lurreko abere li guziak baño loiago, ta nazkagarriago zure gorputza izanik: ta geiago zuk erregalaten dezun, lurpeko ar zikin kiratsen janari erregalatu izango dan, ta guzien oñ peko auts biurtuko dan gorputz orretan Jainkoak eman, ta gorde dizu. Baña zer? Munduan dan joiarik ederren, ta preziatuena: zure anima bere antzera egiña: ori aren grazian dagoela ikusiko bagendueke, orren edertasunaz guziok arritu, edo atsegiñez zoratuko giñake.

Ea bada, fede onezaz anima zaite. Lurrak jango dituen begi oriekin, orañ modestia gordetzen badezu, Jesu Kristo, Ama Birjiña, ta Santuak sekulako glorian ikusiko dituzu: orrela beste sentiduak, eskuak, mingaña, ta gorputz ori estimatu, ta garbiro gordetzen badezu, gustoz, erregaloz betea, ta gloriatzko soñeko ederrez janzia zeruan Jainkoarekin beti egon, ta gozatuko zera. Jaunari ala nai dakiola: berak nai du, zuk egiaz nai bear dezu.

## USADIO GAIZTOAK KENTZEKO BIDE EDO DOTRINA

Gaizki egiteko, edo esateko, juramentu, birau, edo orrelako usadio, ta kostunbre txarrak, uste gabe, ta txit erraz etxeetan sartu oi dira: Gurasoak txit kontuz ezdabilta gazteai bata, edo besteagandik laster eransiko zaizte: ta sentigabe beñ orietara egin ezker, ezin erremediatu dirala, beren eskuan ezdaukatela, esango dute. Baña eskusa, ta ezin orrek Jainkoarekiko eztu balio. Dan oitura, edo usadiorik txarrena, ta zarrena izan aren ere, Jaunaren grazia, ta zure ekiñarekin, eskuaz bezala kendu ditele. Aita: orren erraz? Bai, ta seguru, zuk urrengo erreglak ondo artu, ta gordeaz.

I. da: Guraso Nagusi, edo Etxekoandreak, ez itzetan, ta ez obretan orrelako usadio gaisorik, berak ez artzea; baizik beren etxeokai ejenplo ona guzian ematea, Juramentu, maldizio, errierta, ta aserririk ezdan etxean, ume, ta mirabeak orrelako itzkuntzarik ezin ikasiko dute: ta orobat da beste eragabeko libertade, joko, jolas, itzekra, ta ibillera desonesto, ordikeria, ta onelakoetan. Guraso, ta etxeburuak, zuek Jainkoaren lekuan, ispillu bat, edo Jainkoordeko biziak bezala zerate etxeokentzat: oiek zue-tan dakusten, edo enzuten dutena, esan, ta egingo dute. Begira bada ondo Jainkoari zer kontu eman bear diozuten.

II. Baldin alde gaizto, lagun txarretatik alako usadio oker, edo itzkunde eragaberik zure ume, edo mirabeai eransi bear zaie, bereala eskuak erremediora. Esan nai det: orrelako okerrik egiten, edo esaten duen bakoitzean, bertatik pena bat ezarri: gosari, edo afaria kendu, belauniko kontriziozko aktu bat, ta guzien aurrean lurrari mun eragin. Onelako lege, edo pena bat ifiñi, ta gorde eragiten badezu, orren bildur, ta Jaunaren graziarekin, nere kontu zure ume, edo mirabe ori seguru erremediatuko dala.

III. Beste edozeñek, edo zerorrek dezun oitura zar, edo zure kondena-zioiko usadio ori sustraietik ebaki, edo ateratzeko, zeruko Mediki, ta erremedioa bear dezu. Ta ori zeñ da? Konfesore jakinsu zelo andiko bat. Animako gaitz bakoizari zer erremedio, ta kulpa bakoizari zer pena dago-kion, orrek ondo daki. Gaitz guziak era batera sendatzen ezdira. Zeruko botikan, lurrekoetan baño, erremedio geiago, ta obeagoak dira. Zure gaitzak zer bear, edo eskatzen duen, zeruko Mediki, edo Konfesore zelo-dunak daki. Erremedioa onek emango dizu, ta ori zuk gogoz artzen bade-



zu seguru kuratu, sendatu, ta salbatuko zera. Au guzia ejenplo grazioso batek obeto erakutsi, ta zure bear dezun erremedioa emango dizu.

Erregegizon, Kapitan aberats bat. Konfesore zintso, ta zeloso batekin konfesatzen beñ batean jarri zan. Beste kulpen artean esan ion, nola gaizkiesaka, ta maldizio txit asko egin zituen. Konfesoreak galdetu zion: ta zenbat denbora da, oitura ori dezula? Asko, Aita, anziñako kostumbre zarra det. Anbat gaiztoago, esan zion: asturak cdakar erraztura. Ta ori kentzeko, zer penitentzia, edo erremedio egin dituzu? Agindu dizkidaten errezoak beti egin ditut, Aita. Ta besterik ez? Ez, Aita.

Errezoak berez gauza onak dira; baña animako gaitzen batzuentzat ezidra asko: ta askotan beste erremedio portitzagoak, ta gaitzari egokia-goak bear dira. Zu, ene seme, denbora orretan guzian, ta igaroko konfesioetan, emienda gabe, gaizki ibilli zera, ta erremedioen faltaz, kondena-zioko peligro andian zure anima iuki dezu. Konfesoreak onela txit pazienzia andi, ta era onean Kapitan ori artu, ta salbatzeko egin bear zuena txit ederki erakutsi zion.

Orduan Soldaduak: Aita, esan zion: arrazoi andia dauka, ta Jainkoari, ta berorri eskerrak, nere animaren peligro orañ ikusten, ta ezagutzen det: salbatu nai det, ta orretako bidea artu bear det. Bada egiazko penitentzia zuk egitea, beste bide, ta erremediorik eztago. Agin beza bada, Aita, ta penitentzia ori eman begit. Baña arako ezurak autsitzeko, azote, zilizio, barau, edo gauza gogorrik, ez arren niri agindu, zeren Soldadua banaiz ere, ama orietara egiña eznago.

Ez esan zion Konfesore zogiak: animako gaitzak kuratzeko, ta ezurrik autsi gabeko erremediorik zeruko botikan badira. Gorputzeko penitentzia, disziplina, zilizio, barau, oieko gogortasun, limosna, ta biotzeko orazioa Jaunari egitea, ekatuen barkaziorako txit gauza onak dira. Baá zure barrengo libertade geiegi, ta eragabeko lasaitasun ori autsi, ta ukatzea zuk bear dezu. Arma oiekin, Soldadu goapoak bezala, zuk peleatu, ta ben-zutu bear dezu. Onela gure gizona txit berotu, ta penitentiaren zaletu zan.

Bada ona ni, aita: Soldadu prestuaren itza, Erregerena baliz bezala ematen diot: nai duena agin beza. Ea bada, anima salbatzeagatik, egingo dezu nere esana? Bai, Aita: Agintari naiz; baña orañ berori da nere agintari: agin beza, ta agintzeko didana egitea, nik agintzen diot. Onela pres-tatu zueneko Konfesoreak ikusi zuen, nola Jaun orrek, len oi ziran urre fiñezko botoi eder batzuek soñekoan zekartzien: ta berekiko esan zuen: Ago bada: maldizioak egiteko gogoia nik kenduko diat orañgoan. Nik bea-tza ondo lotu, pekatuen katea urratu, ta anima ori sekulako libratuko det.

Ara bada: zu salbatzeko, begira ondo, ez maldiziorik bota. Ez, Aita. Ta botatzen baddezu, kontu: ezurrik autsi gabe, zuk ondo pagatuko dezu. Bai, Aita, Ara: geiago egiten badezu, maldizio bakoitzagatik penitentzian, lenen topartzen dezun pobreaki orrako botoi orietatik bat eman bear diozu. Au enzun, ta Kapitan ori arriturik gelditu zan: Adio nere botoiak, esan, a farrari eman zion. Aita zer agintzen dit? Galdua naiz: adio nere botoi ederrak: ale bat ezta geratuko: diranak laster joango dira.

Alere, gizon prestuaren itza eman diot, ta botoiak galdu ta badere, kunplituko det. Onela Konfesio bukatu, komulgatu, ta bere debozioak egin, ta nere Kapitan ori zijoan etxera. Ta orra non, uste gabe, kalean pobretxo trinkin, edo erten bat topatu zuen. Pauso estua zan, ta erri andietan oi dana, kalea txit zikiña: ta nola pobre ori urgunka pausotik laster kentzen etzan, Kapitanak bere ausardia, ta kolera bizian besotik artu ta: kenadi ortik milla añenekorekin, maldizioa egin zion. Aotik irten orduko kontura zan.

Ai nere ditxagabea! Nik zer egin det? Adio nere botoi galanta! Bai, nik esan nuen ta onenak agindu. Jauna, lenena zure izenean: ta esan, ta egin: botoia bertan atera, ta pobreaki, tori Jainkoaren izenean eman zion. Bere bidean bazijoan, ta berekiko: onela bagoaz, zion, nere botoi guziak laster dijoaz emendik. Bere aiei begiratu, ta damu zuen añ erraz galduaz: ta besteak galdu bearrak biotzean txit miñ ematen zion. Baña zer uste dezu, Kristaua? Zenbat galdu zituela? Orra bada: ori izandu zan botoia, ta erremedio añ zerukoa, non da botoirik geiago sekulan galdu etzuen, zeren kontuz ibilli, ta maldiziorik bere bizian bota etzuen. Beñgoan betiko gogoia erraz kendu zitzaion, ta obeto joan zitzaion.

Ta orra, Kristaua, ejenplo onetan ikusi, ta animako gaitz guziak aisa, nai badezu, erremediatzeko lezio segurua ikusi dezu. Jokalaria, edalea, juramentu, ta maldiziorik, ta onelako, edo beste kostunbrea zar anziña-koak, edozeñ modutan, ituzuna, zure aitzakia, edo eskusak Jainkoaren aurrean ezdizute balio, ta ezta zer niri esan: ezin dezula, zure eskuan ez daukazula. Borondate ona, ta egiazko gogoia badezu: Jaunaren graziaz batean, orrek egin, ta ekin, ta guztia egiña dago.

Baldin Konfesore jakinsu zogiaren esana gogotik artu, ta egiten badezu, guztian erremediatuko zera. Kulpa bakoitzagatik ondo dagokizun pena emango dizu. Batari, urrengo jaiegunean ez jokora, edo tabernara joatea: besteari, ez onelako leku, edo etxetan sartzea, edo urliarekin bakarrik ez egotea: ta orren penan gosaria, edo txokolatea, edo tabako belarra, edo autsa, egun batean largatzea: ez ardo, ta ez ur, egarri izanagatik, arratsalde batean edan gabe egotea: ordu erdi belauniko, edo zutik,



edo eserita deskansu galantean, baña iñora mogitu gabe, Errosario bat, ta beste berrogei ta amar Aktu kontrizioko debozioz, ta biotzetik Ama Birjiñaren izenean, Jainkoari ofrezitzea, ta orrelakoak.

Baraurik nekazari gajoa ondo ezdagokie: baraurik asko dute beren nekea, ta ez ondo jatea: oiei errezo luzerik ezdagokie: bost Aldareak, ta beren Errosario, Kontrizioko aktuak, ta berriz, ta askotan konfesatzea: onela beste bide, a erremedio asko dira. Jainkoaren ordeko Maisu, ta Mediku, Konfesore onak zuri erakusteko, ta bear danean emateko, ondo dakizki. Zuk bearren dezuna da, ez zure borondatea, ezpada arena guzian egitea: zurea ukatu, ta Konfesoreari jarraitu: zure borondateak galdu zaitu: Jainkoarenak beretzat irabazi, ta salbatuko zaitu. Amen.